Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
161'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Urtaŕila 1'n.

# JAUNGOIKO·ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

Gotzañaren baimenaz.



1921'ko
Urtarrilla'ren 1'gn.

X 'Urtia
161'gn. Zenbakija

Amabosteroko
— inguŕlija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
161'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Urtaŕila 1'n.

## Gure bazkide ta irakuŕle gustijei urte baŕi zoriontsua opa dautsegu bijotz-bijotzetik



## JAUNAREN AGERKETA

### Ilbeltza'ren 6'n.

IRU alatzez edertutako egun deuna gogoratzen du Elizak Ilbeltza'ren 6'n. Izaŕ batek bidia darakustela soŕkaldeko iru bakaldun-jakintsuak Bethlehem'go estalpera Josu guŕtzera etoŕtzia; Jon Ugutzariak Josu-Kristo Jordan'go ibayan ugutzatzia; ta Josu'k Galilea'ko Kana'n ura ardotan biuŕtzia.

Josu'ren iru Agerketa oyetatik lenengoa, antxiñako euzkel idazti edeŕ batek, ara nola azaltzen duen:

«Josu'ren jayotzaren beŕi pozgaŕiak Bethelehem-inguruan, ez ezen, uŕutietan ere baŕeatu ziran. Eguzkiaren soŕkaldeko iru Bakalduneri izaŕ edeŕ batek adierazo zien Josu jayo zala, ta izaŕari zeŕaizkiola, Jerosolim'era eldu ziran, Josu'ren Biĺebaiketa'tik bost egunen buruan; eta galdetu zuten: Judu'taŕen Bakaldun jayo-beŕia non da? Bere izaŕa soŕkaldean ikusi degu, ta guŕtzera gatoz. Herodes Jerosolim'ako bakaldun egiten zuena, eŕi guziarekin batean, albist onekin izutu zan, eta Lagi-jakindunak bildurik, galdetu zien ¿ea Kristo non jayo beaŕ zan? Juda'ko Bethelehem'en, erantzun zioten. Iru Bakaldunak bereala artuta, galdeak egin zizten, izaŕa noiz agertu zitzayen jakiteko, ta esan zien, Bethelehem'a joanda, Auŕa biĺatu zezatela, ta gero argana itzultzeko; berak ere guŕtu nai zuela ta.»

«Iru Bakaldunak Herodes'i aguŕ eginda Jerosolim'etik irten ziranean, beŕiro agertu zitzayen urira sartutakoan eskutatu zitzayen lenago bidea erakutsi zien izaŕ edeŕa. Oni bazeŕaizkion Auŕa zetzan etxe gañean jaŕi zitzayen arterano. Bereala igaŕi zioten, biĺa zebiltzana non zegoan. Etxean saŕtu, ta arkitu zuten Donokiko Bakaldun Auŕtxoa zapi zaŕ batzuetan bilduta, Ama gazte ta ait-usteko gizon eldu

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
162'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ — 1921 — Zoŕnotza, Urtaŕila 15'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Jayotzatiko itsua osatzen dau.

(Jon IX-1-41)

ETA igaroten zala Josu'k jayotzatiko gizon itsu bat ikusi eban. Eta beren ikasleak itandu eutsoen:—Irakasleoi; au itsu jayoteko nok egin dau oben, aonek ala beren gurasoak? — Josu'k erantzun eutsen: —Beraonen obenez eta beraonen gurasoen eŕuz ezta, Jaungoikoaren alatzak beraonegan agertzeko baño. Nik, eguna dan artean, bialdu nabenaren egiñenak egin beaŕ dodaz; bai datoŕ gaba iñok beaŕ ezin egingo dabena. Ludian nazan artean ludiko argi naz. — Eta itzok esanda luŕera txu-egin eban, eta txuagaz lupetz-egin, eta lupetzaz itsuaren begiak igortzi zituan. Eta esan eutson: — Joadi, ta Siloe (*Bialdua* esan gura dau) igertegian garbitu adi. — Joan zan ba, garbitu zan eta ikusten ebala biurtu zan. Alan ba, auzoak eta len eskeko ezagutu ebenak esaten eben:

¿Ez ete da auxe jesaŕita eskatzen ebana?—Batzuk esaten eben: Bai ziñez, bera da. — Beste batzuek: — Ez, au ez da, aonen antzekoa baño. Baña berak esaten eban: Ni, nerau naz. Eta esaten eutsoen: ¿zelan ba ire begiok idigi yataz? Erantzun eban: Josu deritxon gizonak lupetz-egin dau, begiak igortzi daustaz ta esan daust: Siloe igertegira (oxinera) joadi ta garbitu adi. Eta joan eta garbitu naz ta ikusten dot. Eta esan eutsoen: Non yagok bera? Diñotse: Ez dakit. Eta itsu izan zana parixetaŕakana eroan eben. Eta larunbata zan Josu'k lupetza egin eta begiak argitu eutsozanean. Eta parixetaŕak baŕiro itanduten eutsoen zelan ikusten eban. Eta berak esan eutsen: Lupetza begi gañetan ipiñi daust niri, ta garbitu naz ta bai'dakust. Baña parixetaŕ arteko batzuek iñoen:—Au ba, Jaungoiko'agandiko gizona ezta, larumbata eztau yagoten-eta. Eta beste batzuek esaten eben: ¿Gizon obendiak alatzok zelan egin leikez? — Eta euraen artean targoa zan (bananduta ebizen). Gero ba, baŕiro itsuari diñotsoe: — Ik ba, eure begiok idigi daustazanatzaz, zer diñok?— Eta berak esan eban: — Iragarle dala. — Eta judaŕak itsua izanda ikusten ebala ezeben ziñestu, ikusten ebanaren gurasoak deitu arte. Eta itandu eutsien esanaz: Au da zeuen seme zuek itsu jayo zala diñozuena? ¿Zelan ba, oin ikusten dau? Aren gurasoak erantzun eta esan eutsien: Au gure seme dala ta itsu jayo zala baidakigu, baña orain

zelan ikusten daben eztakigu, edo begiak nok idigi dautsozan eztakigu: berari itandu egiozue, adiña bai'dau; bere buruatzaz itz-egin dayela. Aren gurasoak au esan eben, judaŕen bilduŕ ziralako, judaŕak itundu ziran iñok autortuko ba' eban Josu-Kisto zala, batzaŕtokitik jaurtiteko. Augaitik aren gurasoak esan eben: Berari itandu egiozue adiña bai'dau-ta. Baŕiro ba, itsua izan zan gizona deitu eben eta esan eutsoen: Jainkoa goretsi egik. Guk gizon au pekataria dala, bai'yakiguk. Berak baña esan eutsen: Obendari (pekatari) dan eztakit: baña auxe bai'dakit len itsu nintzala ta orain ikusten dodala. Esan eutsoen: ¿Zer egin dausta ba? ¿begiok zelan idigi daustaz? Erantzun eutsen: Esan dautzuet ba eta entzun dozue: ¿baŕiro zertarako entzun gura dozue? ¿Ala zeuek be, Bere ikasle egin gura ete dozue? Gaiztetsi eben eta esan eutsoen: I, bere ikasle izan adi, gu Mois'en ikasle gozak. Guk Mois'i Jainkoak itz-egin yeutsola bai'yakiguk, au baŕiz nondikoa dan etxakiguk. Ta gizon arek erantzun eta esan eutsen. — Auxe bai aŕigaŕia dala; zuek nondikoa dan ez dakizue, ta nire begiak idigi dituz. Jaungoiko'ak obendioai ez dautsiela entzuten bai'dakigu (1), baña norbait Jaungoiko' aren guŕtzaĺea ba'da ta bere naya egiten ba'dau aoneri entzuten dautso. Egundo ezta entzun jayotzetiko itsuaren begiak norbaitek idigi dituanik. Au Jaungoiko' gandikoa ezpalitz deusik ezingo leuke egin. — Erantzun eta esan eutsoen: — Obenez osorik jayo az, ta guri irakasten atoŕ? — Eta atera (kanpora) jaurti eben·

Josu'k batzartokitik (sinagogatik) atara ebela, ta aurkitu ebanean esan eutson: — Jainko'aren Seme'agan ziñesten dok? Ta berak eratzun eta esan eutson. — Nor da ba, Jauna, beragan ziñestu dagidan? — Eta Josu'k esan eutson: — Ikusi dok ba, ta eugaz itz-egiten yagoan au berau dok. — Eta arek esan eban: Jaunoi, bai'dot ziñesten. Eta belaunbikotuta guŕtu eban.»

(1) Euren asmo gaiztoetarako esan gura dau.

* * *

Tabor mendi oñean gaizkindua osatu ta emen damingun alatz au arterañoko Josu-bizitzako jazokunak laburki, aonexek dira: Galilea-zeaŕ joyala ikasleai baŕiro bere Nekaldi gogoŕa iragaŕi eutsen, eta Kapharnaum'era eldurik, Kepari lenengo aŕapatuko eban aŕaiñaren aoan aurkituko eban txindiaz zerga ordaintzeko agindu eutson. Geroz ikasleak euraen nagositasunatzaz ezbayan ziarduelako, Josu'k irakaskizun onuratsuak emon eutsezan. *Tabernakuluen-jaya* eritxona urbildu zañean, (euraen *Tirsi* iĺa; gure *Uŕiĺa*'ren 15'tik 21'era) bere senideak bere burua antxe agertu ta ospea zabaltzeko Jerosolyim'eratzea egoki izango zala esan eutsoen aŕen, beintzat Galilea'n gelditu ta gero ixilean joan zan. Bidez Samaria'ra eldurik ezeutsoen ostaturik emon eta beste eŕi itsu ta gogoŕetara azkenengo deya egiteko irurogetamabi ikasle biñaka bialdu ebazan. Ta azkenez Betania'ra eldurik lege-jakitun bateri geidemaitasunatzazko ikaskizun edeŕa emon ta jai aldiko laugaŕen egunerantza Jerosolymera zan.eldu An bere Jaungoikotasuna argiro azaltzen ebalarik, parixetaŕen gaiztakeria argiro, azaldu ebalako aŕika egin gura izan eutsoen, baña Gaizkatzaĺea igartzeke eskutau zan. Eta baŕiro Eliza'tik urten ebanean, jayotzetiko itsua aurkitu, eŕukiz begiratu, ta Bera ludiko Argia zala adiraziaz, txuagaz lupetz apuŕ bat egin, begiak igoŕtzi ta Siloe oxiñean garbitzeko agindu eutson ta beste barik ikusten ebala, gustiz osatuta biurtu zan.

Alatz au obeto eziñalean azalduta Goiz-parkian bertan dakusgu, beraz azaldu bearik ezta. Oartxo bat bakarik. Jayotzetiko itsu begiko au Eliz-Gurasoen eritxiz Sidonio izenduna zan. Jayotzetik itsu izan zala iñok ezin lei ukatu. Gurasoak, senideak, auzokideak, ezagutzen daben orok ao batez autortzen dabe. Josu-Kisto'k itsu au osatzeko erabili eban osakaya, itsu dana argitzeko baño argi dana itsututeko egokiagoa dala be, iñok ezin lei ukatu. ¡Lupetz apuragaz begiak igortzi, osinean garbitu, ta begiak argitu!!! Alatz garbiagorik zer? Parixetarak eurak ziranak izanda, ukatzen ez asartzeko!!! Alatzaren kaltez etziran ainbeste asartu baña egilearen kaltez bai. Baña eskar oneko itsu aonek iñoren bildur barik sendoro aldeztu eban, ta berau begiz baño gogoz itsuago ziran parixetar iguingariak egindako alegin gustiak, alatz aonen argia geyago ta geyago zabaltzeko bide izan ziran. Alatz aonen Egilearen Jaungoikotasuna ez ikusteko begiak itxitea zan bide bakara. Eta zoritxarez parixetarak auxe egin eben.

* * *

Kistar maite: Josu-Kisto ludiko argia da, ta lureratzen diran gizon gustiak argitzeko zerutik jatsi zan; bere irakaskizun eta alatzak eguzki berberak baño argi biziagoa zabaltzen daben aren, bai-dira zoritxarez parixetaren antzera, egiñenakaz beintzat Jaungoikoa autortu gura eztabenak. Oneik euroen biotz gogorez ta arokeriz itsuak dira; eztabe argirik gura ta begiak itxiten dabez Jayotzetiko itsua baño erukariagoak dira!

Guk egiaren argia ikusteko naiz ta garatsa izan, begi ta biotza zabaldu bear doguz, eta itsuak egin eban lez etsai amoratuaren aurean be, adoretsu aldeztuteko beartuta gagoz. Eta au ez dagiana, Josu-Kistoren benetako jaraitzale ezta.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 16'gn.; 23'gn.; 30'gn.

*Gure goterkijan, amabostaruon jai osorik ez da. Igandietan kistar orok jaupa osua entzun -biar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 15'gn. Deun-Paul lenengo lekautija.

17'gn. Deun-Andoni, lekaipurua, abere-Zaindarija, beraz lugiñak eta aberedunak oneraspen bedegarez zaintzen daben eguna.

19'gn. Sendi-Deuna.

22'gn. Deun-Bingen, jaupaltseña, ziñopea, odolez bizkatara.

24'gn. Gentzadun Ama-Neskutza.

27'gn. Deun-Jon Kisostoma, gotzaña, irakaslia, txonislari-eredu ta Zaindarija.

29'gn. Sales'tar Deun-Pantzeska, gotzaña, irakaslia, iraslia. **Deun-Joseba'ri saspi igandietako oneraskuna asteko eguna bijar.**

* * *

## Urtarila 22'gn.

### Deun-Bingen, jaupaltseña, ziñopea

Bingen deuna, kistar azarija, ziñopea dedutsua, Hueska'n jayo zan aren, ata Bizkai'ko Karantzatara zan ezkero, odolez bizkatara zan. Gastarua Zaragoza'n igazi eban, Baleri gongotzañak bere ardurea artzen ebala, emonda ikasti argijak. Gaste deuna bai jakindi baña batez-be ekandonetzaz asko auteratu zala ikusita Baleri'k jaupaltseindu eban, eta bera zara zalako, bata esanezinduna, bere ordez txonitzak egiteko agindu eutsan. Bingen

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
163'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ
1921
Zoŕnotza, Otsala 1'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Emakume bat larunbatez osatzen dau.

(Luk, XIII-10-17)

ETA larunbatez euraen batzartokian (sinagoga) irakasten ziarduan. Eta ara emakume bat igaroko amazortzi urteetan gexo-gogoa eukana, eta ezelan be goirantz begiratzeko añan makuŕtuta zegoana. Josu'k ikusi ebanean beragana deitu eutson: «Emakumeoi; zeure gexotik azke zagoz» Eta eskuak ezaŕi eutsozan eta bapatean arteztu zan eta Jaungoikoa goresten eban. Orduan sinagogako nagosiak itz-aŕtuaz, Josu'k larunbatez osatu ebalako asaŕez, gizosteari esan eutson: Lan egin leiken egunak sei dira; egun oŕeitan ba etoŕi osatu zaizen, ez baña larunbatez.—Jaunak aoneri erantzun eutson: ¡Aizunok! (hipócritas), zuetariko bakotxak larunbatez bere idia, ala azkatik astoa ez ete dituz azkatzen, eta edanerazten eroaten? Eta Satanas'ek amazortzi urtetan lotuta euki daben, Abraham'en alaba au larunbatez lokaŕi onetatik azkatzea ez ete zan egoki? Eta oneik ziñoazala bere etsai gustiak lotsaz bete ziran eta eŕi gustia Berak aintzagaŕiro egindako gauza gustietzaz poztutzen zan.»

* * *

Jayotzatiko itsua osatuta, Josu'k artalde aldez bere bizia emoten eban Artzain ona Bera zala azaldu eban, eta itzaldia amaitu ebanean, judaŕak, batzuk txeŕena eukala ta burutik egiala ziñoen, beste batzuk ostera, bere itz eta egiteak txeŕena eukanenak etzirala ta, eretxiz bananduta ebizen. Andik laster, egun baten otoi egin ondoren, bere ikaslien eskariz «Aita gurea» irakatsi ta otoyaren beaŕizan eta indaŕa irudi bidez azaldu eutsen. Aldi atan gaizkindu itzge (mutu) batetik txeŕena jaurti eban, eta gizostea aŕitzen zala mutuak itz egin eban. Eta bere etsayak baŕiro be, Beelcebub'n izenean txeŕenak jaurtitzen ebazala esan ebelako gogoŕ eta egokiro erantzun eutsen. Eta egun baten geure egite gustietan asmo ona euki beaŕ dogula azaltzen ziarduala, parixetaŕ batek jateitu (konbidau) eta eskuak garbitzeke jaten asi zala-ta berekautan gaizki oldosten ebalako, Josu'k gogorkiro bere aizuna (hipokresia) begi auŕean ipiñi eutson. Geroz gizatalde andiz inguraturik, pari-

xetaŕen legamitik iges egin, Jaungoikoa'ren bilduŕ bakaŕik izan, bilduŕ barik nai non bere irakatsiak zabaltzeko agindu, zikoizkeria ta ludi ontako gauzatzazko ardura laŕegia debekau, ta ludiko gauzak ezetsi beaŕ dirala irakatsi, ta ikasleai euraen biarkunatzazko oartxu batzuk egin ondoren, laztasuna egiteko gizataldeari agindu eutson. Eta irakaskizunok larunbatez batzartoki baten irakasten ziarduala, dirudienez Jerosolym inguruko eŕi baten, gizaŕtean emakume gexo bat ikusi eban. Gexoak bizkaŕ-azuŕa makuŕ-makuŕ einda eukan, eta amazortzi urtetan alantxe zegoan goirantz begiratzeko gauza etzala. Josu beratzaz eŕukiťu zan batez bere txeŕenagandik zetoŕkion gatxa zalako. (Luk. XIII-11) Ikusi ebaneko, berak ezeŕ eskatzeke, Beragana deitu eta itz oneikaz osatu eban: «Emakumeoi, zeure gexotik azke zagoz.» Eta eskuak beregain ipiñi ta bapatean arteztu zan, pozaŕen Jaungoikoa goraltzen ebala.

Bai dira ziñez gaur egunean, gorputz ala azuŕ okertasunak, batez bere gexo baŕitan, zuzentzeko bideak; janzki berezi, ala azuŕ zuzentzeko tarmankulu edo aparatuz, ala tximist indaŕez ta abaŕ; baña emen ezta olakorik.

Amazortzi urtean makurtuta zegoan gexoa gizataldea begira zegoala, ta gustiak ikusi eben lez, Josu'ren itz bat bitarte zala beste barik zuzenduta, osoro sendatuta geratu zan. Jaungoiko-itzaren indaŕ neuŕigabea emen dager! Alatz aonen kaltez, iñok ezin leike esan, kirioetako (nervioetako) gatxa zala-ta, ziñeste biziz, ta uste osoz Josuganatutzeak egin eutson zauskadaz osatu zala; ainbeste urtetako eritasuna zauskadaz osatzekoa eztalako, ta gañera Jauna'ren eŕuki utsez, berak ezeŕ eskatzeke ta alako uste barik, bapatean osatu ebalako.

Sinagoga'ko nagosiak, Josu'ren alatz aonek bere bekaitzezko begiak argiz mindu ebazalako, biotzeko asaŕea agertu gura eban, etzan baña aŕikadatxoa Jauna'ren auŕka zuzen jaurtiten asartu, zeaŕetara jo gura eban, eta oŕetarako gizosteari asaŕez esan eutson: «Lan egitea ziľegi dan egunak sei dira, egun oŕeitan etoŕi ba ta osatu, ez baña larunbatez.» Josu-kisto'k asaŕe-itzok beretzat zirala ezaguturik, erantzun edeŕ au arpegira egotzi eutsen: ¡Aizunok! (hipokritok) zuetariko bakotxak larunbatez izan aŕen, bere idia ala astoa azkatik ez ete dituz azkatzen eta edanerazten eroaten? Eta Satanas'ek amazortzi urtetan lotuta euki daben Abraham'en alaba au, larunbatez lokaŕi onetatik azkatzea ez ete zan egoki? Itz oneikaz Josu'ren etsayak zer erantzun ezekiela lotsaz bete ziran; eta gizataldea baŕiz Berak aintzagaŕiro egindako gauza gustietzaz pozez bete zan.

* * *

Kistaŕ maite: Emakume gaxo aonetan, girnaz, zalekeri gaiztoz, luŕeko atsegin-ondasunetara biotza makuŕtuta, Satanas'en menpean dagoanen irudia ikusi geinke. Goiko gauzari lepo-emon dautselako goirantz begiratzeko be gauza eztala aurkitzen da. Berenez ezertarako ezta gauza, Jauna'ren laguntza barik zerurantz ezin leike begirik jaso. ¿Zer egin ba? Jauna'ren Biotz - eŕukitsutik urtendako dei samuŕak entzun ta apalik Beraganatzen ba'da, bere itz bat naiko izango da luŕerantz makuŕtzen daben lokaŕi gustiak apuŕtu, ta goiko gauzak beti begi - auŕean erabili al izateko. Arako egiñak gareala ba, ez aztu.

GABIREL.

# GIZA - GURENAK

Non nai dakusgu
gizon ben-bena,
besten eredu
dirudiena,
jakitun samaŕ
jantzi apañaz
atzipetuten
nor nai mingañaz.
Askok albotik
igarotean,
auxe diñoe
euren artean:
«Ori dok ori,
ori gizona,
nekezarien
aizkide ona.»
Aurkezten yako
baña onetan,
txindi zoŕoaz
bere ezkuetan,
gizon maltzuŕ bat
au diñotsona:
«Neugaz ba'zatoz
zeuretzat dana.
Oŕetarako
zuzentasuna
da menperatu
beaŕ dozuna.»
Ta gizon zuzen
dirudienak
auziten dituz
lege zuzenak,
naiz beaŕ ba'da
oŕetarako
eŕugeari
espetxerako
bidez, sendiak
sakabanatu
ta euren gentza
dana ondatu!
Ta gizon ¡zuzen!
gaizkiĺe ori,
or da esaka
ben-ben nai nori:
«Zuzentasuna,
zuzentasuna!
da gaur ludian
beaŕ doguna.»
Norbaitek baña
bere baŕuan,
ixil diñotso
salatzekoan:
«Zuzentasunik
bai'dok ludian?
ta burua dok
daukan tokian?»
Ta zuzenzale
dirudiena,
izan aŕen be
gaizto baltzena;
gaur andikien
itxaropena,
da, ta askontzat
!!!Giza-gurena!!!

GABIREL

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
164'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Otsal̄a 15'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Larunbatez urmindun bat osatzen dau.

(Luk, XIV-1-6)

ETA Josu sarturik larunbatez jateko parixetaŕ nagosietariko baten etxean, eurak zain-zain eukozala jazo zan. Eta ara bere auŕean, urmindun gizon bat eukon.

Josu'k erantzuten lege-jakitun eta parixetaŕai, itz-egin eutsen esanaz: Larunbatez osatzea zil̄egi ete da? Arek baña ixil̄du ziran. Orduan berak aŕtuta osatu eban, eta bialdu eban. Eta arei erantzuten esan eban: Zuetarikoen asto ala idi bat osinera jausiko ba'litz, berialaxe larunbata izan aŕen atarako eleukenik ete da? Eta arek gauza onetzaz ezin erantzun eutsen berari.»

* * *

Josu-Kisto'k emakume makuŕtua osatu ebanean, zerba ale ta legamiatzazko ipuña azaldu eutsen, eta uri baseŕi zeaŕ irakatsiaz, Makabeotaŕak egin eben Eleiz-Opaltze gomutaz, judaŕak egin oi eben Encenia deitzen eutsen jai eguna igaroteko Jerosolym'eratu zan. Neguan zan. Aren Kasleu edo Lotazil̄a erdi ingurua. Eta Salomon'en ataria eritxon tokian egurasten zebil̄ela judaŕak bere Jaungoikotasunatzaz egin eutsen itaunari garbiro erantzun eutselako, asaŕez aŕika egin gura izan eutsoen, baita oratu gura eben erailteko asmoz, baña esku aŕtetik iges egin eutsen. Eta Jordan ibaya igarorik, Perea deritxon eŕkira joan zan. An bizi ziran parixetaŕak, euraen asmo gaiztoak betetako edo, baŕiro Jerusalem'era biurtu zedin, bertoko agintari Erodes'ek erail̄ gura ebala-ta, andik urteteko esan eutsoen. Josu baña etzan bilduŕtu ezta euraen esanai jaramonik egin be.

Eta egun baten Perea muga inguruko eŕi baten parixetaŕ nagosienetariko batek jateitu (konbidau) eban eta bere etxean saŕtu zan. Larunbata zan. Judaŕen jai eguna. Parixetaŕ nagosiak, asmo txaŕez jateitu ebanik eztirudi, baña bai'ziran bertan nagosiaren ideko batzuk, Josu utsen baten aŕapatzeko asmo txaŕez begi ta belaŕi eginda zegozanak. Josu'k au gusti au ondo zekien, eta alan da gusti be, etsayak edatutako sare artan auŕez saŕtu zan, ezebela aŕapauko ondo ekialako. Dirudienez lenengotik,

urmindun gexoa bere auŕean ikusi eban. Parixetaŕak Josu zirikatzeaŕen eroan ete eben? Eztakigu. Gexoak beintzat ezeban esan beaŕ izan ezeŕ, parixetaŕen bilduŕez edo, larunbatez osatzea txaŕtxat aŕtzen ebela bai'ekialako. Dana dala, Josu'k parixetaŕak ipiñitako sareok laster apuŕtu ebazan.

Gexoatzaz eŕukitu zan; osatu gura eban, bai ekian baña parixetaŕak adi-adi eukozala, beste askotan lez, larunbata ezebala zaintzen-eta salatzeko. Eta ara zer egiten daben. Parixetaŕ eta lege-jakituñei auxe itanduten dautse: Larunbatez osatzea ziĺegi (libre) ete da? Eurak, Josu'k beŕerantzunda lotsatuta itxiko ebazan bilduŕez, etziran edo erantzuten asaŕtu; baña biotzez auxe ziñoen: Ez, ziĺegi ezta.

Josu-kisto'k au ezaguturik, bere ontasun eta almen neuŕgabea agertzen ebala, gexo urmindunari eskua aŕtu, osatu, ta bialdu eban. Eta euraen baŕuko oldoskunari erantzuteko itaun edeŕ au egin eutsen: Zuetarikoen asto ala idia osinera jausiko ba'litz; larunbata izan aŕen berialaxe atarako eleukenik ete da? Eta lotsatuta txitik ezeben erantzun zer esan etzekielako.

Urmiña (hidropesia) gexo astuna da, eta arinduteko osakai batzuk diran aŕen, osagiĺeak ao batez autortzen dabe, benetako urmiña bapatean iñoz ezin leikela osatu, eta alan da be, Josu-kisto'k ezertarako osakai barik bapatean osatzen dau. Jaungoikoaren almena argiro ez ete dau agertzen?

* * *

Kistaŕ maite: Josu-kisto'ren gogo zaletasun eta biotz zabalaren agerkai edeŕ bat alatz onetan dakusgu. Bere etsai amoŕatuak jateitu, maltzuŕkeriz betetako parixetaŕ gaiztoen eŕdian aurkituko zala jakin, Bera galtzeko ebiltzala ezagutu, joango zan tokia bera aŕapatzeko sarez beterik aurkitzen zala ikusi, ta alan da gusti be, ontasuna zabaltzen ludi ontatik igaro zanak geideari on-egiteko eretirik eztau galtzen. Gorputzeko gexoak osatuaz batera, gogoak beragantzeko egaŕia asetzen alegintzen da, eta eguzkiak lez bere izpi bero onuratsuak bazteŕ gustietara zabaltzen dituz...

Eta guk beaŕ ba'da bere jaŕaitzaĺe zintso etsiten gareanok: ¿Zer egiten dogu..?

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 20'gn.; 27'gn.

*Amabostaruon gure goteŕkijan jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzunbiaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 16'gn. **Barau-eguna;** laurenaldija.

18'gn. **Aratuzte** — aragija izteko — ta **barau-eguna;** laurenaldija.

19'gn. **Barau-eguna;** laurenaldija.

23'gn. **Barau-eguna.**

24'gn. Deun-Mati, beldua, jai erditzat zaintzen doguna.

25'gn. **Aratuzte** ta **barau-eguna.**

26'gn. **Barau-eguna.**

Gure irakuŕlietan buldadun ez danik ez dala ixango-ta, buldadun diranentzat ixentauta diran **aratuzte** ta barau-egunak baño ez doguz iragaŕten. Buldadun ez diranak guk emen iragaŕten doguzan baño **aratuzte** ta barau egun geyago zaindu-biaŕ dabez,

## Otsala 19'gn.

Kordoba'ko Deun-Albar, autoŕlia

XIV'gaŕen eundijan ludijon argi egin gixon ospatsuetatik bat ixan zan gauŕ

# GIZON ALA...

Uŕe dis-disak
bakaŕik poztu,
jan-edan gaŕa
nondik asetu;
girña lizunen
nabarkeria;
biotz-goŕoto
bekaitzkeria;
adimen-iḻun
jopu biotza...
da gaur askoren
zorun-zoruntza.

Ta ori ei da
gizatasuna!
girña galduen
joputasuna.

—Ori gizonen
ezaugaŕia?
Zer da orduan
basapiztia?

GABIREL.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia 165'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Epaiĺa 1'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### ELAZAR'EN BERPIZTEA

(Jon, XI-1-48)

ETA gizon bat gexorik zegoan, Elazar Bethania'koa, Miren eta Marte bere aiztaren baseŕikoa. (Miren Jauna igurzkiz iguŕtzi ta bere oñak bere adatsaz garbitu eutsozana zan (Elazar beraonen neba gexorik zegoan.) Bere aŕebak Beragana bialdu ebezan esaten: Jaunoi: ekizu; zuk maite dozuna gexorik dago. Josu'k au entzunda esan eutsen: Gexo au iltzerako ezta, Jaungoikoa'ren aintzarako baño; Jaungoikoa'ren Semea bere bitartez aintzaldua izan daiten. Josu'k ba, Marte, eta bere aizta Miren eta Elazar maite zituan.

Gexorik zegoala entzun ebanean ba, ondiño beste egun bitan bertan gelditu zan. Eta igarorik bere ikasleai esan eutsen: Judea'ra bariro goazen. Ikasleak esan eutsoen: Irakasleoi; Judaŕak aurtemin aŕika eiteko biĺa ibiĺi yatzuz, ta ¿bertara zoaz baŕiro be? Josu'k jardetsi eban: Egunorduak amabi ez ete dira? Egunez dabiĺenak toporik ez dagi, ludi aonetako argia ikusten dabelako, gabaz dabiĺenak baña topo-egiten dau beragan argirik eztalako. Oneik esan eta gero esan eutsen: Gure aizkide Elazar lo dago; baña bai'noa bera lotatik esnatzeko. Bere ikasleak baña esan eutsoen: Jaunoi; lotan ba-da osatuko da. Josu'k beren eriotzeatzaz itzegin eutsen baña, arek gorputz loatzaz itz-egiala uste izan eben. Orduan Josu'k argiro esan eutsen: Elazar il da, eta zeuokaitik—ziñestu dagizuen—bertan egon ezaz poztuten naz. Baña goazen beragana. Orduan Toma, Didimo eritxonak bere ikaslekideai esan eutsen: Geu be goazan eta Beragaz il gaitezan. Josu eldu zan ba, ta igaroko lau egunetan obiratuta zala aurkitu eban. Jerosolym'dik Bethania'ra, amabost bat estadio, (iru ordu lauren inguru) egozan. Judataŕ asko ba, Marta ta Miren'egana etoŕi ziran, euren nebatzaz eurak poz-asetzeko.

Marte'k Josu zetoŕela entzun ebaneko, bidera urten eutson, Miren baŕiz etxean zegoan. Marte'k ba, Josu'ri esan eutson: Jaunoi; emen izan ba'ziña, nire nebea etzan ilgo. Baña oin be bai'dakit Jaungoikoa'ri eskatzen dautsozun gustia Jaungoikoa'k emongo dautzula. Josu'k esan eutson: Zure nebea berpiztuko da. Marte'k erantzun eutson: Azkenengo eguneko berpizkundean berpiztuko dala bai'dakit. Josu'k esan

eutson: Berpizte ta bizitza Neu naz: nigan ziñesten dabena, ilten ba'da be, bizi da, eta bizi ta nigan ziñesten daben oro iñoz be ezta ilgo. ¿Au ziñesten dozu?—Esan eutson: Bai Jauna, nik ziñestu dot, ludi onetara etoři zaran Jaungoiko Biziaren Semea, Kisto zu zareala. Eta au esanda joan eta ixilean bere aizta Miren deituta esan eutson: Irakaslea emen dago, ta deyez daukozu. Berak au entzun ebaneko, beriala jaiki ta aregana joan zan; ondiño ba, Josu etzan eřira eldu; Marte'k urten eutson tokian zegoan. Beragaz etxean egozan eta poztuten eben judařak Miren jaiki ta iraduz urteten ikusi ebenean berari jařaiťu eutsoen esanaz: Iľobira doa bertan negař egiteko. Miren ba, Josu zegoan tokira eldurik, ikusi ebanean bere oñetan auzpeztu eta esan eutson: Jaunoi; emen izan ba'ziña nire nebea etzan ilgo. Josu'k berau negařez ikusirik, eta beragaz etoři ziran judařak be, negařez; zotin - gařasi bat egin eta dardaratu zan. Eta esan eban: ¿Non ipiñi dozue?—Esan eutsoen: Jaunoi; zatoz eta ikusi eikezu. Eta Josu'k negař egin eban. Eta judařak esan eben: Ara zelan maite eban. Baña euretariko batzuk esan eben: Jayotzetiko itsuari ikusmena emon eutson onek, au ez iltea ezin zeikian egin? Josu bařiro Beragan zotin egin eta iľobira eldu zan. Atx-zulo bat zan, eta aři batek estaltzen eban.—Josu'k esan eban: Ařia kendu egizue. Ildakoen ařeba Marte'k esan eutson: Jaunoi; kirastuta dago, lau egun daroyaz-eta. Josu'k jardetsi eutson: Ziñesten ba'dozu, eztautzut esan Jaungoiko aintza ikusiko dozula? Ařia ba kendu eben. Eta Josu'k goirantz begiak jaso eta esan eban: Aita; eskařak dagitzudaz entzun daustazulako. Nik ba' nekien beti entzuten daustazula, baña inguratzen naben eřiagaitik diñotzut, zeuk bialdu nozula ziñestu dayen. Au esanda, abots andiz gařasi egin eban: Elazar: ¡urten atera! Ta ilda zegoana beriala urten zan oñak lotu, ta esku loturaz, ta bere arpegia iloyalagaz estaldua zan.

Josu'k arei esan eutsen: Azkatu egizue ta laga joaten. Miren eta Marte'nera etoři ziran judař askok, Josu'k egin ebana ikusirik Beragan ziñestu eben. Baña batzuk parixetařakana joan eta Josu'k egindakoa edestu eutsen. Jaupari nagosi ta parixetařak ba, itun - batzařa bildu ta esaten eben: ¿Zer egiten dogu? gizon onek ba, alatz asko dagiz. Olan lagatzen ba'dautsogu, gustiak Beragan ziñestuko dabe, eta Romatařak etořiko dira, ta geure uri ta lateři au zuzituko dabe.»

* * *

Parixetařaren etxean urminduna osatuta, Josu-Kisto'k Perea aldeko eřietan irudi eta ipuiñ edeř bidez onu ta irakatsi goitařak zabaltzen ziarduala, bere aizkide maite bat, Elazar Bethania'tařa, gexorik zegoala iragaři eutsoen.

Josu'k gero bere ikasleai esan eutsen lez, bai'ekian bere aizkidea il zala, ta bertan beste egun bi igarota ta gero, Bethania'ra joateko asmoa artu eban. Ikasleak burubide au kendu gura izan eutsoen, aurtemin, ařika egin gura eutsoen etsayak ilteko asmotan ebiltzazalako. Baña Josu'k bertara eldurik, Jon deunak ain ederto edestuten dauskun alatz aundi au egin eban. Lau egunean obiratuta, usteltzen asita zegoan bere aizkide maitea itz bategaz berbiztu eban.

Bere berbizte aintzagařiaren uřengo, Josu-Kisto'k egin eban alatzik edeřena auxe izan zan. Lenago iľak biztu zituan: Jairo'n alabea oyan zetzala; Naim'go alargunaren semea, iľobirantz eroyela; baña Elazar, lau egunean obiratuta usteltzen asi ta gero biztu eban. Jairo'n alabea erio-

tzearen atzamařetatik atara ba-eban, ta Naim alargunaren Semea eriotzearen agiñ-artetik, Elazar eriotzearen sabeletik atara ebala esan geinke Argi ta goragařia da ba alatz au.

Elazar il̄, ta benetan il̄ zala iñok ezin lei ukatu.

Josu'k iragaři eban; ildakoaren ařebak; onei samin-aguřa egiten Jerosolym'dik etořitako judařak; Kisto'ren etsayak eurak; lau egunean obiratutu eukiteak; ta batez be, iłobiko ařia kendu ebenean, bařutik urten eban ustelkeri kiratsak oyuka Elazar'en eriotzea egiztuten dabe.

Eta benetan il̄ zala iñok ezin ba'leike ukatu, bařiro biztu zala gitxiago. Josu'k «Elazar; ¡urten atera!» esan ebanean, etsai ta aizkide, gizoste andia zer gertatu beař ete eban arnasa barik lez ixil̄-ixil̄ik zegoala, ilda zegoana, esku, oñak lotuta, ta arpegia iłoyalaz estalduta, bizirik ilobitik urten zan. Josu'k azkatzeko agindu eban, eta Josu-Kisto'ren Jaungoikotasunaren ziñaldari (testigu) bizi au, urte askotan bizi izan zan, Alatz onetan, Josu-Kisto, *egizko Jaungoiko eta Gizona,* dala argiro agertzen da. Josu'k bere Biotz-samurtasuna agertzen ebala, aizkidearen eriotzea zala-ta, negař dagi; zelan baña begizko gizon izan ezpalitz? Baita be, itz bategaz bere aizkidea eriotzako il̄unpetik ataraten dau. Bere Jaungoikotasuna, eguzki argiak lez dis-dis egiten alatz onetan ez ete dakusgu?

* * *

Kistař maite: Berbizte ařigaři au ikusirik, judatař askok Josu-Kisto'gan ziñestu eben. Beste batzuk baña, parixetařari ikusitako gertakizunen bași emoten joan ziran. Onek batzaldu ta erailteko asmoa ařtu eben. ¿Zer zala-ta? Ara euren itzak: «Zer egiten dogu? gizon onek ba alatz asko egiten dauz. Olan lagatzen ba'dautsogu, gustiak Beragan ziñestuko dabe, eta Eřomatařak etořiko dira, ta geure uri ta lateři au zuzituko dabe.» Egia ezagutu ta ziñestu ez? ¿Zelan? Argiari begiak itxiten dautsozana baño itsu txařagorik eztagolako. ¡Josu maitearen Biotzeko samiña nok aztertu?

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 6'gn.; 13'gn.

*Amabostaruon gure goteřkijan jai osorik ezda. Igandietan kistař orok jaupa osua entzunbiař dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 2'gn. Barau-eguna.

4'gn. *Aratuzte* ta barau-eguna; Txabeř'tař Pantzeska Deunari bederatzuřeun eskařtsua asteko eguna; **Il̄ako lenengo ostirala.** *Il̄ako lenengo bederatzi ostiral jařaītubetan jaunařkua, biař dan eraz, ba-dagixu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.*

5'gn. Barau-eguna.

7'gn. Deun-Toma, autořlia, irakaslia.

8'gn. Deun-Beremunda, lekaipuruba, napařtařa.

9'gn. Barau-eguna; Miren Nekane Deunari bederatzuřeuna asteko eguna.

10'gn. Deun-Joseba, Miren Deunaren Ezkon garbijari bederatzuřeuna asteko eguna.

11'gn. *Aratuzte* ta barau-eguna.

12'gn. Barau-eguna.

* * *

## Epal̄a 3'gn.

Deun-Kunegunde, bakaldemia, neskutza

Sipirda ta Elige andiki andijaren alabea ixan zan Kunegunde Deuna. Gurasuak ardurea ařtuta, gastarotik ekandontsuba

# ONU BAT

*Gizon itzari baño geyago*
*egiñenari begitu;*
*gura ezpadok saŕi askotan*
*irutxurtuta gelditu.*

*Aŕautzak bere agertzen dozak*
*edeŕ antzagaz azalez,*
*euren baŕua euki aŕen be*
*saŕi beterik ustelez.*

GABIREL.

# AMES-ATZALBENA

Langiĺe batek, edari zaletxoa zan bera, bere emazteari ames auxe edestu eutson:

—Amesetan lau ařatoi uřeratuten izan yatazala ikusi dodaz: bat gizena, bi argal-argalak, ta laugařena itsua.

Senař-emazteok ařatoyetzaz ames egitea zořitxař ikuřtzat euken-ta, artega ebizen. Onetan bere aitaren edari zalekeriak ařatoyen amesak baño ardura geyago emoten eutson bere seme bizkořak, artegatasunok kendu eutsozan, esanaz:

Ames ořek zer esan gura daben bai'dakit.

Lenengo ařatoya, oř kale mutuřeko, zure irabaziakaz gizentzen dan ardao saltzaĺea da. Ařatoi argalak ama ta ni gara, ařatoi itsua zeu zara... Au esanaz azkenengo ařatoyen zařpada bilduřez iges egin eban.

GAMA.

Amabosteroko
— inguṙtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
166'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoṙnotza, Epaila 15'n.

# ASTE GURENA

Aste-gurena, ixenak berak dikuṙanez, asterik nagosijena deunena, gurenena da, ta kistaṙ orok, jaokan eraz, ospatu-biaṙ dogu. Iñoz, aste gustija jai oso-oso kistaṙak zaindu dabe, orain, ludi-zaletuagotuta, oṙenbesteko sugardun ezpagara be, al doguna, ta geruago geyago, aste au kistaṙ-zunduz betetako egin-biaṙ dogu. Jaunaṙtza - egin bako egunik ez yaku ixan biaṙ, jaupea entzun eta *gurutza deunaren bidia* iñardu bagakorik beintzat ez. Doibatzak, asko geyago, baraurik eztau agintzen, geyago be baña bai-dagikeguz, epel batzuk esaten dabena, agintzea bete ezkero norberan biaṙkuna beteta dogula, etxamonda; ba, ori lako esakunari begira egon ba - litz Josu - Kisto, gauṙ, Aste-gurenik ospatu ez eze, gure burubak gaizkatzeko eṙeztasunik be ez geban ixango, ta eṙez-baño-eṙezago gustijok gaiztokiratuko gintzazan. Iñartzen dozuna ba, matez iñardu egikezu, ta agintzea baño geyago be, poz-pozez, iñarduko dozu. Auṙtengo Astegurena ba, zuretzako, iñozko asterik deunena egikezu, egikun deunez asebeteta. Aste - gurenan baña, bi, beste egun gustijak baño gurenago, deunago, beraz, ospagaṙijago be bai-dira.

## Eguben-Guren eta Bariku-Guren

Eguben-gurenez, bere Ikaslakin Igaratz-Aparija janda gero, gure Beṙerosle Maṫalari-Maṫalarijak Oteuna asmau ta irasi eban: eskaṙak asmo ta iraskun oṙi, gauṙ, kistaṙok, gura dogunian, eta edonun, ogi-antzez estalduta bai, baña egiz ta donokijan lez bixirik, jakitzat aṙtu dagikegu. Berbera auṙke dogula, guṙtu dagikegu, ta, gura doguna eskatubaz, ikeṙtu ta itz - dagiketsogu. Eguben-Gurenez, Oteuna irasi-ostian, txonitz samuṙegija lakoxia eginda, Baratza Deunan, miñez baño maṫez geyago estututa, ixardi-laṙijak emonda, bere soñekuak eta luṙa odolez busti ebazan. ¿Eta Bariku-gurenez? Bai-dakixu.

Ana, Kaipa, Herodes ta Pilatus'anian, guzuṙ-zalakuntza, iṙi, baṙe, irañez asetuta, nekalez zigoṙtauta, iñoz gixonak bere buruba ikusi eztaun bestian ezetsita, luṙeko aṙa lez zapalduta, gustijuen alkia bezela iguingaṙitzat etsiṫa, samiña samiñen ganian zuṙutz-egin-biaṙ izan eban, goṙijak, Pilatus'anian batez-be, ikusi euzan. Auk eṙuge etsi eban aṙen, judaṙ - bilduṙaṙen, zigoṙtau egikiela agindu eban, eta, suminlarijak, agera lotuta, ankeṙen - ankeṙez,

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia 166'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Epaiḷa 15'n.

# ASTE GURENA

Aste-gurena, ixenak berak dikuŕanez, asterik nagosijena deunena, gurenena da, ta kistaŕ orok, jaokan eraz, ospatu-biaŕ dogu. Iñoz, aste gustija jai oso-oso kistaŕak zaindu dabe, orain, ludi-zaletuagotuta, oŕenbesteko sugardun ezpagara be, al doguna, ta geruago geyago, aste au kistaŕ-zunduz betetako egin-biaŕ dogu. Jaunaŕtza - egin bako egunik ez yaku ixan biaŕ, jaupea entzun eta *gurutza deunaren bidia* iñardu bagakorik beintzat ez. Doibatzak, asko geyago, baraurik eztau agintzen, geyago be baña bai-dagikeguz, epel batzuk esaten dabena, agintzea bete ezkero norberan biaŕkuna beteta dogula, etxamonda; ba, ori lako esakunari begira egon ba - litz Josu - Kisto, gauŕ, Aste-gurenik ospatu ez eze, gure burubak gaizkatzeko eŕeztasunik be ez geban ixango, ta eŕez-baño-eŕezago gustijok gaiztokiratuko gintzazan. Iñartzen dozuna ba, matez iñardu egikezu, ta agintzea baño geyago be, poz-pozez, iñarduko dozu. Auŕtengo Aste-gurena ba, zuretzako, iñozko asterik deunena egikezu, egikun deunez asebeteta. Aste - gurenan baña, bi, beste egun gustijak baño gurenago, deunago, beraz, ospagaŕijago be bai-dira.

## Eguben-Guren eta Bariku-Guren

Eguben-gurenez, bere Ikaslakin Igaratz-Aparija janda gero, gure Beŕerosle Maṭalari-Maṭalarijak Oteuna asmau ta irasi eban: eskaŕak asmo ta iraskun oŕi, gauŕ, kistaŕok, gura dogunian, eta edonun, ogi-antzez estalduta bai, baña egiz ta donokijan lez bixirik, jakitzat aŕtu dagikegu. Berbera auŕke dogula, guŕtu dagikegu, ta, gura doguna eskatubaz, ikeŕtu ta itz - dagiketsogu. Eguben-Gurenez, Oteuna irasi-ostian, txonitz samuŕegija lakoxia eginḍa, Baratza Deunan, miñez baño maŧez geyago estututa, ixardi-laŕijak emonda, bere soñekuak eta luŕa odolez busti ebazan. ¿Eta Bariku-gurenez? Bai-dakixu.

Ana, Kaipa, Herodes ta Pilatus'anian, guzuŕ-zalakuntza, iŕi, baŕe, irañez asetuta, nekalez zigoŕtauta, iñoz gixonak bere buruba ikusi eztaun bestian ezetsita, luŕeko aŕa lez zapalduta, gustijuen alkia bezela iguingaŕitzat etsiṭa, samiña samiñen ganian zuŕutz-egin-biaŕ izan eban, goŕijak, Pilatus'anian batez-be, ikusi euzan. Auk eŕuge etsi eban aŕen, judaŕ - bilduŕaŕen; zigoŕtau egikiela aginḍu eban, eta, suminlarijak, agera lotuta, ankeŕen - ankeŕez,

ezpa'litz, bere irabaziak, ugari ta yorienak izan aŕen be, zoŕ andi ori ordaintzeko lain ez ziran izango. Jesu-Kisto'ren, Getsemaniko otoitz onek atal bi daukaz: lenengo atalak bere gizatasuna; bigaŕenak, bere Jainkotasuna darakus. Ene Aita, al ba-da beintzat edontzi gaŕatz au nigandik aldendu bedi: ona emen, miñaŕtzen daun izatea, eriotzearen auŕean ikaratzen dan argaltasuna: ona emen gizona: baña bigaŕen atalean diño: Ene Aita, nire naya ez bedi egin, zeurea baño: ona emen nekerik izugaŕienen auŕean be, ikaratzen ez dan izatea; eriotzarik gaŕatzenaren auŕez, sendotasuna; ona emen Jaungoikoa.

* * *

Edonok aŕia jaurti daiken beste lez, Jauna bere ikaslakandik erauzi zala Luka deunak diñosku (Luc. XXII. 41.) Erauzi zala ¿zegaitik ete diño? Laztan doguzanak itxi-beaŕa yatoŕkunean, atsekabetu egiten gara: biotza ausi egiten yaku; biotz-zatiak galtzen doguzala dirudi ta ori jazoten yakun bakotxean, geure maiteakandik aldendu baño erauzi egiten gareala obeto esan daikegu. Onelan ba, Jauna bere ikaslakandik erauzi zala diñoskunean, oŕetarako Jaunak indaŕ-egin beaŕ izan ebala, atsekabez beterik aldendu zala adierazo nai dausku. Eta onegaz irakatsi nai dauskuna ¿zer ete-da? Eskaŕgaiztoz, dongakeriz geure biotzetatik alde-eragiten dautsagunean be, Jaun samuŕ eta laztantsu ori atsekabez joaten yakula adierazteko, itz ori berebizikoa da. Eta ikaslakandik pizka bat bakaŕik, edonok aŕia jaurti daiken beste baño uŕiñago ez zala aldendu diñoskunean ¿zer adierazo nai ete-dausku? Gaiztakeriz geure biotzetatik jaurtiten dogunean be, ainbeste maite gaituan Jaun ori uŕ gelditzen yakula, ta alegin pizka bategaz, baŕiro be eŕez beraganatu geintekezala; gu be Jaun oŕen ikaslak gara-ta, adierazo nai dauskuna orixe dala dirudi. ¡Samuŕ eta laztantsua ziñez, atsekabez baño gugandik alde-egiten ez daun Jaun ori! ¡Eŕukioŕ eta maitalea benetan, geure eŕuz alde-eragiten dautsagunean be, ain uŕean gelditzen yakun Jaun laztangaŕi ori!

Au saŕitan gomutau ta astiro auznaŕtu egizu. Gaiztakeriz Jaunari zeure biotzetik, alde-eragin ba'zeuntzo be, uŕean daukazula jakin egizu, ta belutu barik, besoak zabalik, aŕtuko zaituan Jaun oŕi pazkeskatu ta laztana emotera joan zakioz.

**Eguzkitza'taŕ J.**

# ZIGORTZEA

*«Tunc ergo Pilatus apprehendit Jesum et flagellavit»* (Jon, XIX-1)

Anas eta Kaiphas'etxean eriotzazko epai okeŕ ta gogoŕa aŕtu ondoren, Josu, epai au sendetsi beaŕ eban alde atako eŕomataŕ agintari Ponzio Pilato'gana eroan eben. Eta Josu eŕugabea zala ikusirik, galileataŕa zala entzun ebanean, ango jauŕlari Herodes gaiztoari igoŕi eutson. Gizon zantaŕ aren auŕean itzik be egin gura ezebalako, zorotzat aŕtu ta jantzi zuri bategaz, baŕiro Pilato'gana bialdu eban. Pilato'k Josu eŕuge zala ondo ekialako azkatu gura eban, eta bere eŕugetasuna bigaŕenez eta irugaŕenez autoŕtu eban baña, judataŕen bilduŕ zan, zigoŕtzen ezpaeban Kaisaŕ auŕean salatuko ebelata, bere aizkidetasuna galtzeko bilduŕez, gizon koldaŕ, txatxaŕ eta erdiz-erdizkoak oi dabena egin eban: Eŕuge zala jakin, ta *Josu aŕtu ta zigoŕtzeko agindu eban.* (Jon, XIX-1.)

«Eŕuge dala ondo dakit, baña zigoŕtu egin beaŕ da». Epai baltzagorik emon ete lei?

* * *

Eŕugetasun Berbera Jaungoikoa'ren Semea ba, zigortzera daroye. Ta ¡zelako zigoŕaz! Zigoŕtze lotsagaŕi, bilduŕgaŕi ta gogoŕenagaz! Lotsagaŕi ziñez, oñaze au, gizatxaŕ, jopu ta aberedentzakoa baño etzalako. Bein zigoŕtzen ebena betiko gerenpean (deshonra) jausten zan. Bilduŕgaŕi ta gogoŕa, artu beaŕ ziran oñaze zoŕotzakaitik. Aŕimeta bati lotu-lotu egin, ta biotz gabeko gizon indaŕtsuak, lexaŕ adaŕ, idizil ala ugel egaletan burdin, azuŕ ala eguŕ ataldunekaz gogoŕkiro astintzen eben. Judaŕen legez beŕogei zigoŕkada, eta eŕomataŕen arauz irurogetasei bakaŕik emon eikezan, eta au Kikeron'ek esaten eban lez eriotza erdi ba'zan; neuŕi au austen ebalarik, Pilato'k, Josu'ri ezaŕi eutson oñazea, ziñez zoŕotza ta bilduŕgaŕia ez ete zan izango?

Begira ba, Josu soñeko barik, aŕimeta baten zinzilizka lez lotuta. Bere inguru gizatzaŕ ankeŕak, zigoŕak eskuan, eta biotz baŕengo goŕoto ta amoŕua asetzeko pozez ¡Eta gustia aldabena izan aŕen, ixil-ixilik dago..!

Onetan bata besteen gañean bere gorputz gustira zigoŕkadak indaŕtsu jausten dira; gorputza andituz, odol batuz ta azkenez zauriz josi ta odolaz batean aragi atalak inguruetara zabaltzen diralarik, odol ituŕia luŕeraño eltzen dan bitartean, oñaze min, zoŕotza gogo baŕeneraño eltzen yakola, bere aotik urteten diran ayots leunak adirazten dabe. Eta zigoŕlari biotz gogoŕak eŕukitu beaŕean, otsoa bildots odolaz asetzen eztan lez, gure obenak kentzen dauskuzan Bildots Deun aonen odol eŕekea ikusirik, ankeŕago biurtzen dira. Azkenik euraen biotz amoŕua baño, besoak lenago nekatuta, lokaŕiak azkatzen dautsez, eta zutinik egon ezinik, uste izan geinke Josu luŕera erori zala.

Isaias iragaŕleak esan ebana egiztu da: *Non est species ei neque decor,* (Isai. LIII-14.) Begira, *gizon antz eta edeŕtasun barik,* zauriz eunduta; odolez jantzita; oñazez aulduta, ezetsita... gizonen zaŕpil... luŕeko aŕ bat lez ostikopetuta otzez dar-darka; bakaŕik... bere inguru ez dakusgu begi bat erukiz begiratzeko, ez eskurik laguntzeko ezta biotz bat eŕukituko danik... Orain non dira bere ikasleak? Non bere aizkideak? Berak eŕuki utsez osatutako gexoak non? Ogi-aŕañak ugaldu zituanean bakaldun autu gura eben gizostea non da? ¿Non? Aurtemin, Abaŕ igandez, ainbeste goratu eban gizostea non eskutau da? Eskaŕtxaŕen erpeetan jausi ete dira? Egi utsa da Kenpis'ek diñona: «*Josu'ri ogi zatitzeraño askok jaŕaitzen dautsoe; neke-ontziu edateraño gitxik*» (II'gn Idazt. XI atz.)

Ara or Jaungoikoa'ren Seme Eŕugea, ludi ontatik *on-egin ta gustiak osatuaz igaro zana,* (Act, X-33) *Attritus propter scelera nostra; geure obenakaitik eyota.* (Isai. LIII,)

* * *

Ludi onetako bizitz au gaiztakeri ta eŕugetasun arteko buŕuka baño eztalako, gaiztakeriak beaŕ ba'da ardi naŕuz estalduta bai'daki saŕitan eŕugabe da-

na, zigoŕtuten. Pilato'ren endakoak ugari bai ugari dira. «Au eŕugea dala argi dago; baña... zigoŕtu ezik, Kaisar eta andikien aizkidetasuna galdu ta agintaritza kenduko daust... zigortu daigun eta kitu...» Gaur egunean be, auŕez gertatzen dala ¿nok ez dakus? Eta txaŕena, zigoŕtzen daben eŕugea bakaŕ-bakaŕik zoritxaŕpean, bere alde iñor be urteten asaŕtzen eztala ikustea da.

Pilato'k lez eŕugea bazteŕtu ta zigoŕpetuten dabena, ziñez goŕotogaŕi da, baña eŕugea bakaŕik laga ta aldeztuten eztabena txalogaŕi ete da?

Zuzentasunaŕen jasarpean jausten diranak, zoruntzu dira... «(Matth, V-10.)

**Manterola taŕ Gabirel.** *jaup.*

# JOSU'REN IRUGAŔEN ITZA

*Mulier, ecce filius tuus. Ecce mater tua.* (D. Jon. 26 ta 27.)

Josu'k, ba, kurutze oñan egozala, ikusirik Ama ta ikaslari maŕe ebana, kurutzetik esan ebazan zaspi itzetik irugaŕena Bere Amari dirautso: *Andria, ara oŕ zeure semia*. Ta uŕengo ikasliari: *Ona emen zeure Ama*. Irakuŕlia: Zeure gogo-begijak jaŕi apuŕ bat, Josu'ren itz bigun auŕetan.....

Josu gixa gaizkaliak, Bere Ama adore Andidunari une neketzu, laŕi ta atsakabe astundun aretan, semetzat Bere ikasle Jon zindo, maŕatsu ta ona damotso. *Andria, ara oŕ zure semia*. Ta baŕiz, bere Amatzat Joni, Amarik deun, garbi, samuŕ, eŕukitsu ta obiena ixentatzen deutso. *Ona emen, zure Ama*. Josu'k, bi eredu, bi erakusgun emouskuzan Ama lako seme, ta seme lako Ama gixonoi itxirik.

*Andria, ara oŕ zure semia*. Ama neketzu Miren, ¿zeinbat seme daukazuz Jon lako seme zindo ta maŕasun zuzendunak emen ludijan? Zeuk bai-dakizu, Ama. Baña gixon batek esan leijan eskieŕtasunagaz, Zuk legez jakin baga, esan giñaike: uŕi be uŕi beralakuak zenbatuko dozuzala gaur ludi zabalan. Gure aldi ta egunak, Ama, boŕeru aldi ta egunak dirudije ta ez zure semienak. Josu'k ezeban autetsi Pilato edo Herodes antzekorik Zeure semetzat, Jon antzekuak baño. *Mulier, ecce filius tuus.*

¡Josu eŕukitsua! Kurutze oŕetatik ixentau egijozuz, Jon lako seme asko zeure Amari, euroen oben, eŕu ta gaizkinkeri gustijakaz goi-eskaŕez garbaiŕuta, bijotz oso, zindo, garbi ta onagaz kistaŕ gixon orok esan dayon; *Andra Miren: Ona emen, zeure semia*. Ta ¡ez aiztu Josu! zeure ikaslarijari lez gixonai esatia: Jon, nerau maŕe - nozun maŕasunagaz, Ama ori be maŕe-egizu, neure Ama lez, gaurtik gero, zeure Ama bardiñoro dalako ta neure maŕasun zuzen ta zintzuan edaten daben gixon gusti - gustien Ama be berauxe dalako. Kistaŕa: *Ona emen, zeure Ama.*

**Aŕupe'taŕ K. I.**

# GURE MAITASUNEZ

Untze gogoŕez gurutzalduta
eriotzaren eskuetan,
*Eŕugabea,* gure bizitza
Josu maitea da neketan.

Oron Egil̃e ta Ongil̃ea
ludi gustiko Jaun-Jabea,
lapuŕ artean, ¿zelan leiteke
gurutzaldurik agertzea?

Irain, lotsariz, zauriz eyota,
samin berbera ba'dirudi;
¿Jaungoiko batek ainbeste neke...?
¿Zelan leiteke izan ori?

¡Ziñez! Jauna da. Jainko Berbera,
gurutzan iltzeŕ dakusguna,
eguzki il̃un ta luŕ dardarak ba
didaŕez diñost: ¡Il da, Jauna!

Il da, bai, gure oben gustiak
ezereztuta, goi-zoruna
emoteaŕen. ¡Gugaitik il da!
gurutzalduta ¡MAITASUNA...!

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
167'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Joŕala 1'n.

## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Amaŕ legenaŕdun osatzen ditu

(Luk. XVII, 11-19)



ETA Jerosolym'era joyalarik, jazo zan, Samaria ta Galilea erditik igaro zala. Eta baseŕi batean sartzen zalarik, amaŕ usteridun bidera urten yakozan, eta geldituŕik uŕiñetik gaŕasi egin eben esanaz: Josu irakasleoi; gutzaz eŕuki. Eta berak ikusirik esan eutsen: Joan, eta jaupariei aurkeztu zayakeze. Eta joyazala garbi geratu zirala jazo zan. Euretariko batek garbi zegoala ikusirik, Jaungoikoa oyu andiz goresten ebala biurtu zan, eta bere oñetan eskeŕak egiten auspeztu zan; eta berau samaritaŕa zan.

Josu'k erantzuten esan eutson: Garbi geratu diranak, ¿Amaŕ ez ete dira? Eta bederatziak non dira? Biurtu ta Jaungoikoa'ri aintza emongo eutsonik etzan atzeŕitaŕ au izan ezik. Eta esan eutson: Jaiki zaitez; zoaz, zeure ziñesteak gaizkatu zaitu-ta.

* * *

Elazar'en berbizteak, parixetaŕak Josu'ri eutsoen amoŕuari gañez eragin eutson, eta bere bizitza ta egiaren argiari arpegi emon gura ezeutselako batzaŕ baten iltea erabagi eben. Eta ordutik zelan il asmetan ebizen. Baña Josu ondiño bere ordua eldu etzalako, Ephrem'aldera joan zan; Jerosolym'etik lau ordu ipaŕ-soŕkalderantz degon urira. Eta antxe bere ikasleakaz zegoan. Eta Pasko-jayak urbil zirala-ta, azkenengo aldiz Jorosolym'era joan zan ez baña zuzen, Samaria, Galilea ta Perea zeaŕ baño, gero Jordan ibaya igaro ta Jeriko'ra eldu zan, eta sei egun jayak auŕetik Bethania'ra uŕengo egunean andikiro Betfage'tik igaro ta andikiro Jerosolym'era sartzeko.

Ostera onetan, amaŕ legenaŕdun aurkeztu yakozan. Bat samaritaŕa ta enparauak galileataŕak ziran dirudienez, ba Galilea'ko eŕi baten saŕeran gertatu zan eta abitzak diño eŕi au Ginea, orain Dschennin deritxon tokia izan zala. Galileataŕ eta samaritaŕak alkaŕen etsai gogoŕak izaten ziran baña legenaŕdun eŕukaŕiok zoritxaŕ bakaŕak-edo

alkaŕtu zitu̅an. Euron zoritxaŕa gustiz bilduŕgaŕia zan, beste alatz baten azaldu gendun lez, euren gorputzeko samintasunak ikaragaŕiak izan oi ziralako, gogo -laŕitasunak azaldu eziñak, eta oŕez gañera eŕi ta senditik jaurtita, iñogana uŕeratzeke jantzi bereziaz ibili beaŕ izaten ebelako (1) Legenaŕdunak (lepra), bizirik usteltzen dan gorputz ila dirudi.

Eŕukaŕiok Josu inguru atan ebilela bai' ekien edo ta, Josu agertu zaneko gaŕasika asi ziran, uŕiñetik ziñotsoela: Josu irakasleoi gutzaz eŕuki! Josu-Kisto, gurari ta uste biziaz eskari au egiten ebelako, ikusi ebazaneko eŕukitu ta esan eutsen: «Joan eta jaupariei aurkeztu zakieze.» Mois'en legez eŕitaŕakaz aŕtu-emonik eukiko ba' eban gexotik azke zala adirazteko, jaupariakana aurkeztu ta auxe egin beaŕ izaten eben: uritik at txori bat il, bere odolagaz nastautako uretara beste txori bat saŕtu ta bereala azketzen eben. Onez geñera legenaŕdunak arkume bat eskintzen eban, eta jaupariak arkume aonen odol eta orioaz nastauta igortzi ta garbi zala iragarten eutson. (Lev. XIV-1). Josu'k onetarakoxe bialdu ebazan, eta eurak ondiño osatzeke esana egiten joyazala, bidean garbi-garbi garatu ziran. Samaritaŕak bere burua osatuta ikusirik, pozaŕen eskeŕak egiteko Josu-kisto'gana biurtu zan, eta Jaungoikoa oyu andiz goraltzen oñetan auspeztu yakonean, Josu'k esan eutson: «Osatu diranak amaŕ ez ete dira? Bederatziak non dira?» Bat biurtu ta berau atzeŕitaŕa eskaŕ oneko agertu zan bakaŕa. Eta Josu'k esan eutson: «Jaiki zaitez, zoaz, zeure ziñesteak gaizkatu zaitu-ta.»

* * *

Kistaŕ maite: Josu-Kisto'k ikuturik egin barik, bidean joyazala, osatu ebazan amaŕ legenaŕdunetatik eskeŕak egiten bat bakaŕa ta berau atzeŕitaŕa biurtu zan, zoritxaŕak alkaŕtu zitu̅anak, saŕi jazo oi dan lez zorionak banandu zitu̅an. Galileataŕak eskaŕ-txaŕez, aŕokeriz ala jauparien bilduŕez, eskeŕak egiten etziralako biuŕtu, Josu'ren Biotz ongilea samindu eben bere itaunak agertzen dauskunez, baita be, euraen burua eskaŕ-txaŕ iguingaŕiz baltzitu, eta ori, judaŕak ziranez, besteak baño laguntza geyago aŕtu ta Jaungoikoa'ren azaguera geyago eukela. Eta au, zenbat bider gertatzen ete da! Ziñesgeen eŕietan kistaŕ egiteko zoriona euki dabenak, ¡gure artean egunoro beaŕ ba'da Jaunaŕtzen dogunok baño eskaŕ obekoak zenbat eta zenbat ete dira! Eskaŕ-txaŕa goŕotau eta Jaunagaz batez bere eskaŕ oneko izan gaitezan; eskar-onak Jauna'ren ondasuntegiko ateak idigiten dauskuzan lez, eskeŕ-txaŕa ate au itxiten daben giltza da-ta.

GABIREL.

(1) Jaungoiko Zale. 140'gn. zenbakia. 1920'ko Otsala.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 3'gn.; 10'gn.

*Amabostaruon gure goteŕkijan jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun -biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 1'gn. **Ileko lenengo ostirala.** *Ilako lenengo bederatzi ostiral jaŕaitubetan jaunaŕkuna, biaŕ dan eraz, ba-dagixu—Josu -Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.*

13'gn. Joseba Deuna, Miren Deunaren Ezkon garbija ta Doibatzaren Zaindarijaren Jaiburua.

*Gauŕ asteguna dalako, jai au agirijan datoŕken igandian ospatu dagike:* ospatzen daben txadonetan, jaupa gustijak, bat ez bestiak beintzat, igandekuaren ordez, Deun-Joseba'ren Jaiburukuak dagikez.

Amabosteroko
— inguŕlija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
168'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Joŕala 15'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Jeriko ondoko itsuak.

(Mark X-46; (Luk. XVIII, Matth, XX)

ETA Jeriko'ra eldu ziran. Eta berak, eta bere ikasle ta gizoste andiaz Jeriko'tik urtetzen ebalarik, Timeo'n seme Bartimeo itsua bide ertzean eske zegoan. Entzun ebanean ba, Josu Nazareth'aŕa zala zetoŕena, oyuka asi zan esaten: ¡Josu Dabi'ren semeoi, eŕuki nitzaz! Eta askok ixiltxeko agiraka egiten eutsoen. Berak baña geyago gaŕazi egiten eban: Dabi'ren semeoi, nitzaz eŕuki! Josu'k gelditurik deituteko agindu eban eta esan eutsoen: Tira; poztu zaitzez deyez daukozu ta. Eta berak estalkia jaurtirik, bapatean zutinduta Beragana eldu zan. Josu'k esan eutson: Zer gura dozu egin dagitzudan? Itsuak erantzun eutson: Irakasleoi, ikusi eragidazula. Eta Josu'k: Zoaz, zeure ziñesteak gaizkatu zaitu-ta. Eta bapatez ikusi eban eta bidean jaŕaitzen eutson.»

* * *

Amaŕ legenaŕdunak osatuta, Josu, parixetaŕen itaun batzuei erantzun, epaikari okeŕaren eta parixetaŕ eta zergalariaren ipuin-irudi edeŕak azaldu, ta Jordan deritxon ibai zeaŕ Judea'ratu zan. Baŕiro be, gizoste andiak jaŕaitu eutson, eta Berak oi eban lez irakatsi ta gexoak osatu zituan. Aldi onetan Josu'k agertu eban umeai eutsen maitasuna. Amak ekaŕita eta ikusguraz ume asko bere inguru bildu ziran. Eta oi dana, euraen zalaparta ta umekeriakaitik-edo, ikasleak, Josu'ren onespena aŕtzen etorzanak uxatzen asi ziran. Josu'k au ezeban onetsi ta deituta ikasleai esan eutsen «Itxi umetxoai Nigana eltzen» eta besaŕtetu ta eskuak ezaŕiaz onesten zituan.

Bidez joyala gaste aberats baten itaunari erantzuten, aberastasunen aŕiskuak adirazi zituan; masti langiĺeen ipuña azaldu; bere Nekaldi gogoŕa iragaŕi; eta Jakoba ta Jon deunaren amari areintzat eskatzen ebana ezin zeinkiala emon erantzun; eta alatz au egin eban uri polit eta aldi atako txukunenera uŕeratu zan. Jeriko zan uri au. Jordan ibaitik ordu bi baŕu, ta sei bat Jerosolym baño lenago auŕkitzen zan uri edeŕ au, baratz edeŕez apaindurik, zugatz eta lora usaintsuz beterik, jolastoki ta jauregi edeŕe-

natarikoak bafuan zituala tokirik eskutuenean irureun metro itxas-ertza baño berago.

Orain, zugatz adafez estaldutako txozna batzuk baño ez ei dira agiri.

Alatz bakafa ala bikotxa ete da? Luka deunak bat izan zala diño, Marka deunak be'bai, ta bere izena Bartimeo. Matthai deunak ostera itsuak bi izan zirala diño.

Urian saferan ala urteeran izan ete zan? Ori be, eskier ezin geinke esan. Marka ta Matthai deunak urteeran diñoe ta Luka deunak ostera saferan. Dirudienez ba, alatzok bi izan ziran, eta Matthai deunak batera edestuten dituala esan geinke. Edo ta baleiteke, Jeriko uriak atal zafa ta bafia, oraingo uri andietan gertatzen dan lez, eukitea eta orduan alatza bakafa izan afen, batak uritik urtetzean, eta bestea urian sartzean gertatu zala esanaz, biak gauza bat adirazten emotea. Efi bi ba, mugaide diranean batetik urtetzean bestean sartzen da.

Dana dala, Jeriko'tik Jerosolym'era joyan bidea egun aretan gizostez beterik aurkitzen zan. Igaratz edo Pasko jayak igaroten joyazan. Eta, oi dan lez, bide ertzak eskekoz beterik egozan, eta euron artean gure itsuok be.

Onetan sufumufu anditxoa somau eben eta, zer ete zan itandu eben. Josu Nazarethafa zetofela erantzun eutsien. Orduan eurentzat esan beaf izan eben: Iñoz ez, ala ointxe osatu geintekez. Eta uste osoz deadafka asi ziran: «¡Josu, Dabi'ren semeoi; nitzaz efuki!» Gizosteko batzuk ixiltzeko agiraka asi yakezan, baña eurak deadaf andiagoak egiten ebezan: «Josu, Dabi'ren semeoi; nitzaz efuki» Josu gelditu zan, eta etofteko agindu eutsen. Eurak eta batez bere Bartimeo, bapatean jaiki, estalkia jaurti ta Josu'ganatu ziran. Eta Josu'k esan eutsen: «Zer nai dozue nik egitea?»--Esan eutsoen—«Ikusi eragitea.» Josu'k efukiturik begietan ikututa esan eutsen: «Tira, zeuen ziñesteak gaizkatu zaitue.»

Eta bapatean ikusi eben, eta bidean jafaitu eutsoen. Alatz onetan, Jainkoa'ren altasunak dis-dis-argi dagiala gogoz itsu eztan edonork ikusi leike. Itz bategaz itsuak argitzea gizonarentzat gauza eziña dala; nok ez dakus ba?

* * *

Kistaf maite: Benetako gizatasun eta zintzotasunaren ezaupiderik onena, iñoren esames eta bafiketa bidegabekoak aintzat ez aftzea dala uste dot. Bide zuzen-zeaf doyala jakin, eta esamesen bilduf̄ez atzeramorko egiten dabenak, adimen ilun eta biotz argaldun *gizontxoak* baño ez dira. Eta begirakada baten gizon egiñak dirudienen artean be, ¡amaika onelako baztefetan bai'dakusgu!

Egi ta zuzentasun aldez deadaf dagigunean ba, ixiltzeko agiraka norbait yatorkunean, itsu zintso oneik erakusten dauskue zer egin: Len baño deadaf geyago egin, eta Jauna'ren laguntzaz aufera jafaitu, eta euraen antzera garailari izango gara.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 17'gn.; Egubaztenian asteguna zalako, Joseba Deunaren Jaiburua gauf ospatu dagike ta dotolki ainbat jauretxetan gauf ospatu be egingo dabe. ¿Zuk Joseba-Deuna gorestéko, dautsazun matasuna agiri jafteko, lengo egubaztenfan zer egin zeban?—¿Gauf zer dagikezu?—Urteko egubaztenetan eta ileko emeretzigafenetan zer egiteko ustia dozu? —24'gn.

# ¡AU NASTEA...!

Gaur mutikoak
gizon dirudi,
gizonak baŕiz
mutiko,
¿nok ez dakus ba,
gizontxo tayuz,
izanik amaŕ
urteko?

Beŕogei urte
lepoan eta
sentzuna baŕiz
auzoan,
amaika ba'da
gizon umetan,
kale naiz *kape*
txokoan.

*Tabako* pizkat
eztabelako,
itun betozko
il̃una,
ludi zoruna
galdu ba'leu lez
¿nok ez dazau gaur
gizona?

Auxe dala-ta
saŕi yat niri
oldoskun auxe
etoŕi:
Umeak gizon?
Gizonak ume..?
Nok nori, nor dan
igaŕi...?

Lendik eztaunak
gogaldu nozpait
ludi ontako
nastea,
beste barik be
jakin lei dala
zabal dan zoro
-etxea.

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
169'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Oŕila 1'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Gaiztetsitako iko-zugatza igertzea

(Matth, XXI-18; Mark, XI-22)

ETA beste egun batez, Bethania'tik urira goizetik biurtzen zalarik, gose zan. Eta uŕiñetik, bide ondoan oŕitutako iko-zugatza ikusi ebala, uŕeratu yakon zerbait idoroko eutsolakoan. Eta eldurik oŕiak baño besterik ezeutson idoro. Iko aldia etzan ba. Eta erantzuten esan eutson: «Iñok geyago ire igalirik, iñoz be ez al yok jango» Eta bere ikasleak entzuten eutsoen. Eta iko-zugatza bapatez igeŕtu zan.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Eta uŕengo goizean igaroten ziralarik, ikasleak zugatza zusteŕeraño igertu zala oaŕtu eben. Eta Kepa'k gertatu zanaz oroiturik esan eutson: «Irakaslaoi, ara zuk gaiztetsi zendun iko zugatza zelan igertu zan. Eta ikasleak ikusita aŕiturik esaten eben: ¿Une baten zelan igertu ete da? Eta Josu'k erantzuten esan eutsen: Jaungoikoa'gan ziñetsi eikezue. Ziñez diñotzuet, ziñestea ba'dozue, ta zalantzaka ezpa-zabiltze, ikoena bakaŕik eztozue egingo baita be mendi oŕeri esango ba'leutsezue: «Ken ortik, itxasoan amildu adi» alantxe egingo dau.

* * *

Josu bere nekaldia baño sei egun lenago Bethania'ra eldu zan. Bitartean parixetaŕak bere biła urduri ebizen, eta iñok ikusten ba'eban salatzeko agindu eben. Josu baña aren bilduŕ etzan. Egun bi baŕu Jerosolim'eratu zan. Jakin ebenean, gizozte andiak bidera urten eutson, soñekoak eta ostoak bere bidean ipinten eutsoezan, eta zugatz adaŕak eskuetan ebezela Jauna'ren izenean zetoŕena goraltzen eben. Gizaŕteko asko Pasko jayak igaroteko eldutakoak ziran, ta beste asko Lazaro beŕpiztua ikusteko etoŕi ziranak.

Parixetaŕak artegatu ziran, eta euren alegiñak alpeŕekoak zirala ikusirik, Josu'gana

uferatu ziran, ikasle ta gizosteari ixildu eragiteko. ¡Lotsabakoak ziran gero..!

Josu'k bafiz erantzun eutsen: «Oneik ixiltzen ba'dira afiak be oyu egingo dabe» Eta urira uferatu zanean, bere eskaf-txafaren ordañez aftu beaf eban zigofaz gogoratuta, uriatzaz efukiturik negaf egin eban, eta bertara safturik aufkeztu yakozan itsu ta efenak osatu zituan.

Gero Galilea aldeko ziñesge batzuk ikertu eben eta itz-egiten zegoala, goitiko itz-oneik entzun ziran: «Aintzaldu dot, ta bafiro aintzalduko dot.» Entzuleak afitu ziran eta Josu'k itz oneik azaldu ondoren, amabi ikasleakaz Bethania'ra biurtu zan. Ufengo goizian Bethania'tik biurtzen zalarik, Josu gose zan. Gose au, gorputzekoa izan zeitekean, beaf bada aufegunetik ezer aftzeke baraurik urtengo eban eta. Baña gose au, dirudienez Ixafel'go efia ta gizadi gustia gaizkatzeko eukon gosearen irudia zan. Epala'ko azken egunak edo ziran. Ikoak Bagilatik Dagonilerantza elduten ziran. Iko aldia ondiño etzan ba. Josu'k ba, arakatu eban eta ofiak bai ugari baña alerik ezeutson aurkitu. Eta Josu'k alan da be, gaiztetsi eban: «Iñok, iñoz be ire igalirik ez al yok jango» esanaz. Eta zugatza bapatean igertu zan. Josu-Kisto'k iko-aldia etzala ta alerik etzeukala ondo ekian, zer dala-ta ba, zugatz au gaiztetsi? Zugatz au basa - ikoa edo zan, iko onari ba ostoak baño lenago aleak agertzen yakoz. Iko au bide ondoan igaliz betetakoen antzera osto ugariz apainduta agertzen zan afen, igalirik (fruturik) iñon ezeban agiri. Ta berberau zan Ixafel-efiaz gertatzen zana. Jaungoikoa'ren efuki ta eskafezko bide ertzean ardurarik andienaz zaindua izan afen, bere ontasuna, iko ofiaren antzeko zan, azalekoa; arakatu ezkero bafiz ontasun alerik ez, ta alan da gusti be, afokeriz beterik bere ontasun jantziagaz naiko ebala uste izaten eban. Josu'k ba, bafuko ontasunaren zale-zale izanik, ez eban gaiztetsiko?

Astearte - guren goizean, bafiro bide aretatik ikasleakaz igaroten zala, oneik zugatza zustafetik igertuta ikusi ebenean, afitu ziran, eta afitzekoa zan izan be! Arelako zugatzak gafitik mostuten diranean, zuku gitxi beaf dabelako, igertzeko aldi asko igaro daroe, eta a, bafiz, Josu'k esandako itz bategaz gustiz igertuta ikusirik Kepa'k esan eutson: Irakasleoi; ara zuk gaiztetsitako iko-zugatza, zelan igertu zan. Jauna'k baña alatz au azaldu barik, ereti au Jaungoikoa'gaz euki beaf dogun uste bizia azaltzeko aukeratu eban.

—Itz bategaz zugatz mardula igertzen dabena, ziñez bere biziaren jabe dala esan geinke, eta zugatzai bizia damotsena, Jaungoiko Ber-bera ez ete da?

* * *

Kistaf maite. Geure gogoarentzat sentzunak, etxe bafuan dagoanentzat leyoak lez dira, ta geyenez gauzai azaletik baño eztautsogu begiratzen, eta auxe dala-ta safitan atzipetuta bizi gara. Begirakada baten gauza andi, edef eta saratatsua izan ezkero, mutikoen antzera poztu ta efezegi jafaitzen dautsegu ta gero ondo aztertu ta arakatuaz, ofiak bai ugari, baña ikorik aurkitzen eztogulako or gabiltz ludi aonetzaz iguindurik. Josu'k baña erakusten dausku zer egin. Zugatza ezagututeko igaliai begiratu, azalari baño mamiñari geyago, sarateari baño onurari, sarata askok on gitxi, ta gauza onak sarata gitxi egin oi dauz-eta.

GAMA.

# ZERGAITIK?

*—¿Zergaitik emakume*
*baño gizonetan,*
*geyo aurkitzen dira*
*non nai espetxetan?*

*Auxe galdeturik bein*
*epail̄e zaŕ bati,*
*berak erantzun eban*
*zuŕkiro bertati:*

*—Gizonezko geyago*
*zelan espetxetan?*
*Emakume geyago*
*dabiltz txadonetan.—*

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko - Zale

X Urtia
170'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ — 1921 — Zoŕnotza, Oŕila 15'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Josu-Kisto irugarren egunean illen artetik biztuten da

(Matth, XXVI-1; Mark, XVI-1; Luk, XXIV-1; Jon, XX-1)

TOKI onetan azaldu dituguzan alatz gustien artean, edeŕ, gaŕantzitsu ta gurenena, gaurtik azalduko doguna da. Josu-Kisto'ren Berbizte gelgaŕia.Beroni dagokio ta, besteak baño, zerzelada geyagoz ta sakonkiago aztertuko dogu, bere gaŕantzia, edestia, egia, ta etsayak ipinten dabezan akatzak banan-banan erantzun eta azalduaz.

#### Josu-Kisto'ren Berpizteaŕen gaŕantzia.

Josu - Kisto'ren berpiztea, geure ziñeskintzako atal-artean, etxe batentzat eustazpiak daukon gaŕantzia (importantzia) dau. «Kisto berbiztu ezpazan, Paul deunak diñonez, gure ziñestea utsa da; gure jarduna alpeŕekoa» (I ad Korint XV - 14). Kisto beŕbiztu ezpazan ba, agur gure itxaropen gustiak! Ostera, Kisto berbiztu ba -zan, betoz etsayak, itxasoak ur tantatan aña bildu bitez, euraen alegin gustiak itxaso basteŕetako arkaitzetan uiñak (olatuak) burua ausi ta biŕinduta gelditzen diran lez, Kisto'ren etsai gustiak bere beŕbizteko arkaitz gogoŕ onetan buruak apuŕtuta geldituko dira.

Onetzaz gañera, alatz gustiak be bai, baña au batez be edonork begiz yo leikena da, ta ezjakiña izan aŕen, egizale ta biotz zintzodun danak, bere edeŕtasun, gurentasun eta indaŕa uleŕtu daike. Eta izan be, Josu-Kisto iĺen artetik Berak iragaŕi eban lez beŕbiztu ba'da, Bere irakaskintza gustien Jaungoikotasunak be, eguzkiak lez argi dagi; egia eztanaren aldez ba, Jaungoikoak bere ontasun, jakituri ta altasuna ipini leikela nori bururatu be ete leikio? Josu-Kisto gure Jaunak, Bere berbizte au iragaŕi ebanean, bere Jaungoikotasunaren agerbide edeŕena lez iragaŕteak, ez gaitu aŕitu beaŕ ba.

Josu-Kisto'ren etsayak eurak be, berbiztearen gaŕantzia ondo ezautzen ebelako, alatz aoneri otso amoŕatuak lez, aginka egiteko yaŕki yakoz. Bere ikasleai iñor atzipetuteko bide gustiak itxiteaŕen, bere iĺobi inguruan gudari zaintzaĺeak ipiñi ebezan, eta au, euraentzat egi-bide izan ba zan be, Eleizaren etsai gustiak, al eben dana, egin izan

dabe egi aundi au ezereztuteko. Baña alpeŕ-alpeŕik! Galtzairuari aginka diarduana agin barik gelditzeak, aren gogoŕtasuna agertzen daben lez, alatz andi aoneri aginka egin gura izan dautsen gustiak, euraen burua loŕinduta urtetzeak, alatz aonen sendotasuna adirazten dau. Alatz au ba, gure ziñeskintzaren eustazpi dala esan daikegu. Josu-Kisto egiz beŕbiztu zala, zertzelada gustiakaz, azaldu daigun ba, ta bere argitasuna ikusten eztabena ziñez argiari begiak itxiten dautsozana dala esan al izango dogu.

**Edestia.**

Josu-Kisto'k, gure maitasunaŕen, bariku guren aŕatsaldeko iruretan bere azken arnasa emon ebanean, gudariak oi eben lez gurutzalduai, anka-azuŕak apuŕtzeko joan ziran.

Lapuŕei ausi ondoren Josu gustiz ilda ikusi ebelarik, ezeutsoen ankarik apuŕtu, baña gudari batek burdin gogoŕaz bere bulaŕa zauritu eutson, eta zauritik odol-ura agertu zan (Jon, XIX). Il̄untzerantza, Arimatea'taŕ Joseba gizon argiak, Pilatos'eri Josu'ren gorpua eskatu eutson.

Pilatos'ek eunburuaren aoz (centurión) Josu benetan il zala jakin ebanean bayetza emon eutson. Joseba'k, Nikodemus lagun ebala, Josu gurutzetik jatsi, igorzkiz usaindu ta oi eben lez izara ta zapietan bilduta, bere il̄obi baŕi baten ipiñi eban. Aitz-zuloa zan eta saŕerea aŕi biribil̄ bategaz itxi ta aldendu ziran.

Aŕatzalde atan bertan il̄unabaŕerantz, jaupari nagosi ta parixetaŕak Pilatos'eri esan eutsoen: Ontxe gogoratu gara jauna, atzipetzal̄eak oraindik bizi zala esan ebanaz: Iru egun baŕu beŕbiztuko naz. Iruga ŕenegunerarte ba, il̄obia zaintzeko agindu egizu; ba'leiteke ba, bere ikasleak gorpua ostu ta gero eŕiari il̄en artetik biztu dala esatea, eta atzepetze edo okeŕ au lengoa baño andiagoa izango litzake. Pilatos'ek erantzun eutsen; il̄obia zaintzea euraen eskuetan laga eban, eta oŕetarako aŕia ikuŕatz edo *sel̄uaz* jo ta gudariak inguruan ipiñi ebezan. (Matth. XXVII-63).

*(Daŕaike)*

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 15'gn.; Goteuna - Etoŕkundia Deun-Ixidor, lugiña: 22'gn.; Irukoitz Deunaren Jayeguna; 29'gn.

JAI OSUAK: 26. Kistoren Gorputza-Gomutaldija.

*Amabostaruon gure goteŕkijan beste jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun -biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu*

EGUN IXENDABAK· 16'gn. Goteuna - Etoŕkunde bigaŕen eguna, jai osotzat zaintzen doguna.

17'gn. Goteuna - Etoŕkunde irugaŕen eguna, jai erditzat zaintzen doguna.

18'gn. Lauren-aldija.

20' Lauren-aldija:- *aratuzte* - aragija izteko eguna—barau eguna ez baña.

21'gn. Lauren-aldija.

24'gn. Deun - Ane, Miren - Deunaren ameari bederatzi astartiak asteko eguna. Jaunaŕtza ta gusti ba-dagixuz, bakotxeko nekazka osua irabaziko dozu.

30'gn. Deun-Perdiñanda, bakalduna, autoŕlia, jai erditzat zaintzen doguna.

* * *

## Oril̄a 22'gn.

Deun-Jule, neskutza, ziñopea

Kenserika Vandaluen bakaldunak 439 gaŕen urtian Kartago gogoŕez beragandurik bertako jauntxu ixaten sostoŕ ixan

# Iñaki Deunaren zauritzea

Ořila onetan betetzen dira laureun urte Loyola'tař Iñaki euskotař gudari adoretsua Jauna'k bere gudaritzat autu ebala. 1521' gn. pantzetařak Iruña esitu ta gudaroste andiaz bertan sařtzen zirala, uri au aldezten eban gastelua be eurekandu gura eben. Aldeztuten eben gudariak, etsayak geroago ta gogořago ekiten eutsola, ta iñondik laguntza ezin zekiala itxaron ikusirik etsayen eskuetan lagatzea erabagi eben. Erabagi onen aurka bat bakařik jaiki zan, Iñaki gudari bulařdetsua. Il nai bizi jokatu beař zala-ta, burua aintza amesez beterik, ta biotza adorez gañeska ebala, bere inguruko gustiak sutu ta adoretu zituan. Gudaketarik gogořenean baña, supinkada batek zauritu ta luřeratzen dau, eta beronegaz batean gastelua be, etsayen eskuetan jausi zan. ¡Zauritze zorionekoa ziñez, berau zala bide gaur deun andienen artean geure anai au zenbatu geinkelako!



* * *

Loyola'ko bere jauregira ekaři ta osakuntzaldiko egun gogaikařietan astia emon, eta baita bere etořkizunatzazko oldoskun itunak jaurtiteařen, berak eskatzen eban ipuin idazkirik etxean ezta, Josu-Kisto ta Deunen bizitzak emoten dautsez. Baña apuř bat zaletzen asi zanean, bere biotz bařuan, zauritu ebenean baño buřuka andiagoa somatzen dau. Deunen ikasbideak, euren girnak menperatu, ta egia ta Jainko maitasuna zabaltzeko egin beař izan dituezan gudaketa gogořak bere biotz zabal-andia poztuten dabe, ta bere buruari itanduten dautso: «Eta oneik egin ebena neronek ez ete neike egin?»

Bai.—«Baña, orduan nire amesak zertan geratzen dira?.. ¿Nire aintza?.. Nire etořkizuna?.. ta biotzeko andikeri egařiaz... zer?»

Eztaki zer erabagi, buŕuka gogoŕa darabil bere biotzak eta gudari euskotaŕa oldostun geratzen da...

Bitartean Jaungoikoa'ren eskaŕa, intza lez ixil-ixilik baña ugari, bere biotzera jasten da. Eta goiko argiaz ludi onetako ospe, aintza, ta andikeri gustia utsa dala ezaguturik bere biotza poztuten da, ta betiko zorunduko daben erabagi goragaŕia artuko dau. «Gudari» izango da, baña Kisto'ren gudari. «Aintza» biĺatuko dau, baña Jaungoikoa'rena bakaŕik. «Gudari» asaŕtu ta bulaŕdetsu aonen ikuŕitza (lema) auxe izango da: «Jaungoikoa'ren Aintza geyagorako.» Auŕerantzean bere asmo itz, eta egite gustiak onetarakoxe izango dira.

* * *

Irakurte on baten bidez, gure Anaya ta Euskotaŕon Zaindaria, Jaungoikoak Beraganatu eban ezkero, euskaldunen artean euskerazko irakurgai onak zabaltzeko erabagia daukogun gustiok be, geure Zaindaritzat aŕtu beaŕ genduke. Aŕen dagiyogun geure saiĺ onetan lagun daiskula.

*Iñaki deuna, euskal irakuŕgai onen aldez Goiko Jaunari otoi.*

M'tar. G.

# EUSKOTAŔ DEUNAK

Oraintsu «Euzkadi» egunoroko izpaŕingijan B.'taŕ P.'k altaretan dagozan euskotaŕ Deunak zenbat eta nortzuk diran itaunduta, beriala idazle askaŕak, geure bazkidiak geyenak (gustijak ezpadira gero), erantzun eben bakotxak ekijezan deun-izenak agertuten, gustijen artian eŕeskada edeŕa egiten ebela.

¡Lotsagaŕija da, idazle oŕeitatik batek iñoan lez, orain arte euskaldunok geure odoleko Deunen izenen laurenak be ez jakitia! Ta lotsari au geure artetik kendutiaŕen, aspalditik alegindu gara gu geure deunen izenak eta bizizpaŕak bilduten. 1918'ko Urtaŕiĺa 15'gaŕeneko zenbakijan «Eusko-Deun-Ixendegija» argitaldu gendun, amazortzi izenegaz. Aŕezkero beste batzuk aurkitu doguz eta ez gara geldituko lan au osoz eta al dan ondoen amaitu arte, geure bazkide ta beste euskaldun orok laguntzen ba-dauskue.

Oŕetarako emen daminguz orain arte aurkitu doguzan deun-izenak; eta euskaldun oroi eskatzen dautsegu

1.° Euron bizitz-edestija, luzia nai labuŕa, bialdu daiskuela.

2.ⁿ Onez ganera ezagutzen dabezan euskotaŕ deunen izen eta edestijak be bialdu daiskuezala.

3.ª Euron argazkirik, edo euron omenez iragitako ondi edo txadonen argazkirik ba-daukie, bialdu daiskuela.

Aolan gustijoen artian geyak batuta, norbaitek geure Deunen edestija idatziko

dau, ta Jaungoiko-Zale'k idazti eder bat geyago argitaldiko dau kistaŕ - euskaldunen onerako. Gai onek bialtzen dauskuezan gustijei sari bana emongo yake ta sarija irabazteko asko izango da izpar labuŕ bat bialtzia.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1. | Urtaŕil̄a | 22 | Bingen deuna, ziñopea. | Bizkaitaŕa odolez. |
| 2. | Otsal̄a | 2 | Adabalda » | Laburditaŕa odolez. |
| 3. | » | 5 | Martin » | Gipuzkoaŕa. |
| 4. | » | 6 | Mauronda, lekaipurua. | Laburditaŕa |
| 5. | Epal̄a | 8 | Beremunda lekaidea. | Napartaŕa. |
| 6. | » | 16 | Eusebe neskutsa. | Laburditaŕa. |
| 7. | Joŕal̄a | 17 | Maria Ana Jesusena. | Napartaŕa odolez. |
| 8. | » | 28 | Purdentzi, gotzaña. | Arabaŕa. |
| 9. | Oŕil̄a | 5 | Adamanda » | Laburditaŕa. |
| 10. | » | 12 | Kaltzada'tar Domeka. irasl. | Arabaŕa |
| 11. | » | » | Eŕiturde, alarguna. | Laburditaŕa. |
| 12. | Bagil̄a | 12 | Bitor, Lugiña, autorlia. | Arabaŕa. |
| 13. | » | 13 | Andoni, » | Bizkaitaŕa odolez. |
| 14. | » | 21 | Orose, neskutsa. | Laburditaŕa. |
| 15. | » | 26 | Prosper, | Eusko Akitaniataŕa |
| 16. | » | 30 | Koltsende, neskutsa | Laburditaŕa |
| 17. | Garil̄a | 1 | Simeon, lugiña. | Napartaŕa. |
| 18. | » | 4 | Balendin zorund. ziñopea. | Bizkaitaŕa. |
| 19. | » | 7 | Pirmin, » | Napartaŕa. |
| 20. | » | 15 | Mayorga'taŕ Jon. » | Benapartaŕa. |
| 21. | » | 31 | Iñaki, Iraslea. | Gipuzkoaŕa. |
| 22. | Iral̄a | 1 | Bingen, gotzaña-ziñopea. | Laburditaŕa odolez |
| 23. | » | 12 | Toma zorund. » | Arabaŕa. |
| 24. | » | 19 | Grat, gotzaña | Zuberotaŕa |
| 25. | » | 19 | Albontsa zorund. autorl. | Bizkaitaŕa odolez. |
| 26. | Uŕil̄a | 30 | Babil, gotzaña ta ziñopea | Napartaŕa. |
| 27. | Lotazil̄a | 3 | Xabier'taŕ Pantzeska, autorlia. | » |
| 28. | » | 24 | Delfin, gotzaña. | » |
| 29. | » | 25 | Adalsende, neskutsa. | Laburditaŕa. |
| 30. | — | | Birila, lekaipurua. | Napartaŕa. |
| 31. | — | | Estepan, ziñopea. | » |
| 32. | — | | Kaskante'taŕ Jon, autorlia. | » |
| 33. | — | | Lontzi, gotzaña. | Eusko Akitaniataŕa. |
| 34. | — | | Babil, ziñopea. | Napartaŕa. |
| 35. | — | | Balente, » | » |
| 36. | — | | Garikoitz'taŕ Mikel. | Lapurditaŕa. |

Amabosteroko
— inguŕlija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
171'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Bagiĺa 1'n.

## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Josu-Kisto irugarren egunean illen artetik biztuten da

(Matth, XXVIII-1; Mark, XVI-1; Luk, XXIV-1; Jon, XX-1)



E DESTIA.

Onetan iĺobiratuta irugaŕen egunean, Josu iragaŕi eban lez iĺen artetik biztu zan. Jazokun aintzagaŕi au, lau Goizpaŕgiĺeak diñoskuenez onantxe gertatu zan:

«Josu-Kisto, astearen lenengo eguneko goizean berbiztu zan. Eta luŕ-ikara andi bat izan zan Jauna'ren Gotzona zerutik jasten zalarik elduta iĺobiko aŕia kendu ta bere gain yaŕi zalako. Bere arpegia tximistea lakoxea zan, eta bere jantzia zuria eduŕa lez. Eta bere bilduŕez gudari zaintzaĺeak ikaraz aŕituta, eta ilda lez gelditu ziran.

**Emakume deunak illobian.**

«Larunbata gaba auŕera joyala, asteko lenengo egunaren egunsentian (1) goiz-goizetik, ondiño iĺun zegoala, Miren Magdalataŕa, eta beste Miren Jakoba'ren ama, eta Salome, gertau ebezan-usainkiak eroyezela, iĺobia ikustera etoŕi ziran. Eta euren aŕtean ziñoen: Iĺobi ateko aŕia, nok kenduko ete dausku? Eta iĺobira eguzkiak urtenda eldu ziran. Eta begiraturik iĺobitik aŕia kenduta ikusi eben, aundia zan ba. Eta iĺobian saŕturik Josu Jauna'ren gorpurik ezeben idoro. Orduan (Miren Magdalataŕa) arinka Simon Kepa ta Josu'k maite eban beste ikasleagana etoŕi zan. Eta eurak (Josu'ren gorpua idoro ezebelako) nastuta egozala, jazo zan, soñeko disdiratsudun gizonezko bi euraen ondoan gelditu zirala. Eta eurak bilduŕez arpegia makuŕtu ebelako gotzonak esan eutsen: «Etzaiteze bilduŕtu, Josu Nazarethaŕ gurutzaldua izan zana biĺatzen dozuela bai'dakit. Bizi dana zergaitik iĺen artean biĺatzen dozue? Emen ezta; biztu da, zatoze ta Jauna ipiñi eben tokia ikusi eikezue. Ondiño Galilea'n zegoala esan eutzuenatzaz oroitu zaiteze: «Gizonaren Semea obendioen eskuetan jausi, ta gurutzaldua izatea eta irugaŕen egunean biztutea beaŕekoa da». Zoakeze azkaŕ eta ikasleai ta Kepa'ri esan, berbiztu dala, ta zuek baño lenago Galilea'ratuko dala; esan

eutzuen-lez: «Ara, ba, iragaŕi neutzuen». Eta aren itzetzaz oroitu ziran, eta bilduŕ eta poz andiz, beriala ilobitik igeska joan ziran, arinka ikasleai baŕi emoteko».

**Kepa ta Jon, Josu'ren illobian.**

«Miren Magdalataŕak (Kepa ta Josu'k maite eban ikasleagana joan) eta esan eutsen: «Jauna ilobitik eroan dabe, ta non ipiñi daben eztakigu. «Kepa'k urten eban ba, ta beste ikasleak eta ilobira joan ziran. Ta biak batera arinka joyazan, baña beste ikasleak Kepa'k baño ariñago egin eban eta ilobira lenen eldu zan. Eta jatsiten zalarik, lokaŕiak luŕean ikusi zituan, baña etzan saŕtu. Gero Simon Kepa bere jaŕai eldu zan, eta ilobian saŕtu zan eta lokaŕiak luŕean ikusi zituan, eta bere buru-estalkia lokaŕiakaz etzegoala, tolesturik beste alde baten baño. Eta orduan ilobira lenen eldu zan beste ikaslea be, eta ikusi ta ziñestu eban; ondiño etzekien ba, Idazti deunez, bera ilen artetik biztutea beaŕa zala. Eta ikasleak eurenakana biurtu ziran. Eta Kepa gertatu zanatzaz gelduta (aŕituta) joan zan».

Gudari zaintzaleak, ixututa iges egin eta parixetaŕ nagosiekana joan ziran jazokun gelgaŕi oneik edestutera.

Eta parixetaŕak eŕiko zaŕakaz batuta, itundu ziran gudariai txindi asko emon, eta auxe esan eragiteko: «Zuek esan egizue, lo zagozela, ikasleak gabaz etoŕi ta ostu egin dabela. Eta lendakariak au entzun ba'dai, geu atonduko gara ta azke izango zare.» Eta eurak, txindia aŕtu ta esan eutsena egin eben.» (Matth,XXVIII.)

Josu'k baña biztutako egunatan bertan, eta beste askotan etsayen maltzuŕkeri gustiak ezereztu ebazan. Bera ba, Miren Magdalataŕ eta beste emakumeai agertu yaken, baita ikasleai be, banaka ta batuta egozala, eurai itz-egin, eurakaz jan, ziñes-gogoŕai bere zauriei ikutu eragin, ta bere berbiztearen beste ezaugaŕi asko emon eutsezan, lau Goizpargileak eta Paul deunak azaltzen dauskuenez. (I ad Kor. XV;)

Berbiztearen zertzeladarik gaŕantzitsuenak onexek dira, eta oneik diran lez egiak izan ezkero, Jaungoikoa'ren eskua jazokun onetan argi agiri da. Au egi utsa dalako, ziñesgeak eurak be, gertaera aonen beste atzalbenik emotea etxake otu be ta euraen alegin guztiak, alpeŕik baña, jazokun aintzagaŕi au ezereztutera zuzendu dira. Uŕengo zenbakian (J. 1.) ikusiko dogu egi aonen aurka jarki diranak galtzairuari aginka ekin dautsoela.

---

(1) Eŕomataŕak eguzkiaren urteeratik beste urteyera, eguna zenbatuten eben. Ibertaŕak ostera, eguzkiaren saŕeratik uŕengo saŕerara.

Emen Goizpaŕgileak eŕomataŕen erara edestuten dau.

GABIREL.

---

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 5'gn.; 12'gn.

*Amabostaruon gure goteŕkijan beste jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun -biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 3'gn. *Josu-Biotz gozua.* Jai osua ez dan aŕen edozein kistaŕentzat bedegaŕez egun ixentaua bai-da, ba, Josu'k berberak, bere Bijotzeko maitasunezko txinpaŕta ta gaŕak bedegaŕez ezagutzeko ta egiten yakozan irañen ordainketak iñarduteko egun bedegaŕtzat ixentau eban eguna da. Jaupea entzun barik ez egikezu itxi, jaunartzea, iñun al ba-dozu egikezu, zerbait nekatsua ixango yatzun aŕen be bai, txadonkixunetara eldu zadiz, zerbait zure basurijan be iñarduko dabe, ba, Oteuna dan jauretxe gustijetan, opalbena egiteko, ta urtero egiteko Doipurubak agindu eban: **Ileko lenengo ostirala.** *Ileko lenengo bederatzi ostiral jaŕaitubetan jau-*

Amabosteroko
— inguŕlija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
171'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Bagil̄a 1'n.

## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Josu-Kisto irugarren egunean illen artetik biztuten da

(Matth, XXVIII-1; Mark, XVI-1; Luk, XXIV-1; Jon, XX-1)



**E DESŢIA.**

Onetan il̄obiratuta irugaŕen egunean, Josu iragaŕi eban lez il̄en artetik biztu zan. Jazokun aintzagaŕi au, lau Goizpaŕgil̄eak diñoskuenez onantxe gertatu zan:

«Josu-Kisto, astearen lenengo eguneko goizean berbiztu zan. Eta luŕ-ikara andi bat izan zan Jauna'ren Gotzona zerutik jasten zalarik elduta il̄obiko aŕia kendu ta bere gain yaŕi zalako. Bere arpegia tximistea lakoxea zan, eta bere jantzia zuria eduŕa lez. Eta bere bilduŕez gudari zaintzal̄eak ikaraz aŕituta, eta ilda lez gelditu ziran.

**Emakume deunak illobian.**

«Larunbata gaba auŕera joyala, asteko lenengo egunaren egunsentian (1) goiz-goizetik, ondiño il̄un zegoala, Miren Magdalataŕa, eta beste Miren Jakoba'ren ama, eta Salome, gertau ebezan-usainkiak eroyezela, il̄obia ikustera etoŕi ziran. Eta euren aŕtean zikiak eroyezela... ñoen: Il̄obi ateko aŕia, nok kenduko ete dausku? Eta il̄obira eguzkiak urtenda eldu ziran. Eta begiraturik il̄obitik aŕia kenduta ikusi eben, aundia zan ba. Eta il̄obian saŕturik Josu Jauna'ren gorpurik ezeben idoro. Orduan (Miren Magdalataŕa) arinka Simon Kepa ta Josu'k maite eban beste ikasleagana etoŕi zan. Eta eurak (Josu'ren gorpua idoro ezebelako) nastuta egozala, jazo zan, soñeko disdiratsudun gizonezko bi euraen ondoan gelditu zirala. Eta eurak bilduŕez arpegia makuŕtu ebelako gotzonak esan eutsen: «Etzaiteze bilduŕtu, Josu Nazarethaŕ gurutzaldua izan zana bil̄atzen dozuela bai'dakit. Bizi dana zergaitik il̄en artean bil̄atzen dozue? Emen ezta; biztu da, zatoze ta Jauna ipiñi eben tokia ikusi eikezue. Ondiño Galilea'n zegoala esan eutzuenatzaz oroitu zaiteze: «Gizonaren Semea obendioen eskuetan jausi, ta gurutzaldua izatea eta irugaŕen egunean biztutea beaŕekoa da». Zoakeze azkaŕ eta ikasleai ta Kepa'ri esan, berbiztu dala, ta zuek baño lenago Galilea'ratuko dala; esan

eutzuen-lez: «Ara, ba, iragaŕi neutzuen». Eta aren itzetzaz oroitu ziran, eta bilduŕ eta poz andiz, beriala iḻobitik igeska joan ziran, arinka ikasleai baŕi emoteko».

**Kepa ta Jon, Josu'ren illobian.**

«Miren Magdalataŕak (Kepa ta Josu'k maite eban ikasleagana joan) eta esan eutsen: «Jauna iḻobitik eroan dabe, ta non ipiñi daben eztakigu. «Kepa'k urten eban ba, ta beste ikasleak eta iḻobira joan ziran. Ta biak batera arinka joyazan, baña beste ikasleak Kepa'k baño ariñago egin eban eta iḻobira lenen eldu zan. Eta jatsiten zalarik, lokaŕiak luŕean ikusi zituan, baña etzan saŕtu. Gero Simon Kepa bere jaŕai eldu zan, eta iḻobian saŕtu zan eta lokaŕiak luŕean ikusi zituan, eta bere buru-estalkia lokaŕiakaz etzegoala, tolesturik beste alde baten baño. Eta orduan iḻobira lenen eldu zan beste ikaslea be, eta ikusi ta ziñestu eban; ondiño etzekien ba, Idazti deunez, bera iḻen artetik biztutea beaŕa zala. Eta ikasleak eurenakana biurtu ziran. Eta Kepa gertatu zanatzaz gelduta (aŕituta) joan zan».

Gudari zaintzaḻeak, ixututa iges egin eta parixetaŕ nagosiekana joan ziran jazokun gelgaŕi oneik edestutera.

Eta parixetaŕak eŕiko zaŕakaz batuta, itundu ziran gudariai txindi asko emon, eta auxe esan eragiteko: «Zuek esan egizue, lo zagozela, ikasleak gabaz etoŕi ta ostu egin dabela. Eta lendakariak au entzun ba'dai, geu atonduko gara ta azke izango zare.» Eta eurak, txindia aŕtu ta esan eutsena egin eben.» (Matth,XXVIII.)

Josu'k baña biztutako egunatan bertan, eta beste askotan etsayen maltzuŕkeri gustiak ezereztu ebazan. Bera ba, Miren Magdalataŕ eta beste emakumeai agertu yaken, baita ikasleai be, banaka ta batuta egozala, eurai itz-egin, eurakaz jan, ziñesgogoŕai bere zauriei ikutu eragin, ta bere berbiztearen beste ezaugaŕi asko emon eutsezan, lau Goizpargiḻeak eta Paul deunak azaltzen dauskuenez. (I ad Kor. XV;)

Berbiztearen zertzeladarik gaŕantzitsuenak onexek dira, eta oneik diran lez egiak izan ezkero, Jaungoikoa'ren eskua jazokun onetan argi agiri da. Au egi utsa dalako, ziñesgeak eurak be, gertaera aonen beste atzalbenik emotea etxake otu be ta euraen alegin guztiak, alpeŕik baña, jazokun aintzagaŕi au ezereztutera zuzendu dira. Uŕengo zenbakian (J. 1.) ikusiko dogu egi aonen aurka jarki diranak galtzairuari aginka ekin dautsoela.

---

(1) Eŕomataŕak eguzkiaren urteeratik beste urteyera, eguna zenbatuten eben. Ibertaŕak ostera, eguzkiaren saŕeratik uŕengo saŕerara.

Emen Goizpaŕgiḻeak eŕomataŕen erara edestuten dau.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 5'gn.; 12'gn.

*Amabostaruon gure goteŕkijan beste jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun -biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 3'gn. *Josu-Biotz gozua.* Jai osua ez dan aŕen edozein kistaŕentzat bedegaŕez egun ixentaua bai-da, ba, Josu'k berberak, bere Bijotzeko maŧasunezko txinpaŕta ta gaŕak bedegaŕez ezagutzeko ta egiŕen yakozan irañen ordainketak iñarduteko egun bedegaŕtzat ixentau eban eguna da. Jaupea entzun barik ez egikezu itxi, jaunartzea, iñun al ba-dozu egikezu, zerbait nekatsua ixango yatzun aŕen be bai, txadonkixunetara eldu zadiz, zerbait zure basurijan be iñarduko dabe, ba, Oteuna dan jauretxe gustijetan, opalbena egiŕeko, ta urtero egiŕeko Doipurubak agindu eban: **Ileko lenengo ostirala.**

*Iḻeko lenengo bederatzi ostiral jaŕaḻubetan jau-*

kaz dagirien eŕubagea, Josu onan eskubetati jatsite oŕen gogo-baŕuen, gogo-erdian jaboteko lotu dan eskaŕ mait̄egaŕia, egokiro eta luzaro, bixi diran aldi-gustian gitxitu barik, il̄undu barik eukitia benetan gura badozube..... gaurdik sartu umetxu oŕek Ama Neskutzaren arduŕapean, sutu biotz oŕek bere oneraspen mat̄ekoŕan gaŕan erdian eta uste betiaz itxaron bere laguntasuna gogo eta gorputzan aldez, edestuko jasoeran agiri dan legez.

**Egia'taŕ G. Aba.**

# UME - ABESTIJA

Zure egotxurik,
itxasaxia,
ez egikezu
edatu,
zure mokorik,
uŕetxind̄oŕa,
ez egikezu
igit̄u,
ez egijozu,
ituŕitxuba,
lil̄itxubari
gauŕ kendu
ezpanetatik
iŕibaŕerik
ezpa-nozu nai
goibeldu.

Arnasa barik
egon zait̄eze,
zit̄ori aratz
lirañak,
negaŕik-barik
bixi zait̄eze,
txoritxu ego
-ariñak,
eta jo - aŕen
itxaso ondaŕak
ixugaŕizko
ugiñak,
ixi - ixil̄ik
eruan bediz
bere kabira
bi oñak.

Alik lasteŕen
ixild̄u zait̄e,
abesti - anots
biguna,
neure gogotik
kendu orduko
gotzonen goiko
zoruna,
beste egun baten,
seaskatxuban
abesten dagon
gotzona,
ixiltzekuan,
beteko dozu
zeure gogoko
naikuna.

Umetxubaren
abots me-meiak
ez dakit zer daun
baŕuan,
gure biotzak
eztiz gañezka
erabiltzeko
ludian,
eguzkiaren
izpi beruak
argixagijen
eduan,
samuŕtuteko
ixotza baño
bijotz otzaubak
beinguan.

**Ormaetxe taŕ Kepa.**

# Euskotaŕ Gotzañak ziñesge artean

Geure eŕi au maitetuten ikasi daigun, geure artean soŕtu diran gizon ospetsuen izendegi bat, egitea egoki izango litzakela deritxot. Bakotxak dakizanen baŕi emongo ba'leuskigu, gustion artean lan aberkoya egingo geunkela-ta nago. Idaztiak arakatuta,an emen, bananduta aurkit̄u geinkezan izenak, pil̄atuta beste barik, ¿idazti galanta egiteko lain ez ete geunkez bild̄uko? Eta au guretzat pozgaŕi ta goragaŕi izango litzakela ezin lei ukatu.

Eta abeŕitik uŕin bizi diranakaz eŕez aztuten garalako, euren izenak lenen ipintea otu yat.

Ziñesge artean daukaguzan gotzañenak dira: *Çamagüey'n, Cuba'n, Zubizaŕeta'taŕ Balendin,* Karmeldaŕa, 1862'ko Azil̄a'ren 2'an Markiña-Etxabaŕi'n jayoa. 1914'ko Oŕi-

la'ren 25'an Doipuruak (Aita Santuak) Gotzain autu eban.

*Verapoly (Indostán). Arginzoniz'tař Bernarta,* karmeldařa. 1852'ko Ořila'ren 26'an Zornotza'n jayo zan 1897'an Gongotzain autu eben. Oraintsu osasunik ezagaitik ardura ori jarein eta Palestina'ko Karmelo'ko lekaretxian bizi da.

*Fokien (Txina)—Agiře tař Pantzezka,* domekatařa. 1863'an Elgoibař'en jayoa. 1911'ko Lotazila'ren 13'an Botri'ko Gotzain autu eben.

*Tonkin Sorkaldean—Ruiz de Azua tař Pantsezka* domekatařa. Ulibaři Ganboa (Araba)'n jayoa, 1917'ko Bagila'ren 17'an Cardica'ko gotzain autu ebena.

*Pitionte (Tonkin erdian)—Muñagoři ta Obieta tař Kepa,* domekatařa, 1865'an, Garagařila'ren 28'an Araba'ko Berastegi'n jayoa, 1907'ko Dagonila' ren 14'an autua izan zana.

*Guam (Oceania) —Olaiz - Zabalza'tař Jokin Pilipa,* buruñurduna, 1872'an' Iruña'n jayoa, eta 1914 'ko Garagařila'n Docimea'ko Gotzain autu ebena.

*Urabanba (Peru)—Zubieta'tař Eraimun,* domekatařa, 1864'an Argedas, Napařa'n jayoa. 1913'an Adraa'ko Gotzain autu eben.

*Colombia—Balesteros'tař Deunoro Joseba,* augustindařa, 1869'an Bernedo, Araba'n jayoa. 1907'an Casanare'ko Gotzain autu eben.

Zerzelada oneik dakařzan idaztiak, *konsolatzeko* nonbait, Eusko-eřia Belgundarietan ugariena dala diño. Eta auxe dala-ta ziñeste arteko euskotař Gotzañak ain ugari dirala. ¡Tira ba..!

GAMA.

# Eruapenaren indařa

Baseřijan jayo ta aziriko neskatila bi bai-juazan bein urirantzako bidiak zeař igali mota asko ta edeř-edeřez goi-gorano beteriko otzara andi bana buruban ebela.

Euretarik bata, Elixabete, asaře-samař yoyan biderik geyenean otzareak geyegi zamatzen eutsolako, baña bestea, Birkide, baře-santzoka ta alai-alai eldu zan bakurano.

—¿Zelan egiten don baře, esan eutson alako baten Elixabete'k Birkide'ri, ire otzarea niria añako aztuna ba-don eta ik be ezpa deukon nik baño indař geyago?

—Au don, Elixabete, erantzun eutson Birkide'k, etxetik uřten baño lenago nire otzarara belař bedegař aringařija bota yonadalako.

—Biař-biařez ixan biař yon, bai, bedař ořixek oso edeřak. Etxakiñak zer emongo nenduken be, orain orixe lango bedař bedegař ta aringaři bat eukitiařen nire otzaran, zerbait baño ezpa-don be berau arinduteko. Bedař ořen ixena, esan egidan, ba, eskařez, Birkide, beste baterako neuk be erosi gura yonat eta.

Birkide'k, nasai - nasai ta iřibaře polita espan gořisketan ebala,erantzun eutson:

Ludiko zama, neke, atsakabe ta oñaz gustijak arindu ta pozez igaroteko belař bedegař au ezton besterik, Elixabete, eruapena baño.

* * *

Eruapenaren indařa aundija - be - aundija da bixitza oso nasai ta ardura bakua igaroteko ludi onetako arerijo ta ařetasun gustijen erdijan, batez - be,gure otoyetan eskatzen dogun gustija lořtu ta geugandutzeko, Terese Deunak bein esan eban lez.

**Egiařte tař Paul**

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
172'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ — 1921 — Zoŕnotza, Bagila 15'n.



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Josu-Kisto irugarren egunean illen artetik biztuten da

(Matth, XXVIII-1; Mark, XV-1; Luk, XXIV-1; Jon, XX-1)

JAUNA'ri eskaŕak Josu Kisto' ren jaŕaitzaļe gareanok bere nekaldi, eriotza ta berbizteatzaz, ezpairik eztaukogu. Goizpaŕki gustia ziñesteko egitzat gogo gustiaz aŕtzen dogunontzat ba, lengo zenbakian, Goizpaŕki'tik (evangelio) aŕtuta ipiñi gendunaz naiko litzake, gure Jauna' ren eriotza ta berbiztea egiţzat aŕtzeko.

Baña orain zoritxaŕez, geure menditarte kutunotarañọ be *izenez* jakituria ta, *izanez* kirtenkeriz beteriko erbestetaŕ irakuŕgayen kutsu galgaŕia eltzen dalako, eta baita Kisto' ren etsayen gaiztakeri ta itsukeria begien auŕean ipinteko, beste edozein edesti-yazokun lez artuta, Josu Kisto'ren beŕbiztea azalduko dogu.

Kistaŕ ziñestearen etsayak (1) jazokun gelgaŕi onein kaltez auxe diñoe: Josu - Kisto ala egiz eta benetan etzan il, ala egiz eta benetan etzan beŕbiztu. Eta guk erantzuten dautsegu: *Josu Kisto, gurutzan, egiz eta benetan il zan eta irugaŕen egunean egiz eta benetan berbiztu zan.*

Eta jazokun biok, edestiaz bakaŕik be, egiztuko doguz. Eta lenen:

**Josu-Kisto, gurutzan egiz eta benetan il zan.**

Geuk geure begiz ikusi eztogun jazokun bat, egitzat aŕtzeko ziñaldari edo testigueri itanduten dautsegu. Eta jazokun bat areriyo ta aizkideak ao batez autoŕtzen ba-dabe ta norbaitek egitzat aŕtu gura ezpa-dau, adimendun gizon bati dagokiön baño buru gogoŕtxoagoaren jabe dala esan daikegu. Ba, egin-egiñean be, Josu gurutzan il zala danak ao batez aitoŕ-tzen dabe.

**1.ⁿ** —Jon deun goizpaŕlariak (evanjelista) Josu'ren eriotzaldian gurutzaren oñetan egon zanak, Josu «burua makuŕtuta il zala» diño (XIX). Eta Matthai, Luka, ta Marka, goizpaŕlariak be, berberau diñoe.

**2.ⁿ** —Eta au Josu-Kisto'ren Nekaldi gogoŕa gogoratuta beste barik sendetsi geinke. Josefo edeslari judaŕak diñon lez, gurutzaltzea bera beste barik ilteko naikoa ba'zan,

aureko gabaz asita, igaro zituan oñaze gogorez gañera iru ordutan gurutzalduta gure Jauna egon zala gogoratzen ba'dogu, ainbeste aldi bizirik irauteak ez ete gaituz aritzen? Getsemani'ko gogo - laritasun, ta odolezko izerdi ugariak, Pilato'ren aginduz igaro eban zigortze ikaragariak, ta auregunetik ezer jan eta edan barik egoteak gustiz odolustu ta aulduta itxi eben. Orexegaitik gurutza eroateko laguna emon bear izan eutsoen. Oñazeok gizonik sendoenari bizia kentzeko lain izan ziran.

**3.ⁿ** —Gudariak ondiño bizirik egozanei ankak apurtzeko ureratu ziranean, Josu ilda ikusi ebelako ezeutsoezan apurtu. (2)

**4.ⁿ** —Bizirik egon ba'litz be, gudariak *lantzeaz* bularean idigi eutson zauria, gustiz erailteko añakoa izan zan. Etzan ba zauri au azalekoa izan. Iru atzamaren zabaleria gitxiendik eukan, eta oituten ziran lantzak zorotz eta bedarak ziralako zabalera oretako zauria egiteko bost bat ontza barura sartu bear. Osagile jakintsu, askok, eta batez be, Grimm aita-semeak, bulareko zauri au erailteko añakoa zala erakusten dabe. Eta zauri onetatik urten zan odol-urak, batzuen eretxiz andarai edo *pleuratik,* naiz beste batzuk diñoenez, biotz-zorotik urten zanak, Josu'ren eriotzaren agerkai ez ete da?

**5.ⁿ** —Pilato'k berak, Arimatea'tar Joseriba ezeutson gorpurik emon, eunburuaren (centurión) aoz Josu benetan eta egiz il zala jakin eban arteraño. (3)

**6.ⁿ** —Judarak be, ilda zegoala ondo jakin ezpa-eben, ezeutsen lagako obiraltzen. Eurak gauzak ondo aztertu barik, Josu'ren gorpua aizkideen eskuetan laga? Obiralduta gero be, zaindu ebenak bizirik egon ba'litz ez zaindu? ¡Mutil onak ziran ba oretan!—Parixetar, Saduzetar eta Sanedrin'ekoak Josu'ren benetako eriotzea ezeben iñoz ukatu. Iñondik al izan ba'eben bai! Euren ixiltasunak ziñaldari ona dala dirudi.

Eta gero be, iru egunean ilobian judarak oi eben lez usainki, lokari ta oyalez bilduta egotea, ildakoa biztuteko baño, bizi dana ilteko egokiago dala; nok ez dakus? (4)

* * *

Josu kisto' ren benetako eriotzeatzaz, bere etsayak be, ezpairik ezin leikie euki. Jazokun bat egitzat eukiteko ziñaldariak bear ba'dira, mota gustitakoak or doguz. Bere aizkideak, eta etsayak, Pilato, eunburua, ta parixetarak, or azkenez bere oñaze ikaragari ta zauriak. Ziñaldari gusti onei ziñestu gura eztautsona egi bila ete -dabil?

Gaizto, itsu, ala buru-gogora ete da? Eta guzura dirudi baña, jakitun *izendun*, olako asko izan dira. ¡Bestelako... kirtenak!

Urengo zenbakian (J.l.) Josu'ren berbizteatzaz jakituri bardiña erakusten dabela ikusiko dogu.

GABIREL.

---

(1)—Batez be, Paulus, Schleiermacher, Bahrdrt, Hasse ta Herder'ek. Oraintsuago, Staper,Loisy, Le Roy ta beste *modernista* batzuk Josu-Kisto'ren berbiztea sentzun bidez ezin leikela egiztu diñoe; beraz edesti-baruan sartu bez; goragoko malan dagolako, ziñestez bakarik jakin leikela. Baña *benetan* ildako gizona *benetan* biztu dala jakiteko, bera ilten eta ilda ikusi ta gero iru egun ondoren, bariro beragaz itz egin, jan, ibili, berari ikutu ta abar egitea (ta ez batek eta bein, askok eta saritan baño) naiko ez ete da? Zoriontsuari yagokon bizikera euki aren, bere *izatea* bat ez ete da? Zer dala-ta ba sentzun bidez ezin egiztu?

(2)—Jon deunak diño: «Larunbatez ildakoak gurutzan eukitea zilegi etzalako (euren jai eguna zan ba) Pilato'ri eskatu eutsoen ankak apurtu ta kentzeko» (XIX).

(3)—Judaren legeak, eskegitakoen gorpuak, egun baruan obiraltzeko agintzen eben. (Deut. XXI-23). Eromataren legez ostera, gurutzaldua, bertan ustelduta zatika jausi arte edo abere-egaztiak jan arte egon oi zan. Alan be, senide naiz aizkideen batek gorpua eskatu ezkero emoten yakon. (Digesto XLVIII).

(4)—Idazti deunak diño (Jon XIX-40) Arimatea'k eta, eun libra inguru usainki, mira ta áloe ekari ebezela, eta judar oiturai jarraiturik, usainkiokaz Josu'ren gorpu deuna oyaletan bildu ebela. Oyalok iru izan oi ziran. Oyal bedar eta luzea *ozonia* eritxona, beatzetatik asita gorputz atal gustiak lotuteko; buru - estalkia *soudarion*: eta *sindon* gorpu-izarea, gorpu gustia biltzeko.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
173'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Garila 1'n.

## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Marariak)

### Josu-Kisto iĺen artetik irugaŕen egunean biztuten da

(Matth, XXVIII-1; Mark, XV-1; Luk, XXIV-1; Jon, XX-1)



ORAIN arte ikusi dogunez, Josu-Kisto egiz eta benetan gurutzan il eta obiratua izan zala, edestiaz (historia) bakaŕik be, argi dakusguna da. Orain bigaŕen atala egiztuko dogu.

**Josu-Kisto egiz eta benetan beŕpiztu zan.**

Zelan dakigun? Beste edozein jazokun lez ziñaldari edo testigu bidez. Euron artean asko dira gurutzan azken arnasa emoten ikusi ebenak. Emakume ta gizonezkoak, jakintsu ta ez jakiñak, Josu -Kisto eriotzalditik iru egun ondoren benetan bizirik ikusi eben, ta ez birloratuta egozala, ez, amesetan, ezta lotan be; egun argiz banaka ta taldeka, iratzaŕirik, euren sentzunen jabe zirala baño. Eta ori ez batek, toki baten, eta bein bakaŕik, askok, saŕitan eta toki askotan baño. Eta ez bakaŕik bera ikusi, baita be beragaz itz egin, beragaz jan eta ibiĺi, bere zauriak ikutu, bere irakaskintza ta aginduak entzun... Eta ori amaika aldi oneitan beintzat:

**1.**ⁿ —Miren Magdalataŕari, iĺobi ondoan, gorpu biĺa negaŕez zegoala agertu yakon. (Mark. XVI-9; Jon XX-11).

**2.**ⁿ —Emakume deunei, iĺobitik urira biurtzen ziralarik. (Mattk. XXVIII-9).

**3.**ⁿ —Kepa deunari bakaŕik zegoala. (Luk. XXIV-34).

**4.**ⁿ —Emaus eŕiko ikasleai. Onein bidaide izan zan, eurokaz itz-egin, jan, eta idazti deuna azalduaz, ziñesgogoŕak izan ziralako agiraka egin eutsen. (Luk. XXIV-13; Mark. XVI-12).

**5.**ⁿ —Ikasleai apaltokian egozala, Zauriak erakutsi, eurakaz izt-egin, aŕain eta eztia jan, euren uste argalaŕen agiraka egin, eta obenak parkatzeko ala emon eutsen. (Mark. XVI-14; Luk. XXIV-36; Jon. XX-19; Iad Cor. XV-5).

Bost agertze oneik beŕbizte egunean bertan izan ziran. Beste zortzi egun baŕu baŕiro agertu yaken.

**6.**ⁿ —Ikasle gustiei, Toma Didyma eritxona be euren artean zan. Onek bere lagu-

nen esana ziñestu gura ez ebelko, Josu bere zauriei ikutzeko ta bere bulařean eskua sartzeko agindu eutson, eta ikusi barik ziñestu ebanak zoriuntsuak zirala be sean eutson. (Jon. XX-24).

**7.**ⁿ —Kepa ta beste sei ikasleri Tiberiades-itxasoan ařantzan ebiltzazala. (Jon. XXIV).

**8.**ⁿ —Il baño len egin eutsen abintza betetan ebala, Galilea'ko mendi baten bosteun lagun baño geyagori agertu yaken. (I ad. Cor. XVI-6).

**9.**ⁿ —Jakoba bere lengusuari. (I ad. Cor. XVI).

**10.**ⁿ —Azkenez, Jerosolym'an ikasleakaz jan, eta Goteun (Espiritu Santu) etořkunderarte urian itxaroteko agindu eutsen eta Bethania'rantz eurekaz joanik, gitxienez eun ta ogei lagun begira eukozala zeruetara igon zan. (Mark. XVI; Luk. XXIV; Act. Ap. I).

Onez gañera Paul deunak diñosku berak be Damasko'ra bidean joyala, Jauna' gana biurtu zan Kisto berbiztuta ikusi ebala. (Iad. Cor. XV-8).

Josu-Kisto'ren beřbiztearen ziñaldariak onexek dira.

Zer dala-ta ba eurek diñoena egitzat ez ete dogu etsiko? Josu-Kisto benetan agertu ez ařen, eurei begitandu yakelako ete? Baña, gizon eta emakume ainbeste motakoak ta ainbeste tokitan ikusi ebenak, begitasun batek atzipetutea zelan izan ete leike? Eurakaz itz-egin, jan, ibiļi, ta abař beřogei egunetan egin ebana, irudi bat bakařik zala nok ziñestu? Josu - Kisto'k ikasleen ziñesgogořkeria ezereztuteko ainbeste bider bere aragi ta zauriai ikutzeko esan eutsena begitasun bat bakařik izan zala esaten nor asařtuko da? Ain ziñesgogor izan ziranak, begitasunaz beste barik zelan ziñestu? Au ontzat emon ezkero edesti gustia begitasun bat baño eztala esan beařko genduke, eta eguzkiaren argia be ezpayan ipiñi beařko genduke, beařba'da geure sentzunen begitasun bat baño eztala izango-ta. Ainbeste ziñaldari zintzok, ao batez esaten dabenai ziñestu ezik zer dala-ta iñori ezeř ziñestu? Josu-Kisto egiz eta benetan beřbiztu zalako ba, ikasleak ziñestu eben.

Egi argi onen auřka, Josu - kisto'ren etsayak, iļobia zaindu eben gudariei txin-ugari emonaz esan eragin eutsen, eurak *lotan egozala* Josu'ren ikasleak bere gorpua ostu egin ebela. (Matth, XXVIII-11).

Ziñaldari edeřak! Eurek lo egozela *ikasleak* Josu-Kisto'ren gorpua ostu egin ebela! ¡Begi solien jaube ziran ořaitio! *Lotan* egon ta ikasleak *ezagutu*! Guzuř biribil au asmau ebenak bai lo egon zirala! ¡ Orixe bai !

Baña tira, egin daigun ikasleak Josu-Kisto'ren gorpua ostuteko asmotan joan zirala. Gorpu deuna iļobitik ostuteko nai ta nai ez zarata asko atara beařko eben. Seļuak uřatu, iļobi sařeran egoan aři andia kendu, gorpua ařtu ta eroan, ta abař...gudariak gořak ezpaziran esnatuteko naiko dala uste dogu. Parixetařai orixe esatea etxaken otu. Gudariak lotan egozala ikasleak ostu egin ebela, eta ostuteko egin beař izan eben zarata ez entzuteko gořak izan zirala esan ba'eben, orduantxe taka-taka ibilteko añako guzuřa izango zan. Baña guzuřa be, anka bakařa esan eben eta jakiña! eřazago ařapatzen.

Eta onez ganera, ikasle gixajoak zer dala-ta Josu-Kisto'ren gorpua ostuteko burubidea ařtuko eben? Gurutzan il baño len an ziran sakabanatuta, iřun, bilduřez, eta lotsaz araso baten jo ta uts egin dabenen antzera. Baita euren aoz dakigu leņengotan Josu-Kisto'ren beřbiztean ezebela ziñestu gura izan, edestu eben emakumeen amesen bat izango zala-ta.(Luk.

XXIV-11). Ostuteko asmoa zer dala-ta aŕtuko eben ba?

Ziñeste ta edestiaz esan daigun ba: *Josu-Kisto egiz eta benetan beŕbiztu zan.*

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 3'gn.; 10'gn.

*Amabostaruon gure goteŕkijan beste jai osorik ez da. Igande ta jai osuetan kistaŕ orok jaupa osua entzun - biaŕ dogu ta otsein - lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDADAK: 1'gn. Simon deuna, lugiña, Napaŕtaŕa, Kabredo'n Izaŕa-onduan jayua; **Ileko lenengo ostirala.** *Ileko lenengo bederatzi ostiral jaŕalubetan jaunaŕtzia, biaŕ dan eraz, badagixu — Josu-Kisto esan eban—donokija zeuria dozu: JosuKistoren Odol Aldintsua.*

2'gn. Ama Neskutza-Ikeŕkundia·

4'gn. Beŕiotxoa'taŕ Balendin Zorunduna, gotzaña, ziñopea, Eloŕio'taŕa, Bizkaya'n.

7'gn. Pirmin deuna, gotzaña, ziñopea, napaŕtaŕa; Karmel'go Ama Neskutzari bederatzuŕeuna asteko eguna.

15'gn. Karmeldaŕen Nekazkuŕena. Gauŕ eguberdijan asi ta bijar gabeŕdirarte, karmeldaŕen jauretxietan ikeŕkun bakotxeko nekazka osua irabazi dagikezu, autarako biaŕ dan autoŕkuntzea ta jaunaŕtzea iñarduta.

* * *

## Garila 3'gn.

### Iren eta Mustiole deunak, ziñopeak

Aurelen'en kaiseraldijan Clusi urijan ordezkari Turtzi zan, eta kistaŕ-auŕkako agintzea betetian Sutri urijan lenengo ziñopatu ebana, uritik atara ta aŕika ilazuaz, Peli jaupari deuna ixan zan. Peli'ren soinila ixilian aŕtu ta uriko aŕesi-onduan iortzi eban Iren kistaŕ zintzo ta azkutsuak; egikun au jakin eban uriko buruzagijak, eta sumindurik, Iren oratu, estuntzaz gogoŕ lotu ta beste kistaŕ askokin espetxian saŕtu eyela agindu eban. Mustiole ixendun eta Kauldi bakaldunkijaren abide ta anderaño aberats eta kistaŕ onak espetxalduok saŕi ikeŕtzen euzan, bezuriz ainbat bidaŕ poztu be bai. Kistaŕ espetxalduetzaz neskutz garbi ta andi onek agertzen eban samuŕtasuna, eurai egiten eutsezan ikeŕkunak eta emoten eutsezan bezuri-izpaŕa Turtzi'ri eruan eutsoen, eta gixon ankeŕ onek, neskatiliaren andikitasuna etxamonda, espetxaldu eban. Kistaŕak osoz ixututiaŕen, Iren ixan ezik, espetxian lendik ziran sinistedun gustijak egun baten buruindu euzan, gero, Mustiole'ri sinistia ukatuazotiaŕen, Iren asmau ebanik ankeŕen aŕtzen ebala, baña gustija alpeŕik.

Lenengo zildayan eskegi eben azuŕak atara arterañoko indaŕez, gero galtzaiduzduzko kizkijakaz aragijak eratsi eutsoezan eta azpijan sua imiñi ta zildaitik kendu barik, beruen-beroz ito aŕte euki eben. Ankeŕlarijok ez eben jadetsi baña ez Iren'ak sinistia ukatutia ez gustija ikusiazo eutsoen Mustiole Kisto'ren neskatilea bildurtutia, eurak uste ta gura eben lez. Iren il ebenekoxe epaikari bijotzgiak Mustiole beru dun lokiz estutu ta estuen-estuz il aŕte euki egijela agindu eban, eta Iren il ebenak euŕak Mustiole be ziñopatu eben, bere eredu ta ziñopatasun jaŕaikide ixan yakonari, donokijan saŕtu-baŕi-zala, jaŕaikide ta aintzakide be ixanik. Iren eta Mustiole'ren soinilak Marka gixon on eta kistaŕ azkutsuak Clusi uriko aŕesi onduan iortzi euzan.

**Belaustegi**

*Jauparija*

Amabosteroko — inguŕtija —

**Jaungoiko-Zale**

X Urtia 174'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ — 1921 — Zońnotza, Garila 15'n.

# Onespen gurena

Gure bazkuna Gotzañaren onespenaz irasi edo pundau zan oin bederatzi urte ta ařezkero Gazteiz'ko Gotzain izan diranak ez bakařik onespena euren laguntasuna be emon dauskue.

Baña bederatzi urte onetako lan eta auŕerapenakaz gure bazkun au indartuta ikusi dogunian, Doipuruaren oñetaraño eldutia otu yaku ta batzař-egunian uřutidatz bat bialdu eutsan lendakarijak bazkuna bere menpian ipinten ebala.

Ara emen Doipuruaren erantzuna:

*Augustus Pontifex libenti animo tum tibi tum cœteris Sacerdotibus qui nuper isthic convenerunt Apostolicam impertit benedictionem auspicem Divinorum munerum.*

*Cardinale Gasparri.*

Euskeraz auxe esan gura dau:

*Aita Santuak bai zuri ta bai oraintsu oŕ batzandu ziran bazkun ořetako beste Abadeai be, goiko eskařaren iragarpentzat bere Onespena gogo onez damotzue.*

Gotzañari be uŕutidatzez gure eraspena baŕiro agerturik auxe erantzun dau:

*Sr. Presidente de la Sociedad "Jaungoikozale". Amorebieta.*

*Muy estimado en C. J.: El Sr. Obispo se ha servido darme el grato encargo de decir a V. que agradece mucho el telegrama de adhesión que tuvieron la bondad de enviarle al celebrar el noveno aniversario de su fundación y que les bendice muy cordialmente.*

*De V. afmo. en C. J. q. b. s. m.*

*Justo de Echeguren.*

Euskeraz auxe esan gura dau:

*Jesu-Kisto'gan ene maite ori: Zuen Bazkunaren bederatzigaŕen urteuŕena ospatzean bialdu dautzazuen eraspen - uŕutidatza Obispo Jaunak atsegiñez aŕtu dau ta biotz - biotzez onesten zaitue. Zuri orixe esateko agintzen daust eta pozez diñotzut.*

Aita Santuak, eta Gotzañak Jaungoikozalekuok onesten gaitue, bere bendeziñoa emon dauskue. Belauniko artu daigun ta jagi gaitezan gero goiko-eskaŕez adoretsuago geure bidiari jaŕaitzeko.

# JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

## Josu - Kisto ilen artetik irugaŕen egunean biztuten da

(Matth, XXVIII-1; Mark, XVI-1; Luk, XXIV-1 Jon, XX-1)

Josu-Kisto beŕbiztuta gero ikusi eben ziñaldariak, egiz eta benetan ikusi eben; begitasun bat izan zala esatea burubage-keri utsa litzake. Au argiro dakusguna da. Alan da gusti be, egi argiari begiak itxita, Josu - Kisto'ren beŕbiztea bere ikasleak itunduta asmau ebela, esan dabenak bai -dira. Akatz au ezereztuteko ezta alegin andirik beaŕ, eta erantzunaz batean, ikasleen ziñaltz edo testigantzaren indaŕa ikusiko dogu.

**Josu - Kisto'ren ikasleak iñor atzipetuteko asmorik ezeben izan eta nai izan da be ezeben lortuko.**

Eta lenen; Josu-Kistoren ikasleen zintzotasunatzaz iñork ezpairik euki ete leike? ziñaldariaren zintzotasuna agertzeko, diñoanen aldez bere bizia emotea baño ikuŕ (señale) oberik ezta. Eta Josu-Kisto'ren ikasleak bere beŕbiztea aldeztuteaŕen oñaze gogoŕen artean bizia emon ebela; nok eztaki? Beraz, burua apaingaŕitzat bakaŕik eztaukanak, ikasleen zintzotasunatzaz ezpairik euki beaŕean, Paskal jakintsuagaz esango dau: «Nik euren burua diñoenen aldez emoten dabenen ziñaldariei, ziñesten dautset.»

* * *

Ikasleak Josu'ren berbiztea ludian zabaltzeko itundu zirala! ¿Zer zala-ta? Bere senean dagoanak gauza gaŕantzitsu bat auŕera eroateko zioen bat beaŕ dau. Eta Kisto'ren etsayak diñoen lez, ikasleak zer zala -ta itundu Josu-Kisto'ren guzuŕezko berbiztea asmauko ete eben. Benetan beŕbiztuko zala ziñesten ba'eben, ezeuken itxarotea baño, eta ziñesten ezpaeben, edo eurek itxaroten ebena gertatu ez, euren irakaslea atzipetzale ta guzuŕtitzat etsitea izango zan bururatuko yakena. Besterik ez. Eta alan da be, bere beŕbiztea guzuŕez zabaltzeko alkaŕtzeak onura andiak aztunak eta eurenagaz urtetzeko bideen bat ikustea eskatzen dauz. Baña ze onura ekaŕi zeikioen euren guzuŕak. Aberastasunak ete? Zelan dakusguz ba, txirotasunik gogoŕenean eŕirik-eŕi oñez ta ortotzik, Kisto'ren berbiztea zabaltzen? Bizitz onetako atsegin eta aukerak? Baña, ez dakusguz espetxe ilunetan, euren odol eta bizitza Josu'ren beŕbizte aldez emoten? Euren aintza beaŕ ba'da? Baña iŕi ixeka, irain eta laido artean bai'dakusguz! Zer zala-ta ba, guzuŕa zabaltzeko itunduko ziran? Josu -Kisto'ren maitasunak bultzatuta? Baña, biribil-biribil atzipetu ebazala ikusi, ta bere aldez ainbeste neke igaroteko ezta gogo txaŕa beaŕ! Orduan, zeren itxaropenez itundu ziran? Euren inguru etsayakandik otso amoŕatuakandik artalde gaxoak itxaron leikena, neke oñaze, eriotza. Besterik ez. Jaungoikoa'ren aldetik guzuŕ eta gaiztakeriaren zigoŕ gaŕatza. Eta onez gañera euren maltzuŕkeria azalera lasteŕ agertuko zan. Aitatutako buru-bide au zorakeri utsa izango zan, eta zorakeri bat zala bide ludiko alderik zintzo, jakintsu ta onena eurekandu? Zorotasun aŕigaŕia da berau!

Eta guzuŕa zabaltzeko itundu ba'ziran

be, euren asmoak zelan bete?—Agintari ta aberats gustiak, gizonaren girña gustiakaz alkaŕtuta euren auŕka egozan, eta gurutzalduta il zan judataŕa ludiko Jaungoiko bakaŕtzat aŕtu eragin ta guŕtuazoteko, txindi, jakituri ta indaŕa barik zelan bururatu be? Ainbeste eragozpen artean zelan garailari urten ziran? Guzuŕa izan ba'litz; beŕbiztea ziotzat aŕtuta, ludiko oitura ta ziñeste galduak zelan zuzendu ete ebezan? Ziñez, alatz andienetarikoa berau izango zan. Ara ba, Josu - Kisto'n berbiztea aintzat aŕtu gura eztabenak beste alatz baten sare estuetan saŕtuta. Ara or Kisto'ren etsayen alegin gustiak zetan amaitzen diran! Eleiza Ama'gaz esan daigun ba: Josu-Kisto, berak «iragaŕi eban lez beŕbiztu zan.» Eta au egi utsa dalarik, bere irakaskintza Jaungoiko berberarena da: Bera da *Egia,* ta jaŕaitzen ezteutsona ilunetan dabil; Beragandik aldentzen dana, bidekatuta, Bera *Bidea* dalako; ta Bera maitatzen eztabena, eriotzako ilunpean datza, Bera geure *Bizitza* dalako. Egi gaŕantzitsu onen auŕka dabiltzanak eŕukari-eŕukaŕi dira ba, ta etsai gustien alegiñak alpeŕekoak; ezjakiñak lausotzeko ipinten dabezan laño baltzak egiaren izpiak uŕatu ta ezerezten ditualako. Gorbea'ko mendiak, txiñuŕiak lautuko daben bilduŕ barik zutik iraungo daben lez, Kisto'ren Beŕbizte aŕigaŕiak gizaldi gustietan zutik iraungo dau, ba.

Alpeŕ-alpeŕik jardungo dabe
Kisto'ren etsai gogoŕak,
Beŕbizte-auŕka amoŕaturik
zabaltzen laño, guzuŕak,
Eguzkiak lez egiak aŕgi
zabaltzen dituz izpiak,
su geyago ta dis-dis geyago
egin oi daun lez uŕeak.

Itxas-erdian lerden agertzen
dan arkaitz gogoŕ, sendoak
bere oinpean biŕintzen dituz
uin asaŕe, aŕoak,
Kistaŕ-egiak be iraungo dau
ekaitz-etsayen erdian
lerden, oinpean uin gustiak
biŕintzen diran artean.

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕlija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
175'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Dagoniĺa 1'n



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Beŕbizte osteko aŕaintza gelgaŕia.

(Jon, XX-1)

GERO Josu Tiberiades aintziran ikasleai agertu yaken. Eta onantxe agertu zan: Simon Kepa, ta Toma, Didyma eritxona, ta Nathanael Galilea'ko Kanataŕa ta Zebedai'ren semeak, eta beste bere ikasle bi, batera egozan.

Simon Kepa'k esan eutsen: Aŕañetara noa. Esan eutsoen: Geu be zeurekin goaz. Urten ziran ba, ta batelera igon ziran; eta gau atan ezer ezeben aŕapau. Baña goiza eldu zanean, Josu itxas-ertzean agertu zan, ikasleak baña, Josu zala ezeben ezagutu. Eta Josu'k esan eutsen: Gasteok, jatekorik ba'daukozue? Erantzun eutsoen: Ez. Esan eutsen: Sarea batelaren eskumaldera jaurti eikezue ta idoroko dozue.

Jaurti eben ba, ta aŕain-ugaritasunaŕen ezin eben atera. Orduan Josu'k maite eban ikasleak Kepa'ri esan eutson: Jauna da. Simon Kepa'k Jauna zala entzun ebanean, estalkia jantzi eban (biĺozik zegoan ba) ta itxasoratu zan. Beste ikasleak batelagaz etoŕi ziran; (luŕetik ez egozan uŕin ba, beŕeun bat kodo baño) aŕaindun sareari tiraka.

Luŕera jatsi ziranean ba, txingaŕak gertu ta aŕain bat gañean eta ogia ikusi ebezan. Josu'k esan eutsen: Orain aŕapau dozuezan aŕañetatik ekaŕi eikezuez. Simon Kepa igon zan eta eun eta beŕogeta amairu aŕain andiz betetako sarea luŕeratu eban. Eta ainbeste izan aŕen, sarea etzan uŕatu. Josu'k esan eutsen: Zatoze, jan egizue. Eta jaten egozanetatik iñor be etzan asaŕtu itanduten: ¿Zu nor zara? Jauna zala ekielako. Eta Josu etoŕi, eta ogia aŕtu ta emon eutsen, eta aŕaña bardin. Onegaz Josu iĺen artetik biztu ondoren irugaŕenez bere ikasleai agertu yaken.

* * *

Josu-Kisto'k, gu gaizkatzeaŕen il baño lenago, ikasleai beŕbiztutakoan Galilea'ra joango zala iragaŕi eutsen. Eta beŕbiztutakoan be auxe agindu eutsen: Zoaze eta neure anayei esan Galilea'ra joateko. Antxe ikusiko nabe.»

Beldu edo apostoluak jayotzez ta biztokiz, Judas saltzaĺea izan ezik, Galilea'taŕak ziran. Etziran aldentzen bertatik ala beaŕizanez, euren Irakasleari jaŕaitzeaŕen,

ala Jerosolym'era jayak igaroten joaten ziranean baño.

Paska jayak zirala-ta Jerosolym'ara aurtemin egin eben azkenengo ostera onetan, lenen atsekabezko ekaitz bilduŕgaŕiak euren biotz aŕgalak astindu zituan, ta ondoren eguzki zoragaŕiaren izpi gozatsuak baita pozez bete be. Euren Irakasle maitea, etsai amoŕatuen eskuetan, gurutza baten ilten ikusi ebenean samintasun - uingaziak euren biotzak luŕ-jota itxi ba'zituan; etsai gustien garailari iĺen artetik beŕbiztuta ikusirik, poztasunez gañezka auŕkitzen ziran. Jayak amaitu ziranean ba, Josu'ren agindua bete, ta bide batez etsai artetik iges eiteko, euren jayoteŕira, Galilea'ra biurtu ziran. Antxe egozan ba, Josu-Kisto'ren Igokundearen zain bere irakaskintza goitaŕak ludi gustian zabaltzen asteko. Ta egun batez Kepa'ren etxean -edo biĺduta zirala, beaŕ ba'da jango ba' eben lan egin beaŕean aurkitzen ziralako, Kepa'k aŕañetara joateko asmoa agertu eban. Bertan ziran Toma, Nathanael (dirudienez Bartoloma deuna), Jon eta Jakoba ta nortzuk ziran eztakigun beste ikasle bi. Oneik be berakin joan gura ebela adirazi eutsoen, eta aŕaintzarako aldi onena, gaba zanez, gustiok bateleratu ziran. Baña euren lana alpeŕekoa izan zan gau gustian aŕain bat be ezeben aŕapau-ta.

Eguna zabalbu ebanean, bapatean Josu itxas-ertzean agertu zan, baña ala atzeŕitaŕ antzez agertu, ala iĺun samaŕ egoalako ezeben ezagutu. Josu'k jatekorik euken itandu eutsen, eta ikasleak ezetz erantzunik, batelaren eskumaldera sarea jaurtiteko agintzen dautse. Berak ondo eken antxe aŕain piĺo andia aurkituko ebela. Esan eta egin. Jaurtiten dabe sarea ta aŕaiñen-aŕaiñez ezin eben atera. Eun eta beŕogeta amairu aŕain andi aŕapau ebezan. Alatz onek Jon ikaslearen begiak idigi zituan Josu zala ezagutzeko, ta Kepa'ri esan eutson, Jauna da. Onek batelean joateko asti barik, au entzun ebanean, soin-estalkia jantzi ta itxasoratu zan urez-zeaŕ Josu'gana eltzeko. Eun bat metro ertzetik egongo zan.

Ikasleak eldu orduko, Josu'k sua piztu ta aŕain bat eŕetan ipiñita eukan. Nondik zuzendu ete eban? Eztakigu.

Gero Jauna'ren aginduz Kepa'k aŕapautako aŕañak luŕeratu ebazanean, jateko deitu eutsen. Ikasleak ain gauza gelgaŕiak ikusirik, Josu zala ondo jakin aŕen, bere aoz nor zan entzun gura eben baña, iñor be itanduten etzan asaŕtu. Eta Josu Kisto'k amultsu-amultsu bere eskuz ogi-aŕañak ikasleai emon eutsezan. Jazokun samuŕ-samuŕ onek ikasleen biotzetan erein eban poz eta maitasun gozoa nok aztertu?

Goizaldu ondoren Josu-Kisto'k bere ikasle Kepa, len eskiñi eutson lez, Bere ordezko ta Doipuru autu eban, oŕetarako baña, antxe su aren ondoan iru aldiz Beraganako maitasunatzaz itanduten dautso. Kepa'k, beste aldi baten sutondoan zegoala iru bider Josu ukatu ebala gomutaurik, maite -maite ebala erantzun eutson, ez baña apaltasunik andiena bere erantzunetan agertu barik. Josu'k Artzain Nagosi autu eban; ta bere eriotzan be Irakaslearen antzekoa izango zala adirazi ondoren esan eutson:

¡Jaŕaitu egidazu!

Ikasleai, bilduta egozala, irugaŕenez egin eutsen Berbizte ondorengo agerkundea auxe izan zan.

* * *

Beste askoren artean alatz onetan Josu -Kisto'k dauskun maitasun samuŕez gañera, gauza bi oneik ikasi geinkez: Geure alegin gustiak, Josu'ren laguntza barik alpeŕekoak dirala, baña bere esana azkaŕ ta zintzo egiten ba'kogu, gogo asko Jauna'ganduko ditugula.

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕĺija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
176'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Dagoniĺa 15'n



## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

### Josu-Kistok zerura igoten dau

(Mark. XVI-19; Luk. XXIV-50; Act. Ap. I-3.)

NEKAUSTE ondoren agertu yaken (ikasleai) bizirik, ziñespide ugariz, beŕogei egunez agertu ta Jaungoiko bakaldeŕiatzaz itz-egiten eutselarik.

Eta Bethania'rantz atera zit̄uan. Orduan bildu ziranak itandu eutsoen; esanaz: Jauna: aldi onetan Ixaŕel-bakaldeŕia (ereñua) biuŕtuko ete dautsozu? Eta esan eutsen: Aitak bere almenpean bakaŕik ipiñi zit̄uan aldien ezaguerea zuei ez dagokizue; baña zeuen gain etoŕiko dan Goteun (Espiritu Santu) ala artuko dozue, eta Jerosolym'an, Judea ta Samaria osoan eta luŕaren mugarano neure ziñaldari (testigu) izango zare. Eta gauza oneik esanaz eskuak jaso ta onetsi zit̄uan. Eta jazo zan onesten ebazalarik eurekandik joan zala. Eta eurek ikusten ebelarik igon zan eta donoki-goyan abetaldua izan zan, eta Jaungoikoa'ren eskumaldean jesaŕita dago. Eta laño batek aŕtu eban, eta euraen begietatik kendu eban. Eta Bera joyan artean begiak zeruan josita eukezela, zuriz jantzitako gizonezko bi, ondoan jaŕi yakezan eta esan eutsien: Galilea'taŕ gizonok; zerurantz zeri begira zagoze? Zeuen artetik zerura igon dan Josu berberau, zerura igoten ikusi dozuen lez etoŕiko da. Orduan guŕtu ondoren, poz aundiaz Olivete deritxon menditik Jerosolym'ara biurtu ziran (Mendi) au Jerosolym'atik uŕ dago, larunbateko bidaldi bat baŕu.»

* * *

Aŕaintza gelgaŕiaren ondoren, Josu-Kisto, bere ikasleai Galilea'ko mendi baten agertu yaken. Batzuk guŕtu eben, beŕbiztu zala ondo ekielako, beste batzuk ondiño ezpayan egozan. Orduan Josu-Kisto'k bere irakaskintza zerutaŕak ludi gustian zabaltzeko emon eutsen agintzaz betera, alatzak egingo ebezela iragaŕi eutsen. Dirudienez aldi onetan bosteunetik gora ziran bilduta aurkitzen ziranak, Paul deunak (I ad Kor, XV,) azaltzen dabena, auxe izan beaŕ dau-ta. Goizpaŕkiak adirazten emoten dau beste askotan be agertu yakela ageŕtze onein zertzeladarik ipiñi ez aŕen (Act. Ap. 8).

Azkenez Jerosolym'aratu ziran, eta Nekaldi aur̃etik apari ospetsua egin eban lez, zerura igon baño len beste apari bat egin eban. Bertan, bere Nekaldi, eriotza, ta iru egun bar̃u ber̃bizteatzaz iragar̃ita zegoana betetea bear̃ekoa zala adirazi ondoren; au gusti au ludian zabaltzeko egun gitxi bar̃u Goteuna bialduko eutsela esan eutsen. Eta apar̃ia amaituta Bethania'rako bidetik zear̃ Olivete deritxon mendira eroan zituan. Mendi au, Lege Zar̃eko idaztietan ospetsua da, baña askozaz geyago Josu'k bizitzan sar̃i ikertu ebalako, bertan Nekaldi gogor̃ari asiera emon eutsolako, ta batez be, garailari bertatik zeruratu zalako. Jerosolym'aren sorkaldean egoan, Zendron'go amil̃degia igarota beriala gustiz be ordu lauren inguru bar̃u. Bidez joyazala ikasleak, gauza gelgar̃ien batek gertatu bear̃ ebala igar̃i eben. Eta euren biotzak beti lez ondiño be, ludi onetako andikeri amesez beterik eukezelako, Josu'gana ur̃eratutik, Ixar̃el'go bakalder̃ija bar̃iztatzeko asmotan ete ebil̃en itandu eutsen. Josu-Kisto'k gai onetzaz bialduko eutsen Goteunak argituko zit̃uala-ta, itaunari zuzen erantzun barik, bere bakalduntzapean ludi gustia sar̃tuko zala adirazi eutsen. Eta Olivete mendira eldu ziran, eta Josu ixil̃du ta gelditu zan. Bertan ziran ikasleak, eunda ogeitik gora; zer egingo ete eban, adi-adi eukazan. Eta Josu-Kisto eskuak jasorik maitasunik samur̃enagaz danak onesten zituala, zerurantz andikiro igon zan, bere indar̃ez, samintasun ordez goiko poztasunez ikasleen biotzak betetan zitualarik. Ar̃ituta, berari begira gelditu ziran, zetan amaituko ete zan jakingureaz eta onetan, ainbeste maite eben Irakasle garail̃aria, laño batek bitar̃tean jar̃ita begietatik ostu eutsen. Baña ikasleen biotz leyatsua, maitasunezko taupada samur̃ eta zoliak bultzatuta Josu maitearen ondoren joyalako, zerutik begiak aldenduten ezeutsen laga, ta Josu estaldu zan ar̃en, goirantz begira egon ziran, zuriz jantzitako gotzon (aingeru) bi agertu yakiezan arteraño. Onein itzak entzunik, gur̃tu eben ta pozez beterik Jerosolym'era biurtu ziran.

* * *

Josu-Kisto'k lur̃ onetako bizitza Zeruetara Igotze gelgar̃i onegaz amaitu eban. Neke, atsekabe, samintasun eta kurutzea, bere janari lez izan ziran. Baña orain bere apaltzearen saritzat, Berbizteaz gañera, bere indar̃ez donokira igoten dau, gizadiaren oben estuntzak ur̃atu ditu; eriotzea oinperatu, ta Satanas'en agintza zuzitu ta sakabanatu dau; ta orain Doibatza (Eleizea) Kepa buru ta bere Ordekotzat dabela eraldurik, bere Aita'gana garailari biurtzen da. Bere zorion aintza ba, nok azaldu? ¿Donokian egin eutsen ar̃erea, nok? Ta garaitza ta goralben au ikusirik bere Ama maite, ta ikasleen biotzetan sortu zan gozotasuna, neurtu leikena; nor ete da?

Ludian ezta eskutapen au
somatu leiken biotzik;
adimenik bez garaitz aundi au
uler̃tuteko gai danik;
Gotzon izkuntzak zerbait alko dau
Kisto'n garaitz au azaldu;
Auxe; besterik guk ezin geinke:
Poztu; gur̃tu eta ixil̃du.

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X. Urtia
177'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Irala 1'n

## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)



Josu-Kisto'ren Jaungoikotasuna, bere Biotz-baŕengo ontasun eta eŕukia; eta era berean bere gizatasun samuŕa zelanbait agertzeko, toki onetan, Goizparkiak banaka azalduta dakaŕzan alatzak azaltzen asi giñan. Eta ia urte bi oneitan ekin dautsogun lanari bere amaya eldu yako. Emen banaka azalduta dakaŕzan alatzak bakaŕik ipiñi dituguz. Beste asko bai asko, egin zituan goizparkiak diñoskunez; bere Biotz baŕendik ba, ituŕi edeŕ batetik eten barik urak urteten daben lez, ala obeto esateko, eguzkiak bere argi ta berotasuna eten barik zabaltzen daben lez, Josu-Kisto'n bizitza gustia ontasun jariyon bat izan zala esan geinke. Luka deunak diñoskun lez, (VI, 19) «Gizatalde gustiak berari ikutu gura eutson, beragandik indaŕak urten eta danak osatzen ebazalako.» Bere alatzak ba, argiak, edeŕak, gurenak ta obendiontzat gustizko pozkaŕiak dira. Alatzak, eta iñok ukatu ezin leikezanak, gura dituanak, ba, goizpaŕki edo evangelioan auŕkituko ditu. Kistaŕik asko ba alatz biĺa dabiltzala yoranez ikusten ditudanean, neu beintzat aŕitzen naz, beaŕ ba'da ezjakiñez ala ikusguraz dabiltzalako.

Alatzak, egia da, aldi eta toki gustietan Jaunak bere deunen ala irudien bidez egin ditu, baña berak egiñak argiago ta ziuŕago ez ete dakiguz? Besteak iñok ezpayan ipiñi al ba'leiz be, Josu-Kisto'n alatzak argiari begiak itxi gura dautsozanak bakaŕik ukatu leiz. Ziñestedun naiz ziñesgak egi biĺa dabiĺen edonork, bere almen neuŕgaren auŕean burua makuŕtu beaŕko dau. Mota gustitakuak dira ba, eta banan-banan azteŕtuta iñok benetako akatzik ezaŕi ezin ba'dautse, danak batean aŕtu ezkero Kepa deunagaz esan beaŕko dau: «Josu-Kisto Jaungoiko biziaren Semea da.»

Josu-Kisto'n alatzok edesti-arauz begiratuta ipuin nastetik garbi aurkitzen dirala eŕez egiztuten dabe jakitunak. Eurak gertatu ta idatzi ziran bitarteko aldia oso labuŕa izan zan. Gauŕ edeslari gorengoak diñoenez goizpaŕkiak lenengo gizaldi-baŕuan idatziak dira; eta au argiro egiztuten dabe lenengo gizaldietako idazlien esanetatik, eta goizpaŕkian bertan azaltzen diran jazokunetatik, eta euren idazkeratik bertatik be bai.

Gaurkoz gai onetzaz geyago eztogu ipiñiko. Amaitzeko, goizparki bakotxa noiz idatzi zan ipiñiko dogu. Lenengo gaizparkia, Matthai deunarena da. Josu'ren eriotzatik sei edo zortzi urte baru idatzi eban. Eta oron eretxiz siriakeraz. Bigarena Marka deunak idatzi eban. Dirudienez gerkeraz eta Josu-Kisto'ren eriotzalditik amabi urte baru. Irugarena Luka deunak; berau osagilea zan. Gerkeraz idatzi eban Josu-Kisto'ren eriotzatik ogetasei urte baru. Laugarena Jon deunak. Gerkeraz idatzi eban eta Josu-Kisto'ren lenengo gizaldiko larogeta amaboskaren urterantza.

*(Darai)*

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 4'gn.; Gotasdun Ama Neskutza; 11'gn.

*Amabostaruon gure goterkijan jai osorik ez da. Igandietan kistar orok jaupa osua entzun -biar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK 1'gn. Deun-Bingen, gotzaña, ziñopea, laburditara odolez.

2'gn. **Ileko lenengo ostirala.** *Ileko lenengo bederatzi ostiral jaratubetan jaunarkuna, biar dan eraz, ba-dagixu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.*

8'gn. Ama Neskutzaren Jayotza, jai osotzat zaintzen doguna.

12'gn. Miren Ixen Edera: Zumaraga'tar Goteuna'ren Toma Zorunduna, Gazteiz'tara, ziñopea.

15'gn. Ama Neskutzaren Neke Aintzatsuak.

* * *

## Irala 1'gn.

Deun - Sinboren, ziñopea

Egidi deuna, lekaipuru gelgarija gerkara ixan zan, eta Atenas'en jayo zan. Bere asabak bakaldunak ixan ziran, eta berau umaro- umarotik ikastuna eta ekandon-zalia, geyen, batez - be, erukizko egiñenak iñarduten euzala.

Bein, txadonara yoyala, luran etzanda ta soroski-eske zan txirua ikusi eban: gure deunak, osoz erukiturik, aldian eban gañeko soñekua kendu eta beragaz jantzi eban txirua, ta jantzitiaz batera, txirua gustiz osatu zan. Umezurtz geratu zanian, gurasuak itxi eutsoezan ogasun ugarijak txiruai edatu eutsezan bera ezer-barik geratzen zala, ordiaz Goiko Jaunak, dirudijanez, alazkile bedegar ixentetan ebala, ba, arezkero gureña ta aundijak egiñik, Gerkija'n beratzaz asko goresten eban ospia edatu zan, eta berak, apal-zalez, itxasontzijan sartu ta iñok ezagutu ez aintzakotzat artuko ez eban erkira iges egin eban. Alperik baña, ba alazgintzako eraztasunak jaratu ta berakin ixan zan eta itxasketan bertan ekaitz eskerge-eskergia, bere otoiz, beinguan baretu eban.

Arles'en Kesara bertako gotzain deunakin aizkide ta kutun zala urte bi igazi euzan geruago deunagotzen ebala bere buruba; andik Rodano igarota, zenbatu ala goi alatzez auzuetako erkijetan lagun -aundija ixan yaken bertako biztanliai.

Egiten euzan goi-alatzakatik asko ta asko gexo osatu ezindun osatuta, gustijak goresten eben eta Deunari lez dedua ta andixurena eutsoen. Artzen eutsoen dedu au eta egiten eutsoen andixuren au, apalez, berak ezin eban jasan, eta Rodano'k itxasuan iztabua daun alderuntz zuzendurik, goresten ebelako, gizonakandik alde -egitiaren, an oyan-oyanan, geratu zan, biztokitzat albuan ur gardendun iturija eban artzulua aututen ebala. Jaunak bidalduta, bere esniaz unitu (janaritu) edin burua, egunoro eltzen yakon orein eder bat. Bein, beste askotan lez Pantze'ko ba-

# ¡JAKITUN!

Azuŕ gabea [1]
zoli - zoli ta
edozeŕtzaz
bańiketan,
ixildu barik
ekin ezkero
bultzi, batzaŕ
kalietan,
iñoz ikasten
ez nekatuta
abots sendoaz
gogoŕ jardun...
*Lelo* artean
auxe ba'dagik
eskieŕ az...
¿zer? ¡jakitun!

GABIREL

---

(1) Miña.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia 178'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1921 Zoŕnotza, Irala 15'n

## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)



AZALDU dituguzan gure Jauna'ren alatzak, ziñeste barik be, egizkotzat aŕtu beaŕekoak dira; aitatu genduzan lau Goizpaŕgiĺeak, egia ondo ezagutu eta zintzoro azaltzeko gaitasun bardingabea agertu ebelako. Au garbian ukatzen Elizaren etsayak be, eztira asaŕtuko. Ba, ituŕi garbi onetatik itzez-itz artuak izan dira, emen azaldu doguzan ogetamalau alatz edeŕak. Gure Jaunak, askozaz geyago be, egin ebazala bai'dakigu. Goizpaŕ edo ebanjelioko oŕi gustietan ikusi geinkez.

Gure Jaun eta Irakaslea, gustietan oron jaube lez agertzen da. Taldeka ta banaka gexoak eta saminpetuak Beragana daroaz. Bere ospea inguru gustietan zabaldu zan, eta Judea'tik at, Siria ta mugaide ziran eŕietatik be, osatzeko gexoak ekaŕten eutsoezan. Eta Josu-Kisto'k itz bategaz, eskuaz ikutu, ala bere soñekoai ikutzeaz beste barik osasuna ta poza zabaltzen eban. Ura ardao biuŕtu, itxaso-gain oñez ibiĺi; ekaitzak itz bategaz baretu; itsuak argitu; goŕak zuŕtu; ogi-aŕañak ugaritu; gaizkinduak azkatu; legenaŕdunak garbitu; elbaŕituak sendatu; eta ildakoak biztuten ditu. Eta «Joaten zan edozein tokitan, baseŕi naiz urietan, gexoak bidera ataraten eutsoezan, bere soñekoari baño ezpa-zan be, ikutzen lagatzeko eskatzen. Eta ikutzen eutsoen gustiak osatuta gelditzen ziran.» (Mark, VI-56.)

Eta iĺak be ugari biztu izan ebazala, goizpaŕgiĺeak argiro adirazten dauskue. Jon Uguzlari deunaren ikasleai Jaunak berberak emon eutsen erantzuna entzun daigun: «Zoakeze, eta Jon'i, ikusi ta entzun dozuena edestu egiokezue: itsuak ikusten dabe; eŕenak ibiĺi dabilz; legenaŕdunak gaŕbituten dira, goŕak entzun eta *iĺak biztuten dira.....*» (Luk. VII-22.)

Berariz baña goizpaŕak, iru biztutze aitatzen ditu. Jairo sinagogako nagosiaren alabea, obiraltzeko gertakizunak egiten ziarduela biztu eban. Naim'go alargunaren semea, obiraltzen eroyela; eta bere aizkide Elazar, obiralduta lau egun baŕu. Berbiz-

teok begien aurean zeuken egizko gizona' egiz Jaungoiko zala ikusteko naiko litzakez. Batez bere, etsayez inguratuta zegoala, usteltzen asitako gorpuari; «Elazar, urten atera» esanaz beste barik, ildakoa ilobitik urteten ikusteak; Jaungoikoaren almena, gogora erakariko eztautsonik ezta.

Eta ez uste alatzok ixilean eta bakarean egin zituanik; geyenez, oneik eta beste asko be, *gizoste andiaren* aurean, egiten ebazan; saritan bere etsai amoratu ziran parixetar eta lege-jakitunen aurean; guzurik izan ba'litz, begiak zorotz, bere kaltezko zerbait ikusteko eukiezanak adi-adi eukazala. Alatzok ba, egizkoak izan ezpaziran aintzat artzen nor asartu?

Egizkoak eta goiko almenez egiñak izan ezpaziran, eguzki argitan eta saritan egindako alatzok; eriak Josu-Kisto'gan eukan *uste osoa* egunerik - egunera zelan geyagotu? Egizko ta beraz goi-indarez egiñak izan ez-paziran, iru urtean itsu, eren, gaizkindu ta elbarituak, bere esku ongileetara zelan etori?

Baña oartxo batzuk egitea baño ezta asmoa-ta, ez noa luzatzen. Auxe bakarik esango dot. Alatz batzuk eurenez, benetan, goiko indara eskatzen dabela; (esaterako aitatutako berbizteak); beste batzuk ostera, edo itz bategaz bapatean egiñak izan ziralako, ala beste zertzelada batzuk gogoan euki-ta, ezjakin eta jakitunentzat; ziñestedun naiz ziñesgentzat; asmo onekoak badira beintzat; benetako alatzak, iñok ezpayan ipiñi ezin leikezanak dirala, banaka azaldu dituguzanean ikusi dogun lez.

Eta gai au amaitzeko urengo zenbakian (J. I.) Josu-Kisto'ren alatzetan geitxoago gogaldu bear geunken *zerbait* ipiñiko dogu, *zerbait* orek alatzon edertasun eta samurtasuna, argiroago ipinten dauskulako.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 18'gn.; 25'gn.

*Amabostaruon gure goterkijan jai osorik ez da. Igandietan kistar orok jaupa osua entzun-biar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 17'gn. Asis'tar Pantzeska deunari Zaurijak-Irazkundia.

19'gn. Grat zorunduna, gotzaña, zuberotara.

21'gn. Deun-Matai, belduba, goizparkilia, jai erditzat zaintzen doguna: laurenaldija.

23'gn. Laurenaldija; **araruzte**—aragija izteko eguna—barau eguna ez baña; *gaur udagoya asten da.*

24'gn. Laurenaldija; Eskardun Ama Neskutza.

29'gn, Deun-Mikel Gongotzonaren Eskingundia, jai erditzat zaintzen doguna.

* * *

## Irala 19'gn.

### Deun-Genar, gotzaña, ziñopea

Genar deuna Benebento'ko gotzain arduratsua eta Kisto'ren ziñopa gelgarija irugaren eunkijan Benebento urijan, Napoles bakalderijan jayo zan. Doipuruak berberak aginduta, berak apaletsiz ezetara be gura ez eban aren, jaupari ta gotzain egin eben, geikun au bere deundasuna agiri jarteko naikua ixanik. Geidiaganako matasuna zan berak geyen agertzen eban ekandona, ta asko ixanda jasarpen-bildurez, basuetan-eta bixi ziran kistarak, biar ebena eruanagaz, eurek poztuteko sari eltzen yaken gure Deuna. Sosi jaupaltseña lenengo ta gero beste batzuk kistar zintzo ziralako ta euren sinismena bildurge autortu ebelako espetxaldu ebezan, eta gure Deunak, jakin ebanekoxe, ziran Puzzol'go espetxera eldu ta sinismenatzaz azkortu ta sutauten

# Auŕtzaro deuna. (Abestia) (1)

Josu auŕ samuŕa,
Erosle maite,
Ziñesgetxoetzaz,
Eŕuki zaite.

Ziñesge artean,
Ugutzatzeke,
Il ezteizen gatoz
Eŕuki eske.

Euren zotiñakaz,
Biotz – samuŕtu,
Ta euren negaŕak
!Aren !aditu.

Gizon Jaun-zaleak,
Bialdu ¡aŕen!
Eurak gaizkatzea,
loŕtu dagien

Otoi dagitzugu
Ume euskaldunok
Eskiñirik Zeuri
Geure biotzok.

Emon Jaun maitea
Ongil̄eari,
Zeure maitasunaz
Zorun ugari.

GABIREL.

---

(1) Erderazko «Niño de mi vida» lez abestuteko.

go Betikoŕ-Egizkuan zinistu egixu, bein -edo-bein, zorginkeri ta tentelkeri oŕek, buru-bako eruentzat lagarik!

Gastetxubaren itz labuŕ oneik ikutu eutsen bijotzan zingiari ta apuŕ-apuŕka berekautan oso saŕtu zanian, etxian eukan azkenengo jaingixun bakaŕa bere eskuz lenengo auts-auts egin ezkero, makuŕtu zituzan bere belaunak Jaungo-Egizkuaren aitziñan gogo bero ta gaŕtsubaz lenengoz guŕtuteko.

**Egiaŕte'taŕ Paul.**

# EKIN

Ija aspalditxotik izan dogu JAUNGOIKO-ZALE'ren etxean Idaztidi *(Biblioteka)* edeŕ-edeŕ bat eraltzeko asmoa. ¿Idaztidi au zetarako izango dan diñostazu, irakuŕle? Ona emen geure asmoa. Idaztidi onetan geure bazkide gustiak alde izango dabe. Apuŕtxo bat eraldu daigunean, bertako idazti, idaztiño ta inguŕtien *(eŕebisten)* Eŕeskada bat atonduko dogu ta Eŕeskadau bazkide gustiei bialduko dautsegu; onetara zelango ta zeintzuk idazti dagozan jakin al izango dabe eta bakotxari atsegin yakona edo yakozanak eskatuko dabez ta guk berialaxe bialduko dautsaguz onenbeste iłabetian-edo irakuŕi dagiyan.

Oŕa oŕ Idaztidya zertarako izango dan atzalduta.

Berau, ziñez, asita daukagu. Idazti - piło bat Bazkuna'k erosita daukaz. Beste batzuk erosteko asmoa dau. Idaztidi arean ona egiteko idazti asko-asko beaŕ dana edonok daki ta gustiak erosteko, yakiña, diru askotxo eralgi beaŕ da.

Lengoan yaupari yaun batek bezuzaz emon dausku idazti-piło galanta. Ona emen Idaztidiya azteko bide bat. Oŕa oŕ askok eta askok yaŕaitu beaŕ leukien eredu edeŕa. Geure bazkide esku ta biyotz-zabalei beŕtotik dei samuŕ - samuŕ bat egiten dautsegu. ¿Askoen aŕtean ez dogu egingo geure Bazkun maitearen duña izango dan Idaztidi ikusgaŕi bat? Uste bete - beteaz bayetz esan geinke.

Edozelako idaztiño ta inguŕti onak aŕtuko doguz. Eliztiyak *(gramatikak)* ixtegiak *(dizionariyoak)* edozein ele, berbetarenak. Euskerazko idaztiyak euskal - gayak darabiłezanak. Eusko -gauzetzaz diarduenak. Edozein jakidi naiz *arte'*tzaz idatziyak; esaterako *matematika, fisika, filosofia* t. a. edozein elez. Eleiz-jakidiak darabiłezanak: Teologia, liturgia, apologetika, patrologia. hermeneutika, aszetika t. a. Onez gañera atsegin aŕtzeko idaztiyak, edestizunak (nobelak), ipuñak t. a.

Oŕa oŕ gure asmoa agertuta; baita asmo ori auŕera eroateko bideak be. Edo norberak beaŕ ez daualako, edo ieki bi edo geyago daukazalako, edo jaupari edo ostantzeko nobere lagunen bat ildalako (saŕitan jaubea il-ostean bere idaztiyak zokondoren baten, onura - barik, eukiten diralarik) norbaitek idaztiyen batzuk gañez ba'leukaz, geuk poz-pozaŕen aŕtuko deutsaguz.

# NASKALDIJA

## IX'gaŕen Pio ta Polonitaŕak.

Jasokun au aspaldikoa da, baña emen ipinten dogu, jakingaŕi da-ta. 1919'go Lotaziłan Aita Santu ta Kardenal batzaŕan (consistorio) Kardenal baŕien goralbena egitean, Varsovia ta Posen'goen txandea eldu zanean, Benedicto XV' gaŕenak jasokun auxe aitatu eban. «Polonitaŕak IX'gaŕen Pio'ri eskiñi eutsoen zirio edeŕ bat; Aita Santu arek, polonitaŕak Eŕoma'n dauken ikasłetxean gordetako agindu eban, Varsovia'ra azkatasunaren ikuŕtzat eroan al izango eben arterano. Bere itzak askok ezebezan ziñestu —esan eutsen Aita santuak—baña guk ainbeste bideŕ, geldurik ikusi izan dogun zirio edeŕ ori, beŕogetaka urte igaro ondoren, gauŕ azkatasuna beragandu daben Varsovia'ra eroan daike. Eta zeuok Kardenalok ondoen deritxozuen eran eroang dozue; Aita Santuak atsekabezko egunetan, zeuen abeŕiatzaz arduratu ba'zan, orain ardura andiagoz begiratzen dautzuela adirazteko; bertako seme gustiak Kepa deunaren irakastegi inguruan, estu-estu batu daitezan.

GAMA.

JAUNGOIKO-ZALE'ren irarkolan. — Zornotza'n.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
179'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Uŕila 1'n

## JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)



ALATZA berenez Jaungoiko-alaren agerkai da. Irakaskintza aldez egindako alatzen bat dakusgunean ba irakaskintza ori itsu-itsuan egitzat aŕtu geinke eta aŕtu beaŕ dogu. Josu-Kisto Berberak saŕitan adirazten ebanez, bere irakaskintza ta Jaungoikotasuna egiztuteko alatzak egiten ebazan eta, (Jon. V-36; XI-42;) bere irakaskintza deunagaz alkaŕtuta dakusguz. Ludiko argia zala esan, eta itsu bateri argitasuna ta ikusmena damotso; beŕbizte ta bizitza dala diño, ta egiztuteko ildako bat beŕbiztuten dau; bizitz-ogia dala azaldu ostean, ogiak ugaritzen ditu; oben estuntzak uŕatzeko eskubidea daukala adirazteko elbaŕituari osasunaz ibiĺteko almena damotso...

Baña alatza indaŕ eta almenaren ikuŕ (señale) da, ta indaŕak giza-biotza bilduŕtu ta kikildu egiten dau. Almen andidunak etsayak bilduŕez betetan ditu; eta aizkide-biotzak be itzalez. Eta Josu-Kisto'ren alatzakaz, alderantzira gertatzen zan. Geyenez Bere inguruan bilduŕik ez dogu aurkitzen. Uste ta itxaropen samuŕa beti. Ikasle, ta ez ziranak, gexo ta zoritxaŕpean egozanak bakaŕik bere inguru ez dituguz aurkituko, an uŕin barik, ta bilduŕ barik, parixetaŕ maltzuŕak izango dira. Josu-Kisto'ren alatzok ba, zerbait erakusten eben, gizonak beragantzeko bideak zabaltzen ebazana. Etsayak eurak be, ez eutsen bilduŕik. Gizon batek al aundia daukola jakin ezkero; bere kaltez batez be, auŕez-auŕ jaikitea zorakeritzat etsiko geunke, zigoŕ aztunen baten biĺa ibiltea izango litzake-ta. Josu-Kisto'ren etsayak ostera, zuŕak izan aŕen, batzuetan zeaŕka, ta bestetsuetan, arpegiz-arpegi jarkiten yakozan. Beragaz ezpayan saŕtzeko beti gertu dakusguz, bere Jaungoikotasuna ukatu, ta txeŕenagaz alkaŕtuta ebiĺela esateraño asaŕtu ziran. Era batera edo bestera, bere almen aundia autoŕtzen eben; beraz euren kaltez erabiĺi eikiala ezagutu be bai. Zer dala-ta ba, arpegi emoten asaŕtu?

Bougaud idazle jakintsuak diñonez, Josu-Kristo'k bere Jaungoikotasuna alatzak egitean baño be, *egikeran* obeto agertzen eban. Esakun au, etsayen asaŕtasuna azal-

tzeko naikoa dala uste dogu. Egiz, Josu-Kisto'ren alatzok Jaungoiko-alaren agerkai dira; baña almen au Jaungoiko baten jakituri ta maitasun samuŕaren eskuetan ebiḻen. Eta zuŕtasun, ontasun ta maitasun samuŕak alkaŕtuta almen au erabilten ebalako, Josu'gana gexo ta obendioak uste osoz, eta etsayak be, bilduŕ barik uŕeratzen ziran. Josu-Kisto'k bere etsayak zigoŕtzeko alatzik ez eban egiten; eta euren asaŕtasunak erakusten dauskunez, ezebazala egingo uste eben. Al eta indaŕ ori gizon bakaŕik danaren eskuetan ikusi ba' eben, ardura geyagoz ibiḻiko ziran.

Bere gurariz almen ori neuŕtu, ta esate baterako, lotuta eukitea gizon utsa danari ezin leikio eskatu. *Alatz-egikeran* be ba, Josu-Kisto'ren Jaungoikotasuna dis-diska agertzen yaku.

Eta gure Jaunak, bere aldez ala etsayen kaltez erabilteko ainbeste arduraz gordetzen eban almen aŕigaŕia, edonori gorputz ala gogoko gatxak kendu ta on-egiteko zanean auŕez agertzen eban. Oŕetarako Bera gatxori edo aŕiskuan jartze-ari, eskaŕ-txaŕ ala irañai ezeutsan begiratzen; zoritxaŕen auŕean Bere biotz samuŕa urtu egiten zala esan geinke. Lautasunik andienaz ezeŕ egingo ezpaleu lez, alatzik andienak egiten ditu; iḻak biztu eta gexoak osatzen ditu. Bere jakituri neuŕgeaz gustia ekiana zanez, biotz baŕenak azteŕtu, eta zoritxaŕen ituŕburua obena izan dala adirazten dabenean erarik pozkaŕienaz egiten dau. Lotsaririk emoteke, itz erdi bat, obendioa pozez beteko dabena izango da.

*Bakez joan... zeure obenak parkatu yatzuz... geyago obenik ez egin...* eta beste onein antzeko itz gozoak ugari, obendio gaxoai esaten eutsezan. Beti gizoste, gexo, ta obendioz inguraturik ikusteaz ezkara aŕitu beaŕ.

Eta izan be, aŕiak ogi biuŕtu leikezana gosez ikusteak; indaŕ eta sendotasunaren ituŕi dana, nekaturik; poz-zorunaren zabaltzaḻea, naigabez beterik; nai izateaz bakaŕik, bere arerio amoŕatuak euren asmo gaizto ta gusti sakabanatu ta ondatu al eikezana, euren eskuetan bizitza emoten ikusirik; ain maitagaŕi dan Josu-Kisto'ren ondora joaten nor etzan, eta nor ezta asaŕtuko?

Josu-Kisto'ren alatzotan auxe da saŕitan gogaldu beaŕ doguna. Bere almen neuŕgea, bai, baña batez be, bere ontasun, biotz samuŕ, ta jaungoikozko eŕukia, alatzok egiteko eukan berarizko *zer* bat, argiro bere Jaungoikotasuna agertzen dauskuna, eta inguruko gustiak uste osoz, maitasunez ta eskaŕ onez betetan zituana.

Gure Jaun maitearen alatzok irakuŕtean maitasun, uste ta eskaŕ-on biozketak soŕtuko al yakuz ba.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 2'gn. Aguŕtzadun Ama Neskutza'ren jaya iḻonen 7'gn. ixentauta dagonaŕen, ori egun ori lan-eguna dalako, gauŕ ospatuten da eŕijarentzako, jaupa gustijak, bat ezik, igandekuen ordez, jai oni dagokijozanak egiten diralarik. Domekataŕen nekazkurena.

9'gn.

*Amabostaruon gure goteŕkijan jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun -biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 1'gn. Abeŕijaren Gotzon zaindarija.

2'gn. Gotzon Zaindarijak.

4'gn. Asis'taŕ Pantzeska Deuna, autorlia, iraslia.

7'gn. Iḻeko lenengo barikuba.

*Iḻaren lenengo bederatzi bariku jaŕaŧubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕkuna ba-dagixu*—Josu-Kisto'k esan eban—*donokija zeuria dozu.*

# UIN ARTEAN

Itxas-erdian
zibu-zibuka,
ibiḷi oi da
bateḷa,
uin artean
bein bare gentzaz,
ortzea urdin
edeŕa;
Bein naspiḷdurik
noiz ondatuko
dantzu ekaitzen
oŕua...
Besterik ezta
ludi onetan
gizon oroen
gogoa.

GABIREL

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
180'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Uŕila 15'n



# EUNKI OSPETSUAK

URTENGO urtea eunki ospetsuetan ugari da. Oŕila'n geure anai Loyola'taŕ Eneko deunaren zauritze *zoriontsuarena* ospetu gendun, eta Eusko-eŕiari yagokon lez ospetu be; andikiro, maitasunez, ta biotzean poza pilpilka gendula. Onetzaz baña garaiz zerbait esan gendun eta, gaur beste iru eunki ospetsuak gomutarazi gura geunkez, Doipuruaren (Aita Santu) guraria be bai' da-ta.

Asis'taŕ *Txirotxoak;* Pantzezka deunak, irasi eban Irugaŕen Gopatz edo Anaiďiaren, saspireungaŕen urtea; Guzman'daŕ Domeka deun, bere izeneko Gopatzaren irasle ta Albi'taŕ ziñausle maltzuŕen garailariaren eriotzako saspigaŕen eunkia, ta, oleŕkari guren, ta bion goralbenak egin dituan Alighieri Dante edo Durante'ren eriotzako seireungaŕen urtea, aurten betetan dira.

Amairugaŕen eunki edo gizaldian, gaiztokitik urtenikoak zirudien ziñausleak, adimenak guzuŕ baltzez iĺundu ebezan, guda galgaŕiak kistaŕ maitasuna giza-biotzetan ito ebala esan geinke, eta zikoizkeria lizunkeriaz alkaŕtuta ludiaren jaube egin zirala zirudian. Gaitz oneik susteŕkatzeko, iĺuntasunak bazteŕtu ta Eleiza'k diñon lez «ixoztuten joyan ludia», argitu ta berotzeko, Asis'taŕ Pantzezka (1182?-1226) ta Guzman daŕ Domeka deuna (1170-1221) aukeratu zituan.

Domeka deunak, EGIA ikuŕitz edo lematzat ebala, eguzkia lez argi egin, eta ziñausleen guzuŕ baltzai, argitasunak iĺunari lez iges eragin eutsen. Baña berak azaltzen eban argia goitikoa zanez, argi beroa zan, eta adimena argituaz batera, giza-biotzak kistaŕ maitasunez berotzen zituana.

Asis'taŕ Pantzezka Deunak; Umbria'n agertu zan eguzkiak (Parad. XI-50) MAITASUNA bere ikuŕin edo banderatzat autu eban, eta bere biotz baŕutik oldaŕka urteten eutson maitasun-suak, giza-biotzen goŕotua samuŕtu, eta zikoizkeriz txindi biurtuta zirudien biotzak urtu ebazan. Baña bere maitasuna sutsua zanez argia be bai zan, eta giza-biotzak maitasunezko laba gorian sartzen ebazan bitartean, adimenak kistaŕ

egiz argitzen zituan. Domeka deunak egia bidetzat artuta maitasunera joten eban; Pantzezka deuna ostera, maitasuna bidetzat artuta egiagana eltzen zan. Egiz diño ba, Dante ospetsuak bata goraltzean bestea be goraltzen dala, deun goragari onein elburua bakara dalako.

Dante irugarendar goragariaren eriotzako seireungaren urtea be, igaro dan Irala'ren 14'n. bete da. 'Dante Alighieri, (1265-1321) idazle gorengoa, olerkaririk bikañena, goiko egi, maitasun ta zuzentzaren abeslari gurena, danak, iru lerotan esan dogun gustia egiztuten dau. Pantzezka deuna bere maitasun-suan, osoan serapindara izan zala, ta Domeka deuna, bere jakituriaren, lurean gotzon - jakituriaz dis-dis egin ebana. Or bere itzak:

L' un fu tutto serafico in ardore
L' altro per sapienza in terra fue
Di cherubica luce uno splendore.

(Dante *Paradiso* XI-37-39)

Eunki ospetsu oneik dirala-ta, Doipuruak idatziriko idazki n laburpentxo bat (J. I.) urengo zenbakietan ipiñiko dogu, egokientzat orixe etsiten dogu-ta.

**M'tar G.**

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 16'gn.; 23'gn.; Deun-Babil, gotzaña, ziñopea, napartara.

«Amabostaruon, gure Goterkijan jai osorik ez da. Igandietan adikuntzara eldu diran saspi urtedun kistar orok jaupa osua entzun biar dabe ta otsein-lanik ez dagikie.»

EGUN IXENDABAK: 18'gn. Deun-Luka, goizparkilia.

21'gn. Deun - Ursule ta lagunak, neskutsak, ziñopeak.

24'gn. Deun-Erapel, gongotzona, bidazti-Zaindarija. Jeronima Deunak diño, Goiko-Jaunak norbait osatu gura daunian Erapel Deuna bidaltzen daula, bere ixenak be «Jaunaren Osakija dikur.

28'gn. Deun-Simon eta Juda, bakaldunak, jai erditzat zaintzen dogu.

* * *

## Urila 16'gn.

### Deun - Gala, lekaipuruba

Gala-Deuna irlandara ixan zan, eta andiki aundijen semia seigaren eunkiko erdiruntz jayo zan. Ondo azteko arduraz, Kolunban Deuna'ren jauripian jakindi ta ekanduetzaz biar zana ikasi egijantzat, Ultonia erkijan zan Benkor'ko lekaretxera eruan eben eta irakasle ospetsu onek zuzenduta, Gala Deuna asko be asko auleratu zan jakindi askotzaz, batez - be baña olerki ta Idazti Deunatzaz. Asko ekijala, jakitun baño deunago zan, bere ekandonakaz gustijak gelduta izten euzala. Bere deuntasuna ezaguturik, nagosijek jaupari ixateko gertu zedila agindu eutsoen, apalez berak bere burua jaupari ixateko bestekua ez zala etsiten eban eta bildur zan; nosnereña be bai baña, ta esana egitiaren beste baga jaupari ixatera eldu zan, gorespenak jaumaitasunetzaz len baño be gartsuago egiten ebala ta apalespenetzaz sakonago. Kolunban Ingalanda'tik Irlanda'ra alde egin zanian, ikasle zintzua lez, Gala Deuna berakin juan zan, eta gero Pantze'ra, eta emen Sijeberta bakaldunak ondo abetaldu euzan, eta Bejanzon'go Goterkiko oyan baten Anegroy'ko lekaretxia irasi eben, eta euren buruak deunagotzen bixi ziran.

Tieri, geruagoko bakalduna, deungaro bixi zan, eta Kolunban'ak, Jaunari baño besterik bildur ixan ez-da, gogor agiraka

# AUZOKO BI

Baseŕitaŕ batek matsa ugariz emoten eutson masti bat eukan bere etxe onduan gustiz ondo landuta.

Bere albuan bixi zan batek be beste masti bat eukan baña ezer emoten ez-eutsana, landuten ez-ebalako.

Matsak elduten ziranian bekatxez beterik egoten zan ezer aŕtzen ez-eban gixon alpeŕ oŗi, bere albokuaren mats-mordo garautsubak ikusita. Baten baño geyagotan esaten eban bere kolkorako: ludi au beti dok bardin; batzuk dana yaukiek ugariz ta beste batzuk ezer barik il biaŕ yoaguk.

Urte baten bekaitz ori sustraitik kentzeko era bat otu yakon. Udabaŕiko gau baten matzak abaŕ baŕi luziak besanga - besanga zabalduten dabezan aldijan ebagi eutsozan albokuari abaŕ bigun oŕek eta pozik juan zan bere etxera, ori eginda baŕdiñak ixango ziriala uste ebala.

Tamal benetan gelditu zan gixon zintzua uŕengo goxian bere matsaren abaŕak ebagita ikusi ebazanian (orduban ez-ekijan ori onuratsuba zana) baña aspertuteko gogorik ez-eban aŕtu, ezta egilia aurkituteko be. Gelditu ziran abaŕak zaintzen ebazan zoli-zoli, bestiari jaramonik egin barik.

Baña mirarituta gelditu zan elduteko ald jan ikusi ebanian abaŕ ebagijak indaŕtsubago ta matz-mordo geyaguaz etozala.

Bekatxa eukan gixonak be ikusi eban ori ta bere auzokuari kalte egitiaŕen ona egin eutsolako ainbat atsakabetu zan...ba berak erijotza ekaŕi ei-eutson.

Jaun - Goikua'k zintzuari lagunduten dautso baña okeŕ dabiltzanak bere bide okeŕetan zigoŕtetan dauz.

A. M.

# Alper - alperikoa

Badezpadako kristiñauei iñoiz entzun oi jakue: Ba, ildakuak beste bizitzatik etoŕiko ba'litzakiguz, adibidez: gaiztokiko edo inpernuko bat, ta ango bere egokeria agertu ¡orduban bai zinestuko leukiela, ta ziñesbakorik elitzakela izango! Orixe beroi esan eutson gaiztokitik aberatz zekenak Abran'eri: anayak eukozala etxian, eta arei adirazoteko zorigaiztoko leku aretan eukozan min, oñaze ta egoneziñak, aolan galenduta, eskarmentauta araxe juan ezedizan.

Abran'ek erantzun eutson: an jaukezak igarlak eta irakaslarijak, arei ziñestu ezik iļak agertuaŕen alpeŕik ixango litzakek. Aor Jesukristo'k berordez ipiñiriko Elexama; aoŕi ziñestu gura eztautsoenai alpeŕik etoŕiko yakuez beste bizitzakuak. Amesak, begitanziñuak dirala esango leukie.

Z. M.

# JAINKO - GUŔTZA EGIZTUTA (Balmes)

## Bederatzigaŕen Atzalburua

## EGIZKO JAINKO-GURTZA BAT BAI DA

Jaungoiko'ak egin gaitu; berak zaindu ta zuzentzen gaitu; gure asiera ta elburu bera da; ta gure gorputzagaz ilten eztan, eta betiko biziko dan gogo au, egunen baten Epaikari gorengoan auŕera aurkeztu beaŕko da, ta bere egiñenen zuri-garbia eskatuko dautso, baita irabazi daben sari ala zigoŕa be emon. Bizitz aonetan besterako gertu bear gara, geure soŕkuna ta elburua ezagutu beaŕ doguz, baita be Jaun-Arduratasunak elburu au jaristeko,

oŕnitu dauskuzan bideak. Ikaski ta bide oneik Jainko-guŕtzak irakasten dauskuz, eta ba'dala agertzeko auxe da naiko, berau ezpalitz ba, gizona ludi aonetan, nondik urten dan ta nora elduko dan be eztakian zaitzal̄ebako umezurtz bat lez izango litzake.

Gizonak Jaungoikoa maitatu beaŕ dau, ontasun neuŕge utsa dalako, baita be ainbeste emaitzez gonburu bete dabelako; eskaŕ ona agertu beaŕ dautso, eta zeru ta luŕaren Jaun danez guŕtu egin beaŕ dau. Baña beronen aintzaz egin Jaungoiko'ari guŕtza eskintzeko egiten dituzan baŕengo naiz azaleko egite gustiak, Jaungoiko'ari begiko ta Irazal̄eari omena egiten dautson izakiari dagokiozanak izan beaŕ dira. Beraz gizonen Jauna'ganako guŕtza aonek euren naimen aldakoŕan asmatuak eztau izan beaŕ araupetuak baño; beraz Jaunko-guŕtza bat, gizon orontzak bakaŕa izan beaŕ dau, bere arauak bete ezkero Jaungoiko'aren guraria egiten dabela, ta betiko zorion bidetik eskier doyazala eskier egon daitezantzat.

Jainko-guŕtza gustiak bardiñak dirala; ta Kistaŕ naiz Maomataŕ, judaŕ naiz Jaungoiko-izun zalea izatea bardin dala diñoanak Jaungoiko'aren Arduratasuna ukatzen dau, Jauna'k ludia egin eta bertanbera laga ebala esatea da; gizadi gustia artzain bako artaldea lez nondik eta zertarako etoŕi ta norantza joan eztakiana dala. ¿Jaungoiko mugage andia danak, gure txikaŕtasunari eztautsola jaramonik egiten, eta geure guŕtzak aintzat eztituala aŕtzen esango ete dogu? Baña orduan, eginda gero jaramonik eginezitekotan, ¿zertarako irazan ete ginduzan? Ziñez, Jaungoiko ta gizonaren artean dagon aldea, berak gure guŕtzari jaramonik ez egiteko ziyo ba'litz irazateko be ziyorik ezeukala esan beaŕko genduke; ba, Jaungoiko mugage andiak; ze asmogaz irazango eban, gero bertanbera lagako ebana, bere eskariak entzun ez egiteko, bere eskintzak ez aŕtzeko, berak gura daben legeari jaŕaituten izteko, guŕtza bat edo beste bat eskiñi ardura eztautsola, bakaŕik, il̄untasunik bilduŕgaŕienean bertanbera lagatzeko?

Erokeri oneik nori bururatn ete leikioz? Au Jaungoiko'aren ontasun eta jakituria ukatzea izango litzake, ta jakituri ta ontasun bako Jaungoikoa, elitzake Jaungoiko izango.

**M.'taŕ G. eusk.**

# EUSKO - IKASKUNTZA

## Julian Elorza Saria

«Julian Elorza-Saria» izenagaz Eusko - Ikaskuntza'k, bere Lendakari duin-duñari begirune ta maitasuna erakusteko, amaŕ mil̄a pesetako sari bat izentatu dau, Eusko mutiko - neskatoen ikastoletarako izango dan Eusko-eŕiko Edestirik onena idazten dauanari emoteko. Edestioŕek uŕengo gayok bete beaŕ izango dauz:

I.—Idaztia labuŕ ta laua bedi umetxuen uleŕmenari dagokionez. Idaztioŕek, geyenean be, 300 ingoski zortziren (en 8.º), 10'gaŕen izkiaz iraŕita, euki leiz.

II.—Gasteleraz, naiz edozein euskalgitan idatzi ledike; gasteleraz egin ezkero euskerara ta euskeraz izan ezkero gastelerara itzuliko dau Eusko-Ikaskuntzak. Ele bietan argitalduko dau, Eusko-ume guztientzat, naiz euskaldunak, naiz erdaldunak izan, adiñona izan dedin. Euskerazko idaztian Euskaltzaindia'ren idazkerea erabil̄iko da.

III.—Mintzoerea (estilo) irakasteko oituten dana izan bedi; argia ta atsegiña umetxoei begiko izan dakioen.

IV.—Ez beite izan, izen eta eguntzen bil̄abide sol̄a, ezta gauza lotubako ta zatikiña be, benetako edesti bat baño, danik labuŕena izanda be, osoa ta bizia beintzat. Berean adiraziko dira, gizaldien igaroeran gure Eŕiaren bizitzeak bere

Amabosteroko
— inguŕlija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
181'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Azil̄a 1'n



## EUNKI OSPETSUAK

### Pantzeskataŕen Irugaŕen Gopatza

(1291—1921)

I

AMAIRUGAŔEN eunki edo gizaldian, edestiak erakusten dausku-nez; gizadiaren betiko iru gatxok, biotz geyenak inguraturik eukiezan: goŕoto, zikoizkeri ta lizunkeriak. Izuŕi galgaŕiok, giza-biotzetatik susteŕkatzeko, Asis'taŕ Pantzeska ospetsuak, maitasuna ta laztasuna eustazpitzat ebala, gizaŕtean bizi beaŕean aurkitzen ziranentzat, Irugaŕen Gopatz edo Ordena irasi eban. Eta aŕigaŕiro toki gustietan zabaldurik, bere lokaŕiz ludia inguratu ebala esan geinke. Luŕera begira zegoan giza-biotza, bere gaizkatzal̄e bakaŕ dan Kisto'gana begira ipiñi eban. Kistaŕ - maitasuna biotzen jaube egin zan.

Gure gizaldi au be, amairugaŕenen antzekoa da. Guzuŕ, aŕokeri, goŕoto, zikoizkeri ta lizunkeri artean ito beaŕ dabela dirudi. Irugaŕen Gopatzak ba, bere aizkora zoŕotza jaso ta zalekeri gustiok susteŕetik ebakiten ditualarik, Doipuruak ainbeste bidaŕ esan dabenez, aukera-aukerakoa da, kistaŕ gogoa gizaŕtean zabaltzeko. Eta izan be, bere araudiak ( II'gn: Atz. ) norbere bizikerari ez joakon apainkeria debekatzen dau, jolas eta dantza nasayetatik iges egiteko, jan-edan laŕegietatik uŕinduteko, ta batez be, kistaŕ maitasun ta anaitasun zintzoa agintzen dau. Irugaŕen Gopatzak ba, XIII'gn. Lon Aita Santuak, eskatzen eban lez, kistaŕ gustiak edo geyenak beintzat bere araupean aŕtuko ba'litu, ta bakotxa zintzo betetan alegindu; gauŕ eguneko gaiztakeri geyenak, piztiak eizaria ikusten dabenean lez, euren il̄unpeko leizara iges egin beaŕko leukiela; nok ez dakus? Kistaŕ askok dauken biotz gogoŕkeria, sutan burdiña biguntzen dan lez samuŕtuko litzakela; nok ez dau ikusten? ¿Nok ez dakus, uŕez inguraturik andiki ta aberatsak daben biotz gogoŕa, samuŕtu, ta mendi gañetako eduŕ gogoŕtua euzki beroaz urtuten danean ur gardenak, ibaŕ ta zelai igaŕtuak piztuten dituan lez, menpekoen biotzak goŕoto ordez, eskaŕ-oneko loraz apainduko litzakezala..?

Baña, onetzaz Doipuruak saspireungaŕen urtea dala-ta idatzi daben idazkian diño-ana labuŕki ikusi daigun.

Gai onetzaz Urtaŕiḻa'ren 6'an. gotzain gustiei XV gn. Benedita'k *Sacra propediem* idazki orokaŕa zuzendu eutsen. —1882'na ezkero, irugaŕendaŕ pantzeskataŕa, dan Aita santu onek, eunki ospetsu au albait egokien ospetuteko dei egiñaz, ereti au aukeratzen dau, kistaŕai Gopatz onetan saŕtzeko eskatu, ta saŕtuta dagozanai zintzo jaŕaitu dagiela gomutaratzeko.—Modernisten aurka, Pantzezka deuna, Doipuruaren zale - zale izan zala diño ta, gizon Jaungoiko-Zale onek Kisto'ren aintza basteŕ-gustietan zabaltzeko eukan gaŕa, Irugaŕen Gopatza irastean, beste lan gustietan baño obeto agertzen dabela. Eleiza zoritxaŕez inguratuta egoala, kistaŕ lege-arauz ludia baŕiztau gurariz Ugolino kardenalak, IX'gn. Gergori izan zanak, lagunduta, Nikola IV'gnak onetsi eban Gopatz edo anaidi au berak lenengoz asmau eban.

Batez be gopatz goragaŕi onen gogobaŕena argiro azaltzen alegindu beaŕ gara, Eleizak, Pantzezka deunaren aldietan lez, ainbeste onura ekaŕiko dauzala itxaroten daben ezkero.—XIII'gn. Lon'ek bere *izateari* ikutu barik, aldi oneitako beaŕizanak betetako eran arautegia baŕistau eban. Eta Pantzezka deunaren guraria bake ta alkaŕtasunari bideak zabaltzen dautsozan, anai-maitasunak, irugaŕendaŕen artean dis-egin beaŕ dabela izan zan ezkero; bere aldietan lez lora baŕiak emon ba'daiz, eŕi ta bakotxaren oiturak zuzentzean eragipen andia eukiko dau.

Baŕistatze au bakotxagandik asi eban, kistaŕ bizitza eŕietan ta giza - batzan zabaltzeko bidea auxe dalako.

Aldi atako anai-arteko guda galgaŕietan, Pantzezka deunak, bere irugaŕendaŕak bakearen geznari ta zabaltzaḻe izatea nai eban lez, Geuk be, igaro dan guda ikaragaŕian asmo orixe euki gendun eta ondiño be sua guztiz itzali eztan ezkero, asmo oŕetan gagoz:

«Guk, Bakaldun Gentzatsu garanez, araso andi oŕetarako, kistaŕ bakearen seme gustien laguntza ta batez be, irugaŕendaŕ Gopatzako anayena beaŕ dogu. Uri ta basauri gustietan irugaŕendaŕak egotea gura geunke; ez baña izenaz bakaŕik asetzen diranak euren eta lagun - urkoaren gaizkatzeatzaz gogoz arduratzen diranak baño... Gaztaen bazkunak, langiḻe ta emakumeenak ¿zer dala-ta, Irugaŕen Gopatzari etxakoz batzen, eta Pantzezka deunaren bake ta maitasun-gogoak bultzatuta, Kisto'ren aintza ta Eleizaren onerako lan gogotsu eztabe egiten? Eŕiak eskatzen daben bakea gizonen asmaketak eraltzen dabena ezta, Kisto'k ekaŕitakoa baño; bereak dira itzok «neure bakea damotzuet, ez damotzuet baña, munduak emoten dabena.» (Jon, XIV-27). Gogo baretasunetik sortzen dan bakea bakaŕik da iraunkoŕa, ta au zalekeriak neuŕipetu barik ezin leikena da. Kistoren indaŕez egiten da zuzentze au, eta Irugaŕen Gopatzan indaŕ au gustiz egikoŕ agertzen da.

Gauŕ geyen gaḻentzen diran zalekeriak, aberastasun, ta atsegin-zalekeria dira. Ta gizaldi onetan lotsagaŕikeri au gertatzen da; gorputz-arasoetan auŕerantza doyan artean, gogo-arazoetan atzerantza doyala dirudi. Geroko gauzakaz aztuta oraingo ondasunetara zaletzen da. Gogoa luŕerantza makuŕtuta, atsegin luŕkoyez asetzea baño estau gura. Alde batetik aberastasunak neuŕi barik piḻatzen dakusguz, ta bestetik ezeukitzeak dakaŕzan nekeak aldi bateko eroapenaz eztira aŕtzen, ta ortik sortzen dan aberats eta txiroen arteko asaŕea, biziagotzeko apainduri laŕegi ta lotsagaldua agertzen da:

Eta gai onetzaz adin eta maḻa gustitako emakume askoren itsukeria tamalgaŕia da.

Edeŕetsi dayezan yoranez zoraturik, euren jantzi ta janzkeraz, lotsadun diranak mindu, ta Jaungoikoa iraintzen dabela estabe oaŕtzen. Eurak oraintsu lotsabako ta iguingaŕi etsiko ebezan jantziz eleiza, eleizkizun, eta jaunaŕtzera be uŕeratzen asaŕtzen dira. Oro bat basati artetik ekaŕitako bata baño bestea txaŕago diran dantzak, lotsearen azkenengo izpia galtzeko aukerakoak dira.

Irugaŕendaŕai aldi oneik eskatzen dautsiena ba, euren Aitak lez laztasuna ta gogoz beintzat txirotasuna eskatzen dautse. Emakumeai jantzi ta janzkeran besteen eredu izan daitezala, Eleiza poztu ta oiturak zuzentzeko bidea orixe bakaŕik da -ta. Irugaŕendaŕ gizonezkoak ostera, euren ziñeste osotasunaz, bizikera gaŕbiaz, gurari sutsuz Kisto'ren usain edeŕa basteŕ gustietan zabaltzen alegindu beitez, baita euren onu ta dei maitekoŕagaz, bidekatuta dabiltzanak zuzeneratzen. Auxe Eleizak irugaŕakandik itxaron eta eskatzen dautsena.

Eta XV'gn. Benedita Doipuruak, datoŕen urteko Joŕala'ren 16'rarte parkamen ugariak emonaz idazki edeŕa amaitzen dau.

**M'taŕ G.**

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 6'gn.; 13'gn.: Koska'taŕ Estanisla -Deuna, autoŕlia.

JAI OSUAK: 1'gn. Deun-Ororen Jaya.

*Amabostaruon, gure Goteŕkijan beste jai osorik ez da. Igande ta jai osuetan adikuntzara eldu diran saspi uŕtedun Kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dabe ta otsein-lanik ez dagikie.*

EGUN IXENDABAK: 2'gn. Gokaxuen Gomutaldija.

Doibatz gure Amak gura-gura dauna iñardu ta gauŕ Gokaxo-aldez lan asko egin-biaŕ dozu: jaupari bakotxak iru jaupa egin dagikezala ekixu, ta zuk asko entzun-biaŕ dozuz; iru bai beintzat, geyago ezpa-da be. Bestelan be ainbat lan dagikezu, jaunaŕkuna ta nekazkak irabaztia ta autarako Doibatzak atzo eguberdijan asi ta gauŕ gaberdiraŕte irabazteko *Gokaxuen Nekazkurena* ixentau dau. Nekazkuren au jaupea egiten dan edozein txadon agirikuan irabazi dagikezu, baña Gokaxo-aldez baño ez.

4'gn. *Ileko lenengo ostirala. Ileko lenengo bederatzi ostiral jaŕaitubetan jaunaŕkuna, biaŕ dan eraz, ba-dagixu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria da.*

10'gn. Deun-Ander Abelin, itxumustuzko erijotza-auŕka Zaindarija.

* * *

## Azila 13'gn.

### Koska'taŕ Estanisla-Deuna, autoŕlia

Koska'taŕ Estanisla deuna, aundiki jatoŕ ta aberatzen semia, anei bosteun eta bostamaŕgaŕen (1550) urtian jayo zan. Estanisla'ren gurasuak gitxilako Kistaŕ zintsuak ziran, eta mutiko au ondo azi ta eziteko arduratsu ixan ziran, umarotik Estanisla zan baña osoz jaungoitija ta azkutsua. Adikuntzara eldutian, bere lenengo iñaŕkuna jaumatasunezko egikuna ixan zan. Edeŕ-edeŕa zan, sentzun andiduna be bai baña, ta bere auŕian bein alan - olako itz batzuk esan ebazalako, laŕijak emon eta jausi egin zan. Jantzi apañik ez eban erabili gura-ixaten, jolasketak goŕoto euzan, eta adiraldu ta ikasi ta otoi-egin zan bere zaletasun gustija. Amairu urtedun, Paul bera baño anaya zaŕagua lagun yakola, geyago adiraldu ta ikasi egijan, gurasoak Viena'ra bidaldu eben. Bere ikaskidiak baño be geyago ikasi eban, onez gustijak begiko eben eta maite be bai. Ja-

# ¿ZELAN..?

*Txoria egazka dabil*
*aŕaintxoa igeri,*
*aberea lau oñean*
*piztia naŕazkari,*
*zintzo yaramon egiñaz*
*izate-legeari.*

*Ta gizona, adimenan*
*yaube bakaŕ izanda,*
*adimen-arauz aztuta*
*ibiltea, ¿zelan da?*

GABIREL.

# JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

Gotzañareṉ baimenaz.





**1921'ko**
**Azil̄a'ren 15'gn.**

**X 'Urtia**
**182'gn. Zenbakija**


TXABEŔTAŔ PANTZESKA DEUNA
EUSKAL IRAKURGAI ONEN ALDEZ
GOIKO JAUNARI OTOI

Amabosteroko
— ingurtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
182'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Azil̄a 15'n



## XXIV'gaŕen Goizpaŕkija

### Deun-Matai'ren, XXIV atzalburutik eŕeskada batzuk

ALDI ATAN: Josu'k diñotso beraren ikaslai: 15.—Sakail goŕotagaŕija ikusten dozubenian, ba, toki deunian, Danel iragaŕlarijak diñoana, irakuŕleak ulertu bedi.

16.—Orduan Judai'n dagozanak, mendijetara igez-bekije.

17.—Tel̄etuan daguana ez bet̄e jatsi, beraren etxetik, zer-edo-zer aŕtzen.

18.—Atan (daguana), ez bedi jatsi bere janskija aŕtzen.

19.—¡Zorigaiztodunak, egun aretako seindun eta·ugastunak.

20.—Otoi-egin, ba, zuben igeskuna ez dedin ixan neguan ala larunbatean.

21.—Orduan, sakail *(tribulatio)* andija, gauŕ aŕte, ixan eztalakua, biztoki askunatik, ixango bez.

22.—Eta egun oŕek, labuŕtzen ezpalitzatekez, gixoste gustija elitxateke gaizkatuko; baña auteslearen aldez, egun oŕek, labuŕtuko dira.

23.—Orduan, noronok ba-diñotsube: Ara, Kisto, emen, dago, ala an, ez ziñetsi gura ixan.

24.—Kistotzako edo kistoxunak ta iragaŕlarixunak jagiko dira, ba, ta egingo dabez ikuŕ ixukoŕak eta alatzeak eta autesliak, be, guzuŕpidera erazoko dabez (al-bada).

25.—Ekixube, auŕetiz, diñotsubela.

26.—Ba-diñotsubet, ba: Ara lekaruan dago, ez urten: ara, etxe-baŕu-baŕuan dago, ez ziñetsi.

27.—Oñestua uŕtetan dan legez, soŕkunatik, eta saŕkunaŕte ageŕkun; olantze ixango da Gixon-Semiaren etoŕkundia be.

28.—Edonun gorpuzkin il̄a, bertan sayak batzalduko dira.

29.—Berialaxe, at̄atutako egun aren sakail, ostez, eguzkija il̄unduko da, ta il̄argijak ez dau argi egingo, ta ixaŕak ortzetik jausiko dira ta gotzonak ikaratuko dira.

30—Eta orduan ageŕtuko da ortzean Gixa-Semiaren ikuŕa, ta ludiko abendaki orok

# EUSKERA ZAĪA TA... ALPEŘKERI EŘEZA

Euskera zaīa darabilgula
euskal-idazle geyenak,
oingo entzun dau edonok, baita...
Aralař mendi gurenak.

Zailtasun ořen
sustařa zein dan
yakin gurarik
ibiīi,
ta, buruauste
andi barik be
lasteř leikio
igaři.

«Itz bałi asko darabilgula?
Gai sakonegi aztunak?
Iñok ez ei dauz ulertzen gure
idazkai eta yardunak?»

—Tira; baña asko garbizaleak
be, bai'dirala yakiñaz;
danari zelan atsegin emon
idazten daunak euskeraz?

«Eřiarentzat idazten dana
eřez idatzi beař da»,
—Egi andia, erantzungogu;
«eřez idatzi», ondo da.

Irakuřlea baña ba'dabil
sałi oi dan lez eřenka;
ikasten daben bitařtez geldi
egon, ezeřtxo eiteka?

«Zaletasunik eztagola-ta
idazleak dau eřua?»
¡Edeřki! zintzo, duban nekauta,
«ori txařto yaok» *pagua?*

«Eřez azaldu gai aztunak be,
da beintzat ein beař dana»
—Euskeraz ori,? iñon eta iñoz
erderaz egin eztana?

Euskal-etsayak itz-ein al ba'lei
alpeřkeriaz batean,
bardin egingo leuke; neuk uste,
izkuntza onen kaltean.

«Zaīegi dala
idazten dana;
eurak eřez ez
idatzi,
idazleari
gogait eragin,
eiten dan oro
gaitzetsi.»

Baña obe ta egokiago
izan leike nire ustez,
yardun gitxi ta, zail ala eřez
idatzi gogoz ta euřez!

Bakotxat egin aldabena-ta
maitasun batez alkařtu;
danon lana be, geyegi ezta
nai bou euskera sendatu.

Alkař zirika
ibiīi barik,
¡Bazteřtu mořmoxetea!
Itz euskeraz ta
idatzi gogoř!
¡Gořotau alperkeria!

GABIREL.

Amabosteroko — inguřtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia 183'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zořnotza, Lotazila 1'n

## Txabeř'tař Pantzeska Deuna gure Bazkunako Zaindarija gu-aldez otoi

*Txabeř'tař Pantzeska, gure bijotzetako Deun kutuna, zure jayegun au ospatzian gure bijotzak naretu egiten dira, arnasa ařtzen dabe, nasatu egiten dira. Lanian diardugula urte-bitařtian, ekin-biařen ekin-biařez, zutzaz, biař-ba, zerbait aiztu egiten gara, ta gure bide sortořtsuan idoroten doguzan eragozpenak lař erabilten gabez ta biotzkatuta izten gabez. Gustija zu, eredu bikain eta besterik ez lako Deun euskotař euskaldunoi, biař dan bestian begijen ařian erabili, so-egin eta dei-egiten ez dogulako.*

*Gauř baña, beste gustijatzaz aiztuta lez, zeu-baño besterik ez dogu goguan, bijotzan eta esku-ařtian, eta zure lan amaigiak so-egindа, zure Jaumatasuna eta geide-matasuna goznařtuta, ezek oinpetu ixan eban zure gotořa unetaraño sařtuta, gauř geu be lanerako azkořtzen gara, eragozpenak oinpetu ta sostořak zuzituta ařera, beti ařera ta beti goruntz-egin biař dogulako erabagija bařiztetan dogu.*

*Makalak, indařgiak, gixajuak gara baña ta, zeuk oř Jaunaren ařian dozun aldin-aldintsuagaz, sendotu gagixuz, indařtsutu gagixuz, poztu gagixuz.*

*Biař daunak eskatzen dauna ukatzeko matekořegija zara, eřukiořegija zara, beraz ezin ustekidatsuago, gauř, zure jayegunan gu-aldez, iñozko geyen otoi-egin dagixula deskatzugu.*

*Gure Bazkuna bazkidez yoritsu-egin, gu matasunez gořitu, gustijok lanerako azkořtu, garan baño azařijago ixan gadixala ta euskotařak euskal-irakuřgai onak irakuřteko zaletu ta zaletu.*

# ¡AGUŔ SOŔTZEZ GARBIA!

Arantza erdian gizadi oro
zauriz eunduta, urten eziñik
egoan eta, lili edeŕa
agertu ziñan, ¡Soŕtzez Garbia!

Donoki-luŕak pozaŕen zakus,
lili bikaña, lirain, zuria,
ta zorun-pozez birloraturik
diñotzu: ¡Aguŕ, Soŕtzez Garbirik!

Giza-adimena, laño baltzpean
egola, zageŕ euzki argia,
eta itxaropen bizi-zamuŕaz
diñotzu: ¡Aguŕ, Soŕtzez Garbia!

Oben-edenez aulduta zegon,
biotzak Zeugan indaŕ bizia
dauŕki ta pozez, eskaŕ-samuŕez
diñotzu: ¡Aguŕ, Soŕtzez Garbia!

Garbitasunan irudi orok;
ur garden, argi, eduŕ zuria;
lora bikain ta pitxi politak
goraltze zaitu: ¡Soŕtzez Garbia!

Donoki-goyan poza Zu zara,
gaiztokientzat bilduŕgaŕia,
eta maitasun ala goŕotoz
orok diñoe, ¡Soŕtzez Garbia!

Jaunak Amatzat autu zaitu ta,
Miren eskaŕez zara betea,
Aguŕ ba, lili edeŕ zuria,
gustion poza; ¡Soŕtzez Garbia!

GABIREL.

# JAUNGOIKO·ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

Gotzañaren baimenaz.



1921'ko
Lotazila'ren 15'gn.

X 'Urtia
184'gn. Zenbakija

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

X Urtia
183'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1921

Zoŕnotza, Lotaziĺa 1'n



## ELGARO'KO, IV IGANDIA

Luka-Deunaren, Goizparkiko III atzalburutik, esakun eŕeskada batzubek.

LDI ATAN: 1—Tiberi Kaiseŕ'aren agintzaldiko, amaboskaŕen urtian, Judai'ko, aginzpuru, Pontius Pilatus zala; ta Galile eŕkiko aginzpuru Eroda; ta Iturea ta Trakonitida eŕkiko buruzagi, beraren anai Piĺipa: ta Abilina eŕkiko, aginzpuru, Lisani.

2.—Ana ta Kaipa, jaupalburu aldijan: Jaunguaren itxa egin zan, lekaruan, Jon, Zakari'ren semiari.

3.—Eta Jordan, eŕki gustira etoŕi zan, Ugutz-oben-gaŕbaya iragaŕtzen, obenaren azkespiderako.

4.—Isai iragarlaren, itz-idastijan, idatzita dagon lez: Lekaruan, oyudun aboskea: Jaunaren bidia gertau; beraren indeak, arteztu.

5.—Ibaŕ oro, andit̄u bedí: eta mendi gustija ta egija bezau bedí: eta ziaŕak, artez, ixangô dira, ta bide oyaŕak, bide leunak.

6.—Eta gixa oro, Jaunguak bidaldutako Gaizkaĺia, dakus.—Eta abaŕ.

* * *

Bai-datoŕ, irakuŕle euzkeltzalia, Jaungoiko Semia, geugana: Beraren jopuba ageŕtu da, Jordan ibayaren egalaetan, didaŕ egit̄en: *Jaunguaren Bidia, gertau*. ¿Zein da bide ori? Bide bi dira: eŕukizko ta egizko edo zuzentasunezkuak. Lenengo aldiz, eŕukizko bidetik, ta bigaŕen aldiz, zuzentasun edo epai-bidetik. Gertau, ba.

**Albizuri'taŕ S.**

---

Buruzagi=*caudillo*.
Inda=*sendero*.
Indautxu=*senderito*.
Egi=*colina*.
Oyaŕ=*escabrosidad selva*.

# GABON EGUNA

*Alai-alai, zoragaŕi*
*gozo-gozo biguna,*
*kistaŕontzat Gabona da;*
*Josu-Jayotz-eguna.*

*Iŕibaŕe, poztasuna,*
*goi-zorunaz, argia*
*Josu'k dakaŕ guretzako*
*pozturik gizadia.*

*Oben estuntzak uŕatu*
*ta poztasun gozoa*
*donokitik jatsi yaku*
*gentza-zorun osoa.*

*Berari laguntzen datoŕ*
*gotzon talde andia;*
*entzun pozez; bere aintzaz*
*diñoen abestia;*

*«Aintza donoki goyetan*
*Jaungoiko Altsuari;*
*gentza baŕiz ludi ontan*
*gogo zintzodunari.»*

*Abesti au entzun dau-ta*
*artzain talde zintzoa,*
*arin doya Belen'era*
*guŕtzen Jainko Aurtxoa.*

*Auŕtxo Josu'k gure estuntzak*
*ausi dituz betiko,*
*au zinetsi, ta kistaŕak*
*ezkara ba poztuko?*

*Txeŕenaren eŕpe-baŕu*
*aldi luzez egonda;*
*kistaŕak ez ospatuko*
*Auŕtxo Josu'n gurenda?*

*Kistaŕak! ¡gora biotzak!*
*¡obendioak! poztu!*
*gure Azkatzal̄e ona*
*biotz-biotzez guŕtu.*

GABIREL.

# Gabon alai ta il̄una

*Zugatzak, udagoyeneko janzki oŕlegi edeŕa leiak lokatuta, ipaŕ-aize batek bil̄oxik itxi dauz; mendi gal̄uŕak eduŕez jantzita agiri dira ta eŕekaldian, aranetan, txingoŕa jausten da euriaz naztauta. Neguaren asikaldia dala iragarten dauskuen ezaugaŕiak dira eurok.*

*Aldi onetarako euzkeldun baseŕitaŕak, iñuŕiak lez, neguaz gogoraturik euren etxietako kutxak gari ta babaŕunez bete dabez, ta sabaian oin betean lodi erdiraño zabalduta ageŕtzen dan aŕtoa noizipein laño aŕtetik aŕpegia erakutsirik leioak zeaŕ saŕtzen dan eguzkiaren izpiak jota diz-diz uŕeantzekoa egiten dau bertako oŕmetan ta beste aldeŕdian aberientzako pil̄atuta dagozan lasto, agotz ta bedaŕ-igaŕ aŕtean.*

*Lotazil̄a'ko 24'gna. da ta gau oŕetan bere jaiotetxean gabon-aparia egiteko asmoz luŕeratu da Euzkadi'ko kai baten uŕte batzuk dirala aberastasun-bil̄a Amerika'ra joandako seme bat, bertarako uŕten zanetik ona etxekoak bere baŕirik euki eztabena, uri aundietatik uŕun zintzo bizita mendietan aŕtaldeakin aberaztu dan mutil̄a. Jaiotetxeko gabon alaiaz saŕitan gomutau izan da, eta aberaztu danean gabonez egin gura dau saŕerea bere etxean guraso ta anai-aŕeba guztiak gabon aparia egiten dagozala.*

*Bere eŕira eldu oŕduko gaututen dautso ta iñunbe geratu barik artzen dau bere jaiotetxera daroan bidea, ta ixil-ixil̄ik atea irigita eskatzian sartuaz dirautse: ¡gabon gustioi!.. Ez dau baña auŕkitzen anai gaztiena...*

*Galdutzat eukena ageŕtu da, baña ezin dube guztiak batera aparia egin; au*

*ko agindu egingo neuke; baña oŕen beste enazan ezkero, ben - benetan gure irakurle ta bazkidiei eskatzen dautzet Euskaltzaindiari laguntzeko.*

---

**Zoriona izen ona lez da, oso sala irabasten eta eŕaza galtzen.**

---

# ZER EDO ZER

*Zezenketa-auŕka.*—Tolon'go abere aldezko Bazkunari Aita Santuaren idazkariak idazki bat zezenketa auŕka idatzi dautso basati jolasau negaŕgaŕiro zabaltzen dala - ta. Elexak jolas au aspaldi debekauta dauko, eta gai onetzaz V'kaŕen Pi Doipuruak (Aita Santu) eman eban agindua ezaguna da. Oitura ori zabaltzea gauza negaŕgaŕia dala diñotso, eta jolas odoltzu ori baztеŕtzeko alegin gustiak egin dayezala. Eta alantxe egin beaŕ litzake baña, susmetxoa daukogu emengo Katoliko! zezenzaleak auŕerantzean be agindu au gora bera... Osasun edeŕagaz jaŕaituko dabela ¿Ez-ete?

*Mezzojauti ospetzua eta euskerea.*

Mezzojauti'taŕ Joseba kardenal ospetzuatzaz, beste zenbaki baten zerbait esan gendun. Beŕogetamaŕ izkuntza ta geyago ondo ekizela be bai, baña euskera ekianik ez. Eta gure izkuntza maite au be ikasi eban, ikusi geinkenez.

Euskaldun batzuk Eŕoma'ra joan ziran bein, ainbeste izkuntza ezagutzen ebazan Mezzojauti jakintzua ikusteko gogo biziaz.

Bein baten, bidian aŕotz batzukaz izketan aurkitu eben, eta bakotxari beren izketan erantzuten eutsola ikusirik, gure euskaldunak, alkaŕi ixilka-mixilka itanduten eutsoen:

Gure euskerea be ezagutuko ete dau?

Eta Mazzojauti Kardenalak, au entzunik berialaxe erantzun eutsen.

Bai: ori be bai.

* * *

Aizkibel'daŕ Pantzeska euskaltzale ospetzua bere gaste aroan Perdiñanda'ko Dukeen banakari izan, eta eurakaz Europa'ko lateŕi asko arakatu ebazan batez be Italia aldea. Eŕoma'n egoala Mezzojauti ospetzua ezagutu eban, eta beragaz aŕtu -eman eta aizkidetasun baŕukoa izan eban. Eta euskaltzale onek lagunduta euskeraz itz egiteko eŕeztasun andia jaritxi eban.

Eta diñoenez, euskera bakaŕik ekien Azteazu'taŕ batzuk, ezkontzeko baimen eske Eŕoma'ra joan ziranak, Kardenal jakintsu onegaz euren elez autoŕtu ziran. Eta ain jakitun andiak aintzat aŕtu eban izketa gozo au; euzkaldun txaŕ askok zokondora jauŕti gura dabela ikustea, lotsagaŕia ezta?

GAMA.

---

**Ezin leiteke mundu onetan zorijonekua izan, beste munduko itxaropen barik.**

---

JAUNGOIKO-ZALE'ren irarkolan.—Zornotza'n.